



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 4a

92. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko azaroaren 2an hartutako erabakiaren bidez, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **epe bat hasiko da eta 2006ko azaroaren 21eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa

Foru lege honen xede nagusia da Nafarroako Gobernuaren politika fiskala, eta haren barruan, zerga-politika gauzatzeko behar diren baliabideak ematea.

Zerga-politikaren helburu nagusiak, oro har, lau dira:

a) Aurrekontu politikaren esparruan aurreikusi den gastu fiskala estaltzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea.

b) Baliabideak ekoizpen merkatuan modu eraginkorrean esleitzeko eta ondasun eta zerbitzuak ere hala banatzeko laguntza ematea.

c) Dirusarrerak hobeki banatzen laguntzea, batez ere Errentaren gaineko Zerga gehikorren bitartez.

d) Nafarroako sektore publikoko jarduera Foru Komunitatearen garapen ekonomikoa lortzeko funtsezko elementua izaten laguntzea.

Helburu hauek lortzeko beharrezkoa da zenbait neurri hartzea tributuen arloan.

Zehazki, arau honetan ageri diren neurri gehienak lau multzotan bilduta daude: lehenik, aldatu egin da aurrezkiari buruzko tributazioa. Aurrezkiak gauzatzeko "produktuen" fiskalitateak gaur egun duen egoeraren berezitasuna heterogeneotasuna da, eta horrek zerga arloko neutraltasun falta kezagarria sortzen du eta horrek, berriz, garrantzizko arazoak dakartza, zeren eta tributazioak ahalik eta eragin txikiena izan behar baitu zergadunen erabaki ekonomikoetan, kontuan izanik erabaki horietara iristeko kontzeptu ekonomiko eta finantzario hutsetan oinarritu behar dela, hala nola errentagarritasuna, likidezia eta arriskua. Aurrezkiak gauzatzeko "produktu finantzario" desberdinek tratamendu fiskal desberdina izatearen ondorioz, "produktu" horiek gutxi gorabehera beren kostu fis-

kalaren arabera merkaturatzen dira, eta horrek distortsio larria sortzen du merkatu finantzarioetan. Aurrezkiaren tratamendu fiskala homogeneousatze-ko beste arrazoi bat gure inguruan gertatzen ari diren arau aldaketek ematen dute, zeren eta gaur egungo globalizazioak, kapitalen zirkulazio askatasunean azaltzen denak, berarekin baitakar tributu arloko botereek geroz eta berdintze handiagoa ezartzea aurrezkiaren tratamendu finantzario-fiskalean, kontuan izanik “deslokalizazio” arriskua dagoela ekonomiako globalizazio eta nazioarteratze horren kontra edo ez jakintasunez jokatu nahi izanez gero.

Bigarrenik, batik bat iruzurraren kontrako prebentzio eta borrokarako diren neurri batzuk arautzen dira, hala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan nola Sozietateen gaineko Zergan eta Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean.

Hirugarrenik, gure sistema Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeenarekin koordinatzeko xedez, eta gure inguruko sistema fiskalen ildoari jarraikiz, beharatu egin dira Sozietateen gaineko Zergako kargatasak. Beharitze horretan kontuan hartu dira, bereziki, enpresa txiki eta ertainak.

Azkenik, neurrien laugarren multzoa gure araudia Europako zuzentarauei egokitzeari buruzkoa da eta, hori, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez bereziki.

Foru lege honek bederatzia artikulatu ditu, eta gainera, lau xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bost azken xedapen.

1. artikulua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen zenbait alderdi aldatzen ditu.

125.000 eurotik 180.000 eurora igo da langilea kaleratu edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainetan salbuetsia dagoen zenbatekoa, Langileen Estatutuan edo hori garatzeko araudian nahitaezko gisa ezarrita dagoen kopuruaren barnean.

Familia-harrera dela-eta erakunde publikoetatik jasotzen diren kopuru batzuen salbuespenaren esparrua ere zabaltzen da, bai eta Gizarte Segurantzako famili laguntza batzuen ere.

Salbuetsizat jotzen dira aurrezki sistematikoaren banakako planen ondoriozkoak diren biziarteko errenta aseguruak eratzean agerian jartzen diren errentak. Hortaz, aurrezki sistematikoaren banakako planean primak jarri zirenetik biziarteko errenta eratu bitarte metatu den errentagarritasuna dela-eta ez da zergarik ordaindu behar. Biziarteko beste edozein errentaren tributu araubide bera izanen du.

Dibidendu gisa jasotzen diren urteko lehenbiziko 1.500 euroak salbuetsita egonen dira. Aurrezkiaren araubide fiskal berriaren esparruan funtsezko aldaketa bat egin da dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen tributazioari dagokionez. Orain arte bazen bide bat dibidenduen zergapetze bikoitza saihesteko, honako hau funtsean: dibidendua 1,4ko portzentajeaz biderkatzea eta hala zerga-oinarrian sartzea eta, gero, 0,4ko kenkaria aplikatzea Zergaren kuotan. Gure inguruko herrialdeetan sistema klasikora itzultzeko joera dago, hau da, zergapetze bikoitza erabat ez saihesteko joera, eta horrekin batera zenbait arau daude, hain zuzen ere bazkidearen kasuan dibidenduen tributazioa arintzeko, kontuan izanik behar zen egunean zergapetu zirela, mozkinen parte ziren aldetik, banatu zituen sozietatean. Hori hala: tributazioa bazkidearen kasuan arintzea islatzen da, lehenik, hartzen diren dibidendu guztien zerga-oinarrian eta, gero, lortzen diren lehenengo 1.500 euroen salbuespen horretan.

Enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan berariaz sartzen dira enpresetako gizarte aurreikuspeneko planak.

Higiezinen kapitalaren etekin osoen zenbaketa egiteko moduan aldaketa nabarmen bat egin da. Indarra duen testuan adierazten da etekin oso gisa zenbatuko dela errentari edo azpierreneriengandik, lagapen-hartzaile edo eskuratzailerengandik kontzeptu guztiak direla-eta “jasotzen den” zenbatekoa. Aldaketa ez da hutsala, izan ere oraingo testuan kuxaren irizpideari jarraitzen zaio, hau da, kobratzen dena (jasotzen dena) hartuko da etekintzat. Araua aldatuta, galdagarritasunaren printzipioa da nagusi, hau da, “errentariak ordaindu behar duena,” kobratu den ala ez alde batera utzita.

Hobetu egin da biziarteko eta aldi baterako errenten tributazioa, murriztu egin baitira higigarrien kapitalaren etekintzat hartzen diren portzentajeak, betiere hartzailearen adinaren arabera (biziarteko errenten kasuan) edo errentaren iraupenaren arabera (aldi baterako errenten kasuan).

Lanbide edo enpresa jardueri dagokienez, zuzentasuneko edo “iruzurraren kontrako” arau bat sartu da dirusarreraren bolumenaren tamaina kalkulatzeko (eragiketen bolumena ere deitzen da). Zenbatespen objektiboko araubidearen aplikazio eremua, beste faktore batzuekin batera, modulu objektiboen bidez finkatuko da, hala nola eragiketen bolumena, betiere erregelamendu bidez ezarritako mugekin. Dena dela, lege arau honetako zehaztapen berriaren arabera, dirusarreraren bolu-

menaren tamaina konputatzeko, kontuan hartuko dira, subjektu pasiboak egindako enpresa jardueri dagozkien eragiketak ez ezik, baita ezkontideak, ondorengo ahaideek eta aurreko ahaideek egindakoei dagozkienak ere eta, orobat, horietako edozein partaide den errenta-egozpenaren araubideko entitateek egindakoei dagozkienak, baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:

– Egindako enpresa jarduerak berdinak edo antzekoak izatea. Ondorio horietarako, berdinak edo antzekoak direla ulertuko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan talde berean sailkatutakoak.

– Jarduera horien zuzendaritza bateratua izatea, giza eta gauza baliabideak partekatuz.

Ondare gehikuntzen atalean, berariazko arauak eman dira inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio eta partaidetzen ondoriozko ondare aldaketetan izaten diren ondare gehikuntzen eta murrizketen konputurako.

Hala, inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioen edo beselako partaidetzen eskualdaketa edo errenboltsoren kasuan, eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldearen arabera zenbatuko da gehikuntza edo murrizketa; azken hori eskualdaketa edo errenboltsoa egiten den egunean duen likidazio-balio aplikagarriak zehaztuko du edo, horrelakorik ez izatera, argitaratutako azken likidazio-balioak. Likidazio-baliorik ez izatera, zergaren sorrarazpen egunaren aurretik itxitako azken ekitaldiari dagokion balantzearen ondoriozko balio teorikoa hartuko da.

53. eta 54. artikulua gai garrantzitsu bati buruzkoak dira, hots, zerga-oinarriko aurrezkiaren zati orokorra eta zati berezia osatzen duten elementuei buruzkoak. Aldaketa handi bat egin da eta, horren ondorioz, zerga-oinarriko zati orokorraren osaera egozpenaren bidez edo modu negatiboan definitzen da: aurrezkiaren zati berezia sartzen ez diren etekinak eta ondare gehikuntzek eta murrizketek osatuko dute. Zati horretan sartuko dira edozein entitate motaren funtsetan partaidetza izateagatik lortzen diren higigarrien kapitaleko etekinak, kapital berekiak hirugarrenei lagatzeagatik lortzen direnak, bizitzako edo baliaezintasuneko aseguru kontratuetatik eta kapitalizazio eragiketetatik heldu eta lan-etekintzat jotzen ez direnak, bai eta ondare elementuak eskualdatzean agerian jartzen diren ondare gehikuntza eta murrizketak ere. Lehenago aipatu da aurrezki gaiazteko “produktu” guztiek ez dutela fiskalitate bera, eta horrek disfuntzioak eta arazoak sortzen ditu. Egin den aldaketaren ondorioz produktu horiek

zerga-karga homogenea izanen dute. Horretarako, aurrezkitik heldu diren errenta guztiak (funtsean, higigarrien kapitaleko etekinak eta ondare gehikuntza eta murrizketak), salbuespen gutxi batzuekin, aurrezkiaren zati berezia sartzen dira, denek tasa finko bat dutela.

55.1 artikulua testu berrian, zerga-oinarriaren egin beharreko murrizketak arautzeari buruzkoan, aldaketa garrantzitsuak egin dira:

a) Gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egiten zaizkien ekarpen eta kontribuzioei dagokienez, zehazten da banakako profesional edo enpresaburuen ezkontideek eta lehen graduako ahaide odolki-deek ere gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan ekarpenak egiten ahal dituztela, bai eta mutualitate horietako langileek ere.

b) Aukera berri bat sartu da, hau da, menpekotasun larria edo menpekotasun handia baizik estaltzen ez duten aseguru pribatuei ordaindutako primen zenbatekoan zerga-oinarria murrizteko aukera, Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen kasu egiteko Legeari zedatzen denaren arabera.

c) Enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan egiten diren ekarpenen barruan enpresetako gizarte aurreikuspeneko planak sartzen dira.

d) Goratu egin dira murrizketen gehieneko mugak. Lanaren etekin garbier eta lanbide eta enpresa jardueren portzentajea 100eko 25etik 100eko 30era igo da. Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko portzentajea 100eko 50 izanen da. Muga orokorra ere urteko 7.212,15 eurotik 8.000 eurotara igo da.

e) Ezkontideak gizarte aurreikuspeneko sistemetan egiten dituen ekarpenetan ere igo dira zenbatekoak, bai ezkontideak lortu behar dituen diru-arrerei dagokienez bai ekarpenaren zenbatekoari dagokionez.

Kuotako kenkariei dagokienez, handitu egin da minusbaliotasuna duten pertsonen ohiko bizilekuan egiten den inbertsioagatik kenkaria. Aldaketa horren arabera, handitu egin dira kenkarietarako aukerak, bi ildotan:

a) Alde batetik, kenkaria egiteko eskubidea emanen dute subjektu pasiboaren bizilekuan minusbaliotasunagatik egin behar diren egokitzapeneko obra eta instalazioek, minusbaliotasuna subjektu pasiboak berak, ezkontideak edo bikotekide egonkorak ez ezik beste hauek ere izaten ahal dutela (eta hau da berria): odol edo ezkontza bidezko ahaide zuzen edo albokoek, hirugarren

gradura bitarte, hori barne, subjektu pasiboarekin bizi badira.

b) Beste alde batetik, litekeena da aldaketarako obrak egitea eraikineko elementu komunetan, alegia, hiri finkaren eta bide publikoaren artean beharrezkoa den pasabidetarako erabiltzen direnetan, bai eta zentzumenezko komunikaziorako oztopoak gainditzeko edo haien segurtasuna hobetzeko balio duten dispositibo elektronikoak jartzeko beharrezkoak diren obrak ere. Halakoetan, etxebizitzaren jabea den subjektu pasiboak ez ezik, etxebizitza zein eraikinetan dagoen, eraikin horretako jabekideak diren subjektu pasiboek ere aplikatzen ahalko dute kenkaria.

Konturako dirusarreretan eta atxikipenetan ere berrikuntzak daude. Alde batetik, lan-etekinen gaineko atxikipenen taula berri bat diseinatu da; bestetik, berrikuntza garrantzitsu bat sartu da: zenbatespen objektiboaren araubidean zehazten diren enpresa jardueren etekinen gainean 100eko 1eko atxikipena ezarri da.

Garrantzizko aldaketak egin dira zazpigarren xedapen iragankorrean, hau da, 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako elementuen ondoriozko ondare gehikuntzak arautzen dituen horretan. Jakina da ondare gehikuntza horiek koefiziente murriztaileak aplikatzeko eskubidea dakartela berekin. Hauek dira aldaketa nagusiak:

1. Bereizi egin behar da ondarean 2006ko abenduaren 31 baino lehen gehitu den zatia (esan nahi baita eskuraketa egunetik 2006ko abenduaren 31ra bitarte, biak barne, igarotako egunen kopuruaren arabera ondarean izan den gehikuntza zatia), elementua subjektu pasiboaren ondarean egon den egun guztien kopuruarekin alderatuta. Hortaz, proportzio bat kalkulatu behar da, 2006ko abenduaren 31ren aurretik eta ondotik izan diren egunen arabera.

2. Ondarean 2006ko abenduaren 31ren aurretik izaten den gehikuntzari soilik aplikatuko zaizkio koefiziente murriztaileak.

2. artikulua Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen bi agindu zuzentzen ditu.

a) Lehenik, 100eko 70etik 60ra jaitsiko da PFEZeko zerga-oinarrian Ondarearen gaineko Zergako kuota osoaren muga, kontuan hartu beharrezkoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoarekin batera. Nabarmendu behar da ezen, muga hori jaisteaz gainera, kalkulua egiteko modua ere aldatu dela, izan ere testu berriaren arabera PFEZeko kuota osoa guztira hartuko da kontuan. Bestalde, 100eko 60ko muga

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarri osoaren gainean konputatuko da. Beste aldaketa nabarmen baten ondorioz, azken zerga horretako zerga-oinarrian ez da kontuan hartuko aurrezkiari dagokion zerga-oinarriko zati berezia, ondare gehikuntza eta murrizketen ondoriozkoa, eskualdatze egunaren aurretik gutxienez ere urtebete lehenago eskuratutako ondare elementuen saldo positiboari dagokiona. Zerga-oinarriko aurrezkiaren zati bereziari dagokion kuota ere ez da kontuan hartuko PFEZeko kuota osoan.

b) Bigarrenik, kuotako kenkariei buruzko artikulua aldatzen du. Sozietateen gaineko Zergan ondare sozietateen araubide berezia desagertzearen ondorioz, eta, hortaz, 95. artikulua (horretara bidaltzen du Ondarearen gaineko Zergako 33.1.b) artikulua honen oraingo arauak, horiek Zerga honetako kuotako kenkaria aplikatzeko aukeratik kanpo uzteko), beharrezkoa da Ondarearen gaineko Zergako artikulua honetara ekartzea ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzeko lana egiten ez duten sozietateen ezaugarri zehatz eta berariazkoak (ezaugarri horiek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 95. artikuluan ageri ziren), hau da, horien akzio eta partaidetzek Ondarearen gaineko Zergako kuotan kenkaria izateko eskubidea baldin badute.

3. artikulua Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu aldatzen ditu.

Aukera ematen da merkataritzako funts finantzarioa deitzen denaren kengarritasunerako, entitate ez-egoiliarren baloreak eskuratzen direnean. Gure inguruko araubide fiskaletan hartua zegoen neurri bat da hori.

Entitate lotuen arteko eragiketak baloratzeko arauetan berrikuntza garrantzitsuak daude. Hauek dira aldaketa nagusiak:

a) Orokorrean ezarri da pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak merkatuan duten balio normalaren arabera hartuko direla. Ez du axolarik tributazio gutxiago izateak edo hori geroratzeak. Merkatuko prezioen arabera balorazioa eginen da beti.

b) Subjektu pasiboak nahitaezkoa izanen du balorazioa merkatuko prezio normalaren arabera egitea. Orain arte tributuen arloko administrazioak soilik egin zezakeen. Balorazio horrek ezin dio subjektu pasiboari arazo handirik sortu, zeren eta kontabilitateko araudiak eragiketa horiek hala baloratzera behartzen baitu. Azken batean, berdindu egin dira kontabilitateko balorazioa eta balorazio fiskala. Arau fiskalen eta kontabilitatekoen arteko koordinazioa da, hain zuzen ere, pertsona edo

entitate lotuen arteko eragiketen araubidea berri-tzearen lehen helburua. Bigarren helburua, berriz, transferentzia prezioen arloko Nafarroako araudia Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolaku-ndearen (ELGA) ildoetara egokitzea da eta, horietara bezala, transferentzia prezioen Foro Europarrak Europar Batasunaren esparruan ezarritako irizpideei.

c) Argi ageri da arauan aldebiko egokitzapena egin behar dela, ezarri baita administrazioa lotuta geratuko dela subjektu pasibo batengan egiaztatutako balioa dela eta, gainerako pertsona lotuekin zerikusia izanik, eta balorazio administratiboak ez duela zehaztuko Sozietateen gaineko Zergaren bidezko tributazioa, ez eta, hala denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bidezkoa edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren bidezkoa ere, errenta pertsona edo entitate multzo baten eragiketarik egiazki ateratzen dena baino handiagoa bada.

d) Aldatu egin da pertsona edo entitate lotuen kontzeptua. Orain entitateak hitza aipatzen da (sozietateak hitza baino zabalagoa) eta horretan hirugarren gradura bitarteko alboko ahaideak sartzen dira. Entitateen egitatezko administratzaileak ere aipatzen dira, eta horiekin batera zuzenbidezko administratzaileak.

e) Subjektu pasiboak zerga administrazioaren eskura jarri behar du arauetan ezartzen den dokumentazioa, aditzera emanaz horixe dela merkatuko prezioen arabera balorazioa egiteko subjektu pasiboak oinarri izan duen dokumentazioa.

f) Modu desberdinean arautzen dira entitate lotuen arteko eragiketetan merkatuko balioa zehazteko metodoak. Hala, hiru metodo nagusi ezarri dira, berdintasuneko baldintzetan: prezio libre konparagarria, kostu gehitua eta birsalmentako prezioa.

ELGAko eta Europar Batasuneko herrialde gehienek eta gure inguru hurbileko zerga sistemen bideari jarraituz, karga tasa nominalak beharantz aldatu dira. Hauek dira berrikuntzak:

a) 2007ko urtarrilaren 1ean hasten diren zergaldietan, karga-tasa orokorra 100eko 35etik 100eko 32,5era jaitsiko da. Gainera, hamalagarren xedapen gehigarri berria sartu da, eta horretan ageri da karga-tasa hori 100eko 30eko izan dela 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietarako.

b) Enpresa txikiarentzako karga-tasa 100eko 32,5etik 100eko 28ra murriztu da. Enpresa txikien esparrua zabaldu egin da, aurreko zergaldian izandako negozio zifraren zenbateko garbiak jar-

tzen duen muga 6 milioi eurotik 9 milioira igo delako.

c) Aurreko zergaldian izandako negozio zifraren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo txikiagoa izan bada, zerga tasa 100eko 25ekoa izanen da.

d) Babes fiskala duten kooperatibek eta lan sozietateek 100eko 18ko zerga izanen dute, 100eko 20koa izan beharrean.

Zerga murrizketa honek, gure inguruko zerga sistemen funtsezko joerekin bat, gure enpresen lehiakortasuna mantendu eta bultzatzeko aukera eman du, eta nazioarteko esparruan txertatzen lagunduko. Gainera, kostu fiskala gutxitzean, handitu egingen da kapital teknikoan eta giza kapitalean egiten den inbertsioa. Horrek enpresa jarduera eta enplegu eskaera handituko ditu, ekonomia hazten lagunduko eta, beraz, zerga bilketarentzat ere onuragarria izanen da.

Bestalde, berrikuntzak arreta berezia jartzen du enpresa txiki eta ertainean, jarduera ekonomikoaren elementu dinamizatzailea den aldetik, karga tasak txikiagoak baitira eta horien murrizketa azkarrago gertatu baita, urte bakar batean hain zuzen ere.

Aldaketa garrantzitsuak sartu dira etxebizitzaren errentamenduan aritzen diren entitateen araubide berezian, araubide horri beste bultzada bat emateko eta alokairuan jartzen diren etxebizitzaren kopurua nabarmen handitzen laguntzeko.

Hala, araubidearen aplikazio esparruari dagokionez, kendu egin da objektuaren eskusibotasuna eta, horren ordez, entitatearen jarduera nagusia etxebizitzaren errentamendua izateko betebeharra jarri da, nahiz eta zuhertasun zenbait ezarri den etxebizitzaren errentamendurako den azaleraren eta kontabilitate balioaren inguruan. Kendu egin dira etxebizitzaren antzinasunaren baldintzak, garrantzizkoena alokairuan etxebizitza gehiago jartzea baita, etxeek zenbat urte dituzten alde batera utzita. Etxebizitzaren gehieneko azalera dagokionez, azalera erabilgarria hartzen da kontuan, azalera eraikia hartu beharrean, baina aipatu den gehienekoa 120 metro koadrotan dago betiere. Entitate horiek kontsolidazio fiskaleko araubidea aplikatzen ahaliko dute. Horrela, inbertsiorako zerga-pizgarriak aprobetxatzen ditu talde fiskalak, bestela neurri handi batean galduko lirakeenak, araubide horri lotutako entitateek oso kuota likido txikia izanen baitute.

Kontseiluaren otsailaren 17ko 2005/19/EE Zuzentarauak aldatu egin ditu uztailearen 23ko 90/434/EEE Zuzentarauaren zenbait alderdi.

Horren ondorioz, aldaketak egin dira baloreen zati-tze eta truke kontzeptuetan:

1. Zatiketa partzalean eskatzen da bai entitate zatitu eskualdatzaileak bere titulartasunpean dituen elementuak bai entitate hartzaileari eskualdatzen zaizkionak jardueraren adar bat edo batzuk izan daitezela.

2. Zatiketa finantzarioan, hau da, entitate batek ondare sozialaren zati bat bereizten duen horretan, beste entitate batzuen kapitaleko partaidetza gehiengodunez eratuan, eskatzen da entitate zati-tuak bere ondarean mantentzea, gutxienez, beste entitate baten edo batzuen edo jarduera adar baten kapitaleko antzeko partaidetzak.

3. Baloreen trukean, neutraltasun fiskaleko araubidea eramaten da akzio pakete gehigarriak baloreen trukearen bidez eskuratzeko eragiketeta-ra, entitate hartzaileak entitate bateko boto eskubide gehienak badituenean jada.

Hamabigarren xedapen gehigarri bat erantsi da, esportazio jarduerengatikoen kenkari portzentajea pixkanaka murrizteari buruz (Zergari buruzko Foru Legearen 67. artikuluan ezarritako kenkaria). Europar Batzordeak, 2006ko martxoaren 22ko C (2006) 444 azkena Erabakian, uste izan du ezen Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 67. artikulua, "esportazio jarduerengatikoen kenkaria" izenpekoa, laguntza estatala dela, Europako Elkartearen Tratatuaren 87. artikulua 1. idatz-zatiaren zentzuan, eta laguntza hori ez dela bateragarria Europar Batasuneko merkatuarekin, eragina izan baitezake estatu kideen lehiakortasunean eta trukeetan. Horrenbestez, Europar Batzordeak Erabaki horren 66. lerrokan xedatu du pixkanaka ken dadila Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 67. artikulua kuota osoari buruz ezarria duen kenkaria, eta hala egin dadila 2011ko urtarrilaren 1ean bukatuko den epean, kenkari tasa 100eko 20 murriztuz urtean, 2007ko ekitaldian hasi eta 2011ko ekitaldian bukatuz. Zehazki, kenkariaren zenbatekoa 100eko 25etik 100eko 12ra pasatuko da 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera (murrizketa horren barnean dago Espainia Europar Batasunean sartu ondoren portzentajeak izan zuen 100eko 10eko igoera kentzea), 100eko 12tik 100eko 9ra 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 9tik 100eko 6ra 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 6tik 100eko 3ra 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta kenkaria erabat kenduko da 2011ko urtarrilaren 1etik hasita.

Azkenik, bi xedapen iragankor erantsi dira, hogeita seigarrena eta hogeita zazpigarrena, ondare sozietateak desagertzearen ondorioak

arautzeko. Neutraltasun arrazoiengatik kendu da araubide hori, eta desagertu egin da balore-zorroa kudeatzen duten eta ondasunak eduki besterik egiten ez dituzten entitateen tratamendu berezia.

Foru lege proiektuaren 4. artikulua aldatu egin du, 2007ko urtarrilaren 1etik aurreko zergapeko egitateentzat, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako xedapenen Testu Bategina, eta horren funtsezko helburua da testu bateginaren edukia lege erreserbaren printzipioari hobeki egokitzea, testu horretan zerbait arloren erregulazioa sartuz, zeren eta, orain Zergaren Erregelamenduan bilduta dauden arren, foru legearen mailako arau batean egon behar baitute, aipatu printzipioari jarraikiz.

Errentamendu kontratuen nahitaezko luzapena "kostubidezko ondare eskualdaketen" kontzeptupeko kasu gisa sartu da, eta aldatu egin da, osatuz, salerosketak ebazteko baldintza esplizituen erregulazioa.

Berariaz adierazten da, argigarri izan dadin, BEZeko salbuespenari uko eginez gero, eragiketa aipatu den Zergari lotuta egonen dela eta, hala denean, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko kargari.

Kontzesioaren pareko kontratu administratiboetan onuraduna izanen da subjektu pasiboa.

23 bis artikulua erantsi da, notario agirietako zerga kuotaren atalean barnean oraindik, lege mailako arau baten barnean egon daitezkeen Erregelamenduko 61. artikuluan aurreikusitako kasuak: akzioen jaulkitze primaren kargurako kapital gehitzea dokumentatzen duten eskriturak, sozietatearen helburua aldatu delako sozietate aldaketa dokumentatzen dutenak, sozietateen luzapenekoak, kapitala ondasunak edo eskubideak bazkideei itzuli gabe murriztearen eskriturak, eta akzioen ordezkari modua dokumentatzen duten eskriturak, tituluetatik kontuko idatzoharretara pasatuz edo alderantziz.

35.I.B).10 artikulua aldaketa (baloreen eskualdaketa salbuespena) ez da egiten lege erreserbako printzipioaren eraginpekoak izan arren Erregelamenduko parte diren gaiak testu bateginean sartu behar diren ondorioz, baizik eta hartan ageri den erreferentzia eguneratu behar diren ondorioz; erreferentzia Baloreen Merkatuari buruzko Legearen 108. artikuluari buruzkoa izanen da, eta horrek, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera testu berria izanen duela (Iruzur Fiskalari Aurre Egiteko Neurrien Legean bilduta), salbuespen hura jaso ondoren zehatz arautzen ditu honi buruzko salbuespenak, berekin baitakarte balore

eskualdaketa batzuek kostubidezko ondare esku-aldaketen bidezko zerga ordaintzea.

5. artikulua Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren agindu batzuk aldatzen ditu.

Lehenbizi, 20.4 artikulua aldatzen da. Berrikuntza hirugarren lerrokan dator, izan ere, garbi utzi nahi da erantzuleak jartzen dituen errekursoek ezin dutela ondorioz izan beste zergapeko batzuentzat indarra duten likidazioetan, eta, zehazki, zordun nagusiaren likidazioetan.

Bigarrenik, 30. artikuluari beste idatz-zati bat erantsi zaio, erantzukizun solidarioa sortzen duten kasu gehiago sartzeko. Iruzur fiskalaren kontrako etengabe borrokatzeko bidean, beharrezkoa da zorraren diru-bilketa fasean zenbait neurri hartzea. Hona hemen erantzukizuna dakarten kasu berriak:

- Zerga ordaindu behar duenaren ondasunen edo eskubideen eskualdaketa edo horren ezkutaketaren eragileak eta horien laguntzaileak.

- Beren erruz edo alferkeriaz bahitzeko aginduak betetzen ez dituztenak.

- Bahituraren edo kautelazko beste neurri baten jakitun izan arren, bahitutako edo kautelazko neurrien pean jarritako ondasun edo eskubideak ostentzea onartzen dutenak edo horretan laguntzen dutenak.

- Zordunaren ondasunen gordailuzainak, bahitutako ondasunen ostentzea onartzen badute edo horretan laguntzen badute.

Kasu horiek legean jasotzearekin batera, Tributuari buruzko Foru Lege Orokorreko 121.5 artikulua indarrak gabe utziko da, antzeko egoerak arautzen baitzuten.

Hirugarrenik, erantzukizun subsidiarioa deklaratzeko kasu berri batzuk ezartzen dira. Erantzukizun hori zehapenen arloa ere hedatuko da. Kasu berri horiek errezelaren altxaketaren jurisprudentziako doktrinan oinarritzen dira. Horren ondorioz, zerga administrazioak berak zerga iruzurrean parte hartzen duten pertsona edo entitate guztiak erantzule subsidiario deklaratu ditzake, epaitegiek deklaratu aurretik ere, hots, bai “taldea” kontrolatzen duten pertsona edo entitateak, bai ustez kontrolatuak daudenak. Hau da, iruzurraren inguruan jarduten duen “sare” guztia.

Dena dela, erantzukizuna deklaratzeko honako hauek frogatu beharko dira:

a) Pertsona edo entitate “kontrolatzaile” edo “kontrolatuek” batera aritzeko gogoia izan dutela.

b) Pertsona edo entitateak gehiegikeriaz edo iruzurrez sortu edo erabili direla, Ogasun Publikoaren aurreko ondare-erantzukizun unibertsala saihesteko.

c) Pertsonen edo esfera ekonomikoen bakartasuna dagoela edo ondare nahasketa edo desbiderapena gertatu dela.

Laugarrenik, 44.1 artikulua idatzeta aldatu da, zerga administrazioari egiaztapenak egiteko bide gehiago eskaintzearen.

Azkenik, 117. artikulua, ordainarazpen aldiko errekarquak arautzen dituenak, bestela erredaktatu da. Ordainarazpen aldiko errekarqu berriak hiru motakoak dira: ordainarazpen aldiko errekarqua, premiamendu errekarqu murriztua eta premiamendu errekarqu arrunta. Errekarqu horiek bateraezina dira eta borondatezko epean sartu ez den zorrean oinarrituz kalkulatu dira.

Ordainarazpen aldiko errekarqua 100eko 5ekoa izanen da eta ordainarazpen aldia hasi ondoren baina premiamendu probidentziaren jakinarazpena jaso baino lehen ordaintzen den zorrari aplikatuko zaio.

Premiamendu errekarqu murriztua 100eko 10ekoa izanen da eta premiamendu prozedura hasi ondoren ordaintzen den zorraren zatia aplikatuko zaio, hau da, premiamendu probidentzia jakinarazten denetik zordunari zorra ordaintzeko ematen zaion epea bukatu bitarte ordaintzen denari.

Premiamendu errekarqu arrunta 100eko 20koa izanen da eta ordainarazpen aldiko errekarqua edo premiamendu errekarqu murriztua aplikatzerik ez dagoenean aplikatuko da bakarrik.

Errekarqu hauen eta ordainarazpen aldia hasien denetik sortzen diren berandutza korrituen arteko bateragarritasunari dagokionez, zera ezarri da: Premiamendu errekarqu arrunta da berandutza korritu horiekin bateragarria den bakarra. “Contrario sensu”, ordainarazpen aldiko errekarquei eta premiamendu errekarqu murriztuei ez zaie ordainarazpen aldiko berandutza korriturik erantsiko.

6. artikulua bidez, zenbait aldaketa egiten zaizkio Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoari buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeari. Zehazki, foru lege horren 11. artikulua aldatu da, onura fiskalei dagokiena, izan ere, aldaketarekin batera, salbuetsita dauden entitateak lurraldeko entitate publikoen menpeko erakunde autonomoak izanen dira eta ez erakundeetako entitate publikoak, lehen bezala.

Aseguruetak bitartekoen eta berraseguruetak artekarien Erregistroan inskribatu eta ziurtagiriak egiteko tasa berriak sartu dira, aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekoei buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legean tasa hori ezarri baita. Horiez gain, Nafarroako Gobernuaren jabetzako abelbideak aldi baterako okupatzeko tasa eta ingurumen arloko informazio materiala emateko tasa ere sartu dira. Azken horren tarifak ezberdinak dira dokumentazioa paperean, mapetan edo CD-ROMeko grabazioetan ematen den.

Hezkuntza Departamentuko tituluak emateko tasak garestitu dira eta hiltegiak lanetako tasak egokitu, apirilaren 29ko 882/2004 Erregelamenduren bidez Europar Erkidego osorako ezarritako derrigorrezko tasen arabera izan daitezten. Garraio arloko administrazio zerbitzuak egiteko tasen tarifak eguneratu dira, hala nola errepideen defentsaren arloko baimenak behar dituzten jarduerak egitekoak.

Erregaiaren prezioak izan duen igoera azeleratuaren ondorioz, garraio sektorean sortutako egoera arintzeko asmoz, 7. artikuluan adierazten da 2006. urtean eta 2007. urtean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuotetan 100eko 50eko hoberia eginen zaiela zergak Tarifen lehenengo ataleko 721 eta 722 multzoetan agertzen diren jarduera sailkatuengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboek, alegia: bidaiari garraioa (hiri garraio kolektiboa, autotaxiarena eta errepideko bidaiari garraioa) eta errepideko salgaien garraioa.

8. artikuluan bidez Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen 10/1996 Foru Legea aldatzen da. Foru lege horren 33. artikuluan ezartzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek eskubidea dutela 10/1996 Foru Lege hartan araututako tributu araubidea duten fundazioei egiten dizkieten dohaintzen ehuneko jakin bat kentzeko zerga kuotatik. Oraingo aldatetaren ondorioz, 2007ko urtarriaren 1etik aurrera kenkari horren ehunekoak handituko da 100eko 20tik 100eko 25era.

9. artikuluan bidez kooperatiben araubide fiskala arautzen duen 9/1994 Foru Legearen zenbait atal aldatzen dira:

– Nekazaritza kooperatibetako bazkide izateko baldintzak nabarmen malguagoak dira. Ondorioz, bereziki babestuak dauden nekazaritza kooperatibetako bazkide izateko aukera ondoko hauei ere zabalduko zaie:

a) Kooperatiban mugagabeko lan kontratatu gisa aritzen diren pertsona fisikoak.

b) Sozietate zibilak, eraldakuntzarako nekazaritza sozietatez gainera (horiek ere sozietate zibilak baitira), betiere kide guztiak pertsona fisikoak badira.

c) Nekazaritza edo abeltzaintza aritzen diren sozietateak eta nekazaritza edo abeltzaintzako produktuak merkaturatu edo sustatzeko sozietateak, betiere sozietate horien kopurua ekitaldi ekonomiko bakoitzean ez bada kooperatibako bazkide guztien 100eko 20 baino handiagoa.

– Nekazaritza kooperatibek landu, ekoitzi edo fabrikatzen dituzten gai, produktu edo zerbitzuetatik bazkide ez diren hirugarrenei lagatzen ahal zaien kopurua 100eko 50eraino handitzen da. Bestalde, bazkide ez diren hirugarrenei petrolio gaiak txikizka banatzeko aukera ere onartzen zaie kooperatibei.

– Kooperatibaren antzeko beste ustategietatik edo bazkideengandik etorrira, kooperatibak eskuzkatu, eraldatu edo merkaturatzen ahal dituen produktuen zenbatekoa 100eko 50eraino handitu da.

– Bazkide bakoitzaren landalurreko ondasunen gaineko Kontribuzioaren katastro balioak nabarmen igo dira, 500.000 euroraino eta 1.000.000 euroraino, jabetza araubidean gainera.

– Lurra elkarlanean ustiatzeko kooperatiba bereziki babestu beharrekoei dagokienez, zera ezarri da: lurra erabili eta aprobetxatzeko eskubideak lagatzen ahalko dituzte, orobat, lurra elkarlanean ustiatzeko beste kooperatiba batzuek, beste nekazaritza kooperatiba babestu batzuek, eraldakuntzarako beste nekazaritza sozietate batzuek eta pertsona fisikoekin osatutako sozietate zibilek.

– 20. artikulua bestela erredaktatu da, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, kooperatiben emaitzei dagokien zerga-oinarriari aplikatu beharreko karga tasa 100eko 20tik 100eko 18ra jaisteko.

– 30. artikuluar d) letra erantsi zaio, kooperatibako bazkideen ustategiei buruz Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroan dagoen dokumentazioa emateko tasa kentzeko, betiere dokumentazioa euskarri informatikoan ematen bada edo Internetetik jasotzen bada.

– Zortzigarren xedapen gehigarria erantsi da. Horren bidez, Nafarroako Kooperatibei buruzko Foru Legean araututako gizarte ekimeneko kooperatibei gainerako kooperatibei aplikatzen zaien tributu araubide berbera aplikatuko zaiela ezartzen da, betebeharrak eta baldintza berberak betetzen badituzte.

Lehenengo xedapen gehigarriaren bidez beranduntza korrituaren tasa aldatzen da. Horren ondorioz, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera 100eko 6,25ekoa izanen da.

Bigarren xedapen gehigarriaren bidez Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 27. artikuluan aipatzen diren monetaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak gaurkotzen dira.

Hirugarren xedapen gehigarriaren bidez, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren testu bategina egiteko.

Xedapen indargabetzailearen bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen eta Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren zenbait agindu kentzen dira.

Azken xedapenetan lehenaren bidez 1988ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legeari bi aldaketa egiten zaizkio:

Lehenbizi, VI. tituluko VI. kapituluko 2. atalaren errubrika aldatzen da, eta bigarrenik, 77.1 artikulua, kasu bietan pentsio planei eta funtsei buruzko araubide berriari egokitzeko.

Azken xedapenetan bigarrenaren bidez zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 19/2004 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria zuzentzen da. Laugarren xedapen gehigarriari beste idatz-zati bat erantsi zaio, 2. zenbakiduna, eta horrenbestez, gaur egun duen testua xedapen horren 1. idatz-zatia izanen da. Horrekin garbi utzi nahi da OAEAP-Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa ez dela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 67 bis artikuluan aplikatuko, hots, alargun pentsioen kenkarien ondorioetarako, izan ere, helburua pentsio horiek lanbidearteko gutxieneko soldatarekin parekatzea da.

Azken xedapenetan hirugarrenaren bidez zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen agindu bat aldatzen da, zehazki, lehenengo xedapen gehigarriaren 1.b) idatz-zatia. Lau seme-alaba edo gehiago izanik, erregelamenduz ezartzen diren mugetatik beherako errentak dituzten familiei eman beharreko laguntzak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak ezarriko ditu, urteko deialdian.

Azken xedapenetan laugarrenean, foru legea aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak

emateko Nafarroako Gobernuari egiten zaion ohiko gaikuntza jasotzen da.

Azken xedapenetan bosgarrenean foru legearen indarra hartzea finkatzen da. Agindu orokorrek batera (foru legeak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, behar diren ondorioak izateko), indarra hartzeko hiru kasu berezi zehazten dira, Zergari buruzko Foru Lege Orokorren zenbait artikuluri dagokienez: 32. artikuluko 3. idatz-zatian errezelaren altxaketari buruz ezarritako zerga arloko erantzukizuna, balioa kalkulatzeko bide berriak eta ordainarazpen aldiko errekaratu berriak.

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testua izanen dute:

Bat. 7. c) artikulua, hirugarren lerrokada.

“Letra honetan aipatutako kalte-ordain salbuesia 180.000 eurokoa izanen da gehienez ere.”

Bi. 7.e) artikulua.

“e) Pertsonei eginiko kalteen ondoriozko erantzukizun zibilaren kalte-ordainak, legalki edo juridikoki onesten den zenbatekoan.

Halaber, salbuetsirik egonen dira mota horretako kalteetarako istripu aseguruaren kontratuetatik heldu diren kalte-ordainak, salbu eta kontratu horien primek zerga-oinarria murriztu badezakete edo gastu kengarritzat har badaitezke foru lege honetako 35. artikuluko 1. araua aplikatzearen ondorioz. Salbuespenaren muga izanen da zirkulazioko istripuetan pertsonei eragindako kalteak baloratzeko sistema jasandako kalteari aplikatuzetik ateratzen den kopurua; sistema hori Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilaria eta Aseguruari buruzko Legearen testu bategineko eranskinen ageri da. Testu bategin hori urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.”

Hiru. 7.f) artikulua.

“f) Estatuko Loteria eta Apustuatarako entitate publiko enpresarialak, Nafarroako Foru Komunitateak edo autonomia erkidegoek antolatutako loteria, joko eta apustuatarako sariak, hala nola Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetakoak eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak baimendutako jokoetakoak.”

Lau. 7.j) artikulua.

“j) Familia harrera bat egiteko edo hirurogeita bost urteko edo hortik gorako pertsonak edo minusbaliatuek egoitzetan edo eguneko zentroetan egiten dituzten egonaldiak finantzatzeko, erakunde publikoetatik jasotzen diren diru-kopuruak eta, orobat, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, adingabea pertsona edo familia batekin bizitzea agintzen duen epaileen neurria betearazteko erabakitzen den familia harreraren ondoriozko diru-kopuruak.”

Bost. 7.k) artikulua.

“k) Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategineko II. tituluko IX. kapituluan araututa dauden familia prestazioak, bai eta Administrazio Publikoetako langileentzat, hala jardunekoentzat nola pasiboentzat, seme edo alaba minusbaliatu bakoitzarengatik ezarritako familia laguntza.”

Era berean, umezurtzei dagozkien pentsio eta sarrera pasiboak eta hogeita bi urtetik beherakoak diren edo lan guztietarako ezinduak dauden biloben edo anai-arreben aldekoak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboan araubide publikoetatik jasoak eta, halaber, zurtasunarengatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Salbuetsita daude, halaber, beren konturako langileen Gizarte Segurantzaren araubide berezian sarturik ez dauden profesionalen aitorturiko prestazioak, eta Gizarte Segurantzaren araubide berezi horren alternatiba gisa jarduten duten aurreikuspen sozialeko mutualitateetako autonomiei aitorturikoak, betiere prestazioak Gizarte Segurantzaren araubide berezi hartan sarturiko profesionalentzat aurreko bi lerrokatetan aipatutako egoera berberetarako badira. Salbuetsiko den gehieneko diru-kopurua Gizarte Segurantzak kasuan kusuko egoerarako aitortzen duen prestaziorik handiena adinakoa izanen da. Soberakina lan etekintzat hartuko da, hala Gizarte Segurantzaren nola aipatutako mutualitateen prestazioak edukiz gero, azken horren prestazioetan gertatu dela hartuko da.

Salbuetsirik egonen dira, halaber, ekainaren 28ko 168/1990, ekainaren 27ko 241/2000 eta ekainaren 27ko 242/2000 foru dekretuek arautzen dituzten prestazio ekonomikoak, hala nola jaiotzagatik, adopzioagatik, amatasunagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik eta zurtasunagatik onartuak diren gainerako prestazio publikoak, baita erditze eta adopzio multiplea dagoenean jasotzen direnak ere.

Sei. 7.n) artikulua.

“n) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lanaren etekinak, ondoko baldintza hauek betetzen baldin badira:

1.a. Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batendako edo atzerrian kokatutako finkagune iraunkor batendako egitea, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan. Lanaren xedeko entitatea langilea kontratatu duen entitatearekin edo langilearen zerbitzuak jasotzen dituen entitatearekin lotuta badago, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 29. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2.a. Lanak egiten direneko lurraldean zerga hau bezalako edo antzeko beste zerga bat aplikatzea eta zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo eskualde bat ez izatea.

Salbuespena atzerrian egon bitartean sortutako ordainsariei aplikatuko zaie, urtero 61.000 eurori gehienez. Erregelamenduz, egun bati dagokion diru-zenbateko salbuetsia kalkulatzeko prozedura ezartzen ahalko da.

Destinoa atzerrian duten subjektu pasiboan kasuan, salbuespen hau bateraezina da, Zerga honen Erregelamenduko 8.A)3.b) artikuluaen arabera, zergapetzetik kanpo dauden soberakinen araubidearekin, edozein dela ere haien zenbatekoa. Subjektu pasiboak zilegi izanen du salbuespen honen ordezkian soberakinen araubidea aukeratzea.”

Zazpi. 7. artikuluarik t) letra gehitzea.

“t) Espetxeetan askatasuna kentzea konpentsatzeko, estatuko eta autonomia erkidegoetako legedietan ezarritako dauden kalte-ordainak, Amnistiarik buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legean aurreikusitako kasuetan.”

Zortzi. 7. artikuluarik u) letra gehitzea.

“u) Foru lege honen hogeita bigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren aurrezki sistematikorako banakako planen ondorio diren biziarteko errenta aseguruak eratzen direnean aditzera ematen diren errentak.”

Bederatzi. 7. artikuluarik v) letra gehitzea.

“Foru lege honen 28. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren mozkinetako partaidetza eta dibidenduak, urtero 1.500 euroko muga gainditu gabe.

Salbuespen hau ez da inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako mozkin eta dibidenduetan aplikatuko, ez eta mozkinak ordaindu baino bi hila-

bete lehenago erositako balore edo partaidetzetik datozenei ere, gero, epe horretan berean, balore homogeneoen eskualdaketa egiten bada. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak finantza tresnen merkatuei buruz 2004ko apirilaren 21ean emandako 2004/39/EK Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialen batean negoziatu ezin diren balore edo partaidetzak direnean, urte bateko epea egonen da.”

Hamar. 10. artikulua.

“10. artikulua. Subjektu pasiboak

4. artikuluan ezarritakoaren arabera, zergak Nafarroako Foru Komunitatean ordaindu behar dituztenak dira zerga honen subjektu pasibo.

Subjektu pasibotzat joko dira, orobat, nazionalitate espainiarra izanik eta garai batean Nafarroako foru arauen menpe egonik, helbide fiskala paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo eskualde batera eraman dutela frogatzen duten pertsona fisikoak. Lerrokada honetako agindua helbide aldaketa egiten den zergaldian eta hurrengo lauetan aplikatuko da.”

Hamaika. 12.2. artikulua.

“2. Zerga-oinarria, behar baldin bada, bi zatitan bereiziko da: zati orokorra eta aurrezkiaren zati berezia, 53. eta 54. artikuluetan xedatutakoarekin bat.”

Hamabi. 14.1. artikuluko e) eta f) letren testu berria eta g) letra gehitzea.

“e) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginean adierazitako pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak eta, orobat, enpleguko pentsio funtsen jardueri eta haiek gainbegiratzeari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EK Zuzentarauan adierazitako enpresa sustatzaileek ordaindutakoak.

f) Enpresek pentsioengatik bere gain hartutako konpromisoei aurre egiteko, enpresaburuek ordaindutako ekarpen edo kontribuzioak, maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan ezarritako dagoen moduan, enpresaren aurreikuspen sozialeko planak barne direla.

g) Langabeziako prestazioak.”

Hamahiru. 14.2.a) artikulua.

“a) Ondoko prestazio hauek:

1.a. Ezgaitasunagatik, jubilariazagatik, istripuagatik, eritasunagatik, alarguntzagatik, zurztasuna-

gatik edo antzeko egoera bategatik, Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik jasotako pentsio eta sarrera pasiboak eta gainerako prestazio publikoak, deusetan galarazi gabe foru lege honen 7. artikuluan xedatutakoa.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, lanbide edo enpresa jardueretan aritzen direnek jasotzen dituzten aldi baterako ezgaitasunaren prestazioak jarduera haietako etekin gisa konputatuko dira.

2.a. Funtzionarioen nahitaezko mutualitate orokorren, umezurtzen etxeen eta antzeko erakundeen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak.

3.a. Pentsio planen onuradunek hartutako prestazioak eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio funtsen jardueri eta haiek gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan araututako pentsio planetatik hartutakoak.

4.a. Aurreikuspen sozialeko mutualitateekin kontzertatutako aseguru kontratuen onuradunek hartutako prestazioak, baldin eta egindako ekarpenak (parte bat bederen) lanbide edo enpresa jardueren etekin garbia zehazteko orduan gastu kengarrizat hartu badira edo Zergaren zerga-oinarria murrizteko erabili badira. Prestazio horiek zerga-oinarrian sartuko dira baldin eta hartutako dirukopuruak, foru lege honen 55.1 artikuluko 2. puntuko a) letzan edo seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintza subjektiboak ez betetzeagatik, zergaren zerga-oinarrian murriztu edo minoratu ezin izan diren ekarpenak gainditzen baditu.

5.a. Enpresek pentsioengatik beren gain hartutako konpromisoak biltzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan ezarritako dagoen moduan, enpresaren aurreikuspen sozialeko planak barne direla.

Foru lege honen ondorioetarako, enpresaren aurreikuspen sozialeko planak Espainiako araudiaren araututakoak izanen dira.

6.a. Aseguratutako aurreikuspen planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak.

Foru lege honen ondorioetarako, aseguratutako aurreikuspen planak Espainiako araudian araututakoak izanen dira.

7.a. Menpekotasun aseguruaren onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, estatuko araudian xedatutakoari jarraikiz.”

Hamalau. 15.1.f) artikulua.

“f) Pentsio planen sustatzaileek ordaindutako ekarpen edo kontribuzioak eta, enpresek pentsio-engatik bere gain hartutako konpromisoari aurre egiteko, enpresaburuek ordaindutako kopuruak, maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan ezarrita dagoen moduan, enpresaren aurreikuspen sozialeko planak barne direla.

Enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta horiek gainbegiratzeari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EK Zuzentarauan arauturiko enpresa sustatzaileen kontribuzioak ere sartuko dira letra honetan, bai eta enpresaburuek menpekotasun aseguruaren kontratuen ondorioz ordaintzen dituzten diru-kopuruak ere.”

Hamabost. 24. artikulua.

“24. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin osoak.

Hirilurreko edo landalurreko ondasun higiezinaren titulartasunetik edo horien gaineko eskubideetatik datozen etekin osotzat ondoko hauek hartuko dira: ondasun edo eskubide erreal horiek errentan ematearen ondorioz edo erabili edo gozatzeko ahalmen edo eskubideak eratu edo lagatzearen ondorioz etortzen direnak, zeinahi delarik etekin horien izena edo izaera.

Errentariak edo azpierrenerariak, lagapen-hartzaileak edo erosleak kontzeptu guztiengatik ordaindu beharreko kopurua hartuko da etekin osotzat, baita higiezinarekin batera erabiltzeko lagatzen diren ondasun guztiei dagokiena ere, baina Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta.”

Hamasei. 28. artikulua.

“28. artikulua. Edozein motatako entitateen funts berekietan parte hartzeagatik lortutako etekinak

Edozein entitate motatako funtsetako partaide-tzan lortutako etekin osoak honakoak izanen dira:

a) Dibidenduak, batzordeetara joateagatik primak eta edozein motatako entitateen mozkinetako partaidetzak.

b) Mota guztietako aktiboetatik heldu diren etekinak, liberatutako akzioen entrega izan ezik, Estatuetan ezarrita dagoenez edo gizarte organoen erabakiz, baldin eta ahalmena ematen badute lan pertsonalaren ordainsariaz bestelako arrazoiengatik entitate baten mozkinetan, salmentetan, eragiketetan, sarreretan edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeko.

c) Bazkide, akziodun, elkartekide edo partaide izateagatik entitate batetik heldu den aurrekoetz bestelako beste edozein erabilera.

d) Akzio edo partaidetzen jaulkitze primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak gutxitu eginen du, deuseztatu arte, ukituriko akzio edo partaidetzen erosketaren balioa, eta gera litekeen soberakina zergapean egonen da higigarrien kapitalaren etekin gisara.”

Hamazazpi. 30.1 artikulua, b) eta c) letrak.

“b) Berehalako biziarteko errenten kasuan, jaraunspen, legatu, edo antzeko titulu baten bidez “mortis causa” eskuratuak ez direnean, ondoko portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da higigarrien kapitalaren etekintzat:

– 100eko 40, hartzailea berrogei urtetik beherrakoa denean.

– 100eko 35, hartzailea berrogei eta berrogeita bederatzi urte bitartekoa denean.

– 100eko 28, hartzailea berrogeita hamar eta berrogeita hemeretzi urte bitartekoa denean.

– 100eko 24, hartzailea hirurogei eta hirurogeita bost urte bitartekoa denean.

– 100eko 20, hartzailea hirurogeita sei eta hirurogeita bederatzi urte bitartekoa denean.

– 100eko 8, hartzailea hirurogeita hamar urtekoa edo hortik gorakoa denean.

Urteko errenta jasotzen duen unean errentadunak duen adinari aplikatuko zaizkio portzentaje horiek.

c) Aldi bateko errenta berehalakoak direnean, jaraunspen, legatu edo antzeko titulu baten bidez “mortis causa” eskuratuak ez direnean, ondoko portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da higigarrien kapitalaren etekintzat:

– 100eko 12, errentaren iraupena bost urte edo txikiagoa denean.

– 100eko 16, errentaren iraupena bostetik gorakoa eta hamar urtekoa edo txikiagoa denean.

– 100eko 20, errentaren iraupena hamarretik gorakoa eta hamabost urtekoa edo txikiagoa denean.

– 100eko 25, errentaren iraupena hamabost urtetik gorakoa denean.”

Hemezortzi. 30.1 artikuluari f) letra gehitzea.

“f) Kapital prestazioak aurreikusten dituzten bizi eta baliaezintasun aseguruak aurreko d) letrako lehen lerroaldean xedatutakoaren arabera ordainduko dute zerga, kapital hori biziarteko edo aldi baterako errentak osatzera bideratzen denean, eta bihurtzeko aukera hori aseguruaren kontratuan jasotzen bada betiere. Letra honetan xedatutakoa ez da inondik inora aplikatuko kapital hori, edozein bitarteko erabiliz, subjektu pasiboaren esku jartzen denean.”

Hemeretzi. 30.2 artikulua.

“2. Kapital ezarpenen ondoriozko errentak.

Atal honetan sartzen dira kapital ezarpenen ondoriozko biziarteko errentak edo aldi baterakoak, jaraunspen, legatu edo antzeko titulu baten bidez “mortis causa” eskuratuak ez direnean. Higigarrien kapitalaren etekintzat joko da artikulua honetako aurreko idatz-zatiko b) eta c) letrak bizi asegururako kontratuen berehalako ondorio diren errentetarako, biziartekoak nahiz aldi baterakoak direnetarako, ezartzen dituzten portzentajeak urteko bakoitzari aplikatzearen emaitza.”

Hogei. 30. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea.

“3. Higigarrien kapitalaren beste etekin batzuk.

Idatz-zati honetan, besteak beste, etekin hauek sartzen dira, diruzkoak zein gauzazkoak:

a) Jabetza intelektualaren ondoriozkoak, subjektu pasiboak egilea ez denean, eta subjektu pasiboak eginiko lanbide edo enpresa jarduerarekin lotzen ez diren jabetza industrialekoak.

b) Laguntza teknikoak ematearen ondoriozkoak, non eta laguntza hori ez den lanbide edo enpresa jardueren eremuan ematen.

c) Ondasun higigarri, negozio eta errentamendutik heldu direnak, bai eta azpierreantatzaileak azpierreantamendutik jasotakoetatik heldu direnak, betiere errentamendu edo azpierreantamendu horiek lanbide edo enpresa jarduerak ez direnean.

d) Irudia ustiatzeko eskubidearen edo hura erabiltzeko baimenaren lagapenak sortutakoak, non ez den lagapen hori lanbide edo enpresa jardueraren eremuan gertatzen.

e) Higigarrien kapitalaren etekinak sorraraz ditzaketen ondasun higigarriak edo eskubideak erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmenak eratzearen edo lagatzearen ondoriozkoak, edozein dela ere horien izena edo izaera.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren erregiketarik ezkontidearen edo hirugarren gradura arteko ahai-

deen aldekoak badira, ezkontza bidezko ahaideak barne, errendimendu garbi bezala kontatuko da merkatuko balioa.”

Hogeita bat. 32.2 artikulua.

“2. Foru Lege honen 30. artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako etekin garbiak, bi urtetik gorako sortze aldia dutenak edo denboran zehar modu irregular nabarmen batez lortutakoak ehuneko 40 murriztuko dira.

Etekin horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

Hogeita bi. 33.2 artikulua.

“2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, ondasun higiezinaren errentamendua enpresa jarduera dela ulertuko da baldin eta ondorengo inguruabarrak batera gertatzen badira eta orduan bakarrik.

a) Jarduera aurrera eramateko gutxienez lokal bat izatea horretarako propio.

b) Jarduera horretan pertsona bat behintzat izatea, lan kontratupean eta lanaldi osoan.”

Hogeita hiru. 34.6 artikulua.

“6. Bi urtetik gorako sortze aldia duten jardueraren etekin garbiak eta denboran zehar modu irregular nabarmen batez lortutakotzat erregelamendu bidez jotzen direnak 100eko 40 murriztuko dira.

Etekin horiek zatika kobratzen badira, sortze aldia kalkulatzeko kontuan hartuko da zenbat urtez izan den zatikatze hori, erregelamenduak agintzen duen moduan betiere.

Murriztapen hori ez zaie aplikatuko lanbide edo enpresa jarduera batetik datozenek, nahiz eta indibidualki aurrean aipatutako baldintzak betetako denboraldi batean zehar burututako jarduketan ondoriozkoak izan, modu erregularrean edo ohikoan era horretako etekinak ateratzen badituzte.

Hogeita lau. 35.1. artikulua.

“1. Ez dira gastu kengarrizat joko sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 24.2 artikuluan aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresaburu edo profesional beraren gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, foru lege honen 55. artikulua 1. idatz-zatian ezarritakoa eragotzi gabe.

Hala ere, gastu kengarrizat joko dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin

sinatutako aseguru kontratuengatik prima edo kotizazio gisa ordaindutako kopuruak, baldin eta Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharrak betetzeko, aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotako gisa erabiltzen badira, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen egoerez arduratzea helburu duen zatian, urteko 4.500 euroko mugaz.”

Hogeitabost. 36.1.3 artikulua.

“3. Zenbatespen objektiboko araubidearen aplikazio eremua, besteak beste, jardueren eta laboreen izaeraren arabera finkatuko da edo modulu objektiboak kontuan hartuta, hala nola eragiketen bolumena, langileen kopurua, erosketen zenbatekoa, ustiatzearen azalera edo erabilitako aktibo finakoak, zergadunak egindako jarduera guztientzat erregelamendu bidez ezarritako mugekin.

Dirusarreren bolumenaren tamaina konputatzeko, kontuan hartuko dira subjektu pasiboak eginiko enpresa jardueri dagozkien eragiketak ez ezik baita ezkontideak, ondorengo ahaideek eta aurreko ahaideek egindakoei, eta orobat, aurreko horietako edozein partaide den errenta-egozpenaren araubideko entitateek egindakoei dagozkienak ere, inguruabar hauek batera gertatzen badira:

– Egindako enpresa jarduerak berdinak edo antzekoak izatea. Ondorio horietarako, berdinak edo antzekoak direla ulertuko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan talde berean sailkatutakoak.

– Jarduera horien zuzendaritza bateratua izatea, giza edo gauza baliabideak partekatuz.

Hogeitasei. 39.4. artikuluari d) letra gehitzea.

“d) Ezgaitasunak dituzten pertsonentzat eraturako ondare babestuei egindako ekarpenak direla eta.

Hogeita zazpi. 39.6 artikulua, f) eta g) letrak.

“f) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onarturiko balio edo partaidetzak eskualdatzetik eratorriak, eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo bi hilabeteetan zehar subjektu pasiboak balore homogeenok eskuratu dituzenean.

g) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartu ez diren balio edo partaidetzak eskualdatzetik eratorriak, eskualda-

keta horien aurreko edo ondorengo urtean zehar subjektu pasiboak balore homogeenok eskuratu dituzenean.

Aipatutako f) eta g) letratan ezarritako kasuetan, ondare murrizketak integratu eginen dira subjektu pasiboaren ondarean mantentzen diren baloreak eskualdatu ahala.”

Hogeita zortzi. 43.1 artikulua, a), c), h) eta k) letrak.

“a) Sozietate nahiz erakundearen funts berekietako partaidetzaren erakusgarri diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuari buruzkoan, definitutako balore-merkatu batean negoziatzeko onartutako balorena denean, gehikuntza edo murrizketa zenbatuko da erosketa-balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldearen arabera. Azken balio hori eskualdaketa burutzen den egunean merkatu horietan duten kotizazioak finkatuko du edo, kotizazioa baino handiagoa denean, hitzartutako prezioak.

Hein batean liberatutako akzioen kasuan, horien erosketa-balioa subjektu pasiboak benetan ordaindutako zenbatekoarena izanen da.

Erabat liberatutako akzioen kasuan, horien erosketa-balioa eta orobat horien sorburu direnekoena, kostu osoa zati titulu kopurua, hala zahrena nola liberatuena, eginez kalkulatu da.

c) Foru lege honen 52. artikuluan aipatzen diren inbertsio kolektiboko erakundearen kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzioen edo bestelako partaidetzaren eskualdaketa edo errenboltsorearen kasuan, gehikuntza edo murrizketa zenbatuko da erosketa-balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldearen arabera; azken hori eskualdaketa edo errenboltsoa egiten den egunean duen likidazio-balio aplikagarriak zehaztuko du edo, horrelakorik ez izatera, argitaratutako azken likidazio-balioak. Likidazio-baliorik ez izatera, zergaren sorrarazpen egunaren aurretik itxitako azken ekitaldiari dagokion balantzearen ondoriozko balio teorikoa hartuko da.

Partaidetzaren errenboltso desberdinen kasuetan, horrela kalkulatu da eskualdaketa balioa ez da ondorengo bi hauek handiena baino txikiagoa izanen:

a) Eskualdaketa benetan itundutako prezioa.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuari buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako kotizazio balioa, eta, bereziki, Baloreen Merka-

tuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean aurreikusirikoaren arabera baimendutako baloreen negoziazio sisteman antolatuetako kotizazio balioa.

Erosketa-balioa zehazteko, 1. idatz-zati honetako a) letran xedatutakoa aplikatuko da, bidezkoa denean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 49. artikuluan aipatzen diren inbertsio funts kotizatuak partaidetzen eskualdaketetan, balore burtsan egiten diren horietan, eskualdaketa balioa idatz-zati honetako a) letran aurreikusi bezala zehaztuko da.

h) Ondasunak edo eskubideak trukatzean, baloreen trukea barne, ondarearen gehikuntza edo murrizketa zehaztuko da lagatzen den ondasunaren edo eskubidearen erosketa-balioaren eta ondorengo bietako handienaren artean dagoen aldearen arabera.

a') Lagatutako ondasunen edo eskubideen merkatuko balioa.

b') Trukean jasotako ondasunen edo eskubideen merkatuko balioa.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuei buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartu ez diren balioetatik datozen suskripzio eskubideen eskualdaketari dagokionez, lortutako zenbatekoa ondare gehikuntzat hartuko da eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuei buruzkoan, definitutako balore-merkatu batean negoziatzeko onartutako balioetatik datozen suskripzio eskubideei dagokionez, horren zenbatekoak balore haien erosketa-balioa murriztuko du. Baldin eta zenbateko hori handiagoa bada aipatutako eskubideak sortzen dituzten balore horiek baino, bien arteko aldea ondare gehikuntzat hartuko da eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatuko da sozietate baten akzioen hedatze maila bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatzeko onartu aurretik areagotzeko xedearekin egiten diren kapital handitzei dagozkien suskripzio eskubideen eskualdaketetan kasuan. Onartzeko eskabidea kapital handitzea egiten denetik bi hilabeteko epean ez aurkezteak, onartzeko eskabide

hori erretiratzeak edo hasten denetik bi urte iragan aurretik negoziatuztik baztertzeak letra honen lehenbiziko lerrokadan aurreikusiriko tratamenduari aplikazioa ekarriko du."

Hogeita bederatzia. 49.1.1, a) eta b) letrak.

"1. Errentak Zerga honi buruzko arauari jarraikiz zehaztuko dira, eta 25.2, 32.2 eta 34.6 artikuluetan aurreikusitako murriztapenak ez dira aplikagarriak izanen. Hona hemen berezitasunak:

a) Sozietateen gaineko zergari buruzko araudiari jarraikiz ezarriko da Errenta egozgarria, errenta-egozpeneko araubideko entitatearen kide guztiak zerga horren subjektu pasibo badira, edo establezimendu iraunkor baten bitartez jarduten duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zergapekoak badira.

b) Finkagune iraunkorrik gabeko Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaindu behar dutenei egozten ahal zaien errenta kalkulatzeko, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Legearen Testu Bateginaren IV. kapituluan ezarritakoari jarraituko zaio."

Hogeita hamar. 49.3 artikulua.

"3. Zerga honen subjektu pasiboak diren errenta-egozpenaren araubideko entitateko kideek, aitorpenean, foru lege honen 25.2, 32.2 eta 34.6 artikuluetan ezarritako murriztapenak izaten ahalko dituzte."

Hogeita hamaika. 50.1 artikulua.

"1. Martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateginaren IV. kapituluan ezarritakoa deusetan galarazi gabe, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraikiz, atxikipenari edo konturako sarrerei lotuak egonen dira errenta-egozpeneko araubideko entitateei pagatzen zaizkien errentak, aintzat hartu gabe haietako kide guztiak edo batzuk zerga horren edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ordaintzaile diren ala ez."

Hogeita hamabi. 51.9 artikulua.

"9. Partaidetzen eskualdaketaren ondoriozko errenta, zuzeneko zein zeharkakoa, kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen Hogeita seigarren Xedapen Iragankorreko 7. idatz-zatiko a) letran bildutako arauak erabiliko dira, zerga-oinarrian egoztitako errenta positiboari dagokionez. Agindu

horrek aipatzen dituen onura sozialak egotzitako errenta positiboari dagozkionak izanen dira.

Hogeita hamahiru. 51.11 artikulua.

“11. Partaidetzako entitateak paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarra denean, zera iritziko da:

a) 1. idatz-zatiko b) letran aurreikusitako inguruabarra betetzen dela.

b) Partaidetzako entitateak eskuratutako errenta 2. idatz-zatian aipatzen den errenta iturrietatik heldu dela.

c) Partaidetzako entitateak eskuratutako errenta partaidetzaren erosketa-balioaren 100eko 15 dela.

Aurreko letretan bildutako presuntzioek kontra proba onartuko dute.

Aurreko letretan bildutako presuntzioak ez dira aplikatuko partaidetzako entitateak, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, sartu beharreko entitateetako batekin edo batzuekin bere kontuak finkatzen dituenen.”

Hogeita hamalau. 51.12 artikulua.

“12. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikagarri izanen Espainian egoitzarik ez duten entitateek Europar Batasuneko beste estaturen batean egoitza dutenean, salbu eta erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatua bada.”

Hogeita hamabost. 52.1 artikulua.

“1. Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araututako inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaide diren subjektu pasiboek, foru lege honetan xedatutakoaren arabera, ondorengo errentak azalduko dituzte:

a) Akzioen edo partaidetzen nahiz azken horien itzulketen ondoriozko ondare gehikuntzak edo murrizketak. Balore homogeenak daudenean, subjektu pasiboak eskualdatu edo itzuli dituenak lehenbizi eskuratu zituenak direla ulertuko da.

Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzioen errenboltsotik edo eskualdatzetik ateratako zenbatekoa, erregelamendu bidez ezarritako prozedurari jarraikiz, inbertsio kolektiboko erakundeetako beste akzio edo partaidetza batzuk eskuratu edo izenpetzeko erabiltzen bada, ez da bidezkoa izanen ondare gehikuntza edo urripena zenbatzea. Era berean, izenpetutako edo eskuratutako akzio edo partaidetza berriek mantenduko dute errenboltsatu edo eskualdatutako akzio edo

partaidetzen balorea eta eskuratze-data honako kasuetan:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen errenboltsotetan, baldin eta haiek inbertsio funtstzat jotzen badira.

b) Sozietate gisa eraturiko inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen eskualdaketatik, baldin eta honako bi baldintza hauek betetzen badira:

– Inbertsio kolektiboko erakundeak, zeinaren akzioak eskualdatzen baitira, 500 bazkide baino gehiago izatea.

– Eskualdaketa-egunaren aurreko hamabi hilabeteetako uneren batean subjektu pasiboak parte hartu ez izatea inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalaren 100eko 5 baino gehiagotan.

Letra honetan, a) letran, alegia, bigarren lerrokadan ezarritako gerorapen araubidea ez da aplikatuko baldin eta, edozein bitarteko erabiliz, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen errenboltsu edo eskualdaketa onoriozko zenbatekoa subjektu pasiboaren eskueran ipintzen bada.

Aipatu gerorapen araubidea ez da aplikagarria izanen baldin eta eskualdaketa onoriozko zenbatekoaren xedea inbertsio kolektiboko erakundeen ondarea ordezkatzeko duten partaidetak, hain zuzen ere artikulu honetan aipatzen direnak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 49. artikuluan aipatzen diren inbertsio funts kotizatutzat hartzen direnean.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako emaitzak.”

Hogeita hamasei. 52.4 artikulua.

“4. Zerga-paradisu gisa sailkaturiko herrialde edo lurraldeetan eraturiko inbertsio kolektiboko erakundeetan parte hartzen duten subjektu pasiboek, beren partaidetza horrek zerga-aldiaren amaiera egunean duen balio likidatzailearen eta erosketa-balioaren arteko diferentzia positiboa egotziko diote zerga-oinarriaren zati orokorrari, foru lege honen 53. artikulua aurreikusitakoaren arabera.

Egotzitako kopurua erosketa-balio handiena dela iritziko da.

Inbertsio kolektiboko erakundeak banaturiko mozkinak ez dira egotziko eta gutxitu egingen dute partaidetzaren erosketa-balioa.

Idatz-zati honetako lehen lerrokadan jasotzen den diferentzia, kontrako frogarik ez den bitartean,

akzioaren edo partaidetzaren erosketa-balioaren 100eko 15 dela iritziko da.

Akzioak nahiz partaidetzak eskualdatzearen edo errenboltoaren ondoriozko errenta foru lege honen 43. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da, eta horretarako aurreko idatz-zatietan aurreikusitakoa aplikatuz ateratzen dena erosketa-balioztat hartuko da.”

Hogeita hamazazpi. 53 artikulua.

“53. artikulua. Zati orokorra

Zerga-oinarriaren zati orokorra aurrezkiaren parte berezian sartzen ez diren etekinek eta ondare gehikuntzek eta murrizketek osatuko dute, hauek hain zuzen:

a) Errenta-egozpenak eta etekinak, zergaldi bakoitzean beraien artean eta inolako mugarik gabe, elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldoa. Etekin eta egozpen horiek ondoko arauetan aipatzen dira: foru lege honen 51. eta 52.4 artikulua eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko IV. kapitulua.

b) Zergaldi bakoitzean, ondare gehikuntzak eta murriztapenak elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa, hurrengo artikuluan aurreikusitakoak izan ezik. Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa izanen balu, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan gerta daitezkeen ondare gehikuntza horien saldo positiboarekin konpentsatu ahal izanen da.

Kompentsazioa hurrengo ekitaldietako bakoitzean egin ahal izanen den kopuru gehienekoan eginen da eta, bide batez, aurreko lerrokadan aipatzen den lau urteko epearen barnean egin beharko da, ondorengo urteetako ondare murriztapenei erantsiz.”

Hogeita hemezortzi. 54 artikulua.

“54. artikulua. Aurrezkiaren zati berezia

1. Zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia foru lege honen 28. eta 29. artikuluetan eta 30. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan aurreikusitako kapital-etekinek osatuko dute, bai eta ondare elementuen eskualdatzeetan gerta daitezkeen ondare gehikuntzek eta murrizketek ere. Hala ere, foru lege honen 29. artikuluan aurreikusitako higigarrien kapitalaren etekinen artean, subjektu pasiboarekin loturiko entitateetatik heldu direnak zerga-oinarriaren zati orokorrean sartuko dira.

Aurrezkiaren zati berezia ondoren aipatzen diren saldoak batzetik ateratzen den saldo positiboak osatuko du:

a) Zergaldi bakoitzean, aurreko lerrokadan aipatzen den higigarrien kapitalaren etekinak, aurrezkiaren zati berezian sartzen direnak, elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa izanen balu, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan gerta daitezkeen ondare gehikuntza horien saldo positiboarekin bakarrik konpentsatu ahal izanen da.

b) Zergaldi bakoitzean, idatz-zati honen lehengo lerrokadan aipatzen den ondare gehikuntzak eta murriztapenak elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa izanen balu, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan gerta daitezkeen ondare gehikuntza horien saldo positiboarekin bakarrik konpentsatu ahal izanen da.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako konpentsazioak hurrengo ekitaldietako bakoitzean egin ahal izanen den kopuru gehienekoan eginen dira eta ezin izanen da aurreko lerrokadan aipatzen den epetik kanpora egin ondorengo urteetako etekin negatiboari edo ondare murriztapenei erantsiz.”

Hogeita hemeretzi. 55.1 artikulua.

“Likidazio oinarri orokorra kalkulatzeko, zerga-oinarriaren zati orokorrari, eta ez besteri, ondoren azaltzen diren murriztapenak aplikatuko zaizkio:

1. Gizarte aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpen eta kontribuzioengatik:

1.a. Pentsio planetako partaideek egindako ekarpenak, sustatzaileak plan horietara egindako kontribuzioak barne.

Halaber, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an eman 2003/41/EK Zuzentarauan araututako pentsioetan parte hartzen dutenen diru-ekarpenak, enpresa sustatzaileenak barne, betebeharrak hauek betetzen badira:

a) Kontribuzioak zergei dagokienez prestazioa loturik dagoeneko partaideari egozteak.

b) Partaideari etorkizunean prestazioa hartzeko eskubidea atzera egiterik gabe eskualdatzea.

c) Kontribuzio hori osatzen duten baliabideen titulartasuna partaideari eskualdatzea.

d) Gorabehera babestuak Pentsio plan eta funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluko 6. idatz-zatian aipatzen direnak izanen dira.

Zuzentarau horren arabera egiten diren diru-ekarpen edo kontribuzioen kasuan, pentsioetarako planetarako aurreikusitakoak ez beste kasuetan osorik edo hein batean erabiliz gero, subjektu pasiboak zergaldiko aitorpenean laneko etekin gisa xedapen harengatik hartutako dirua adierazi beharko du, zergarengatik sartu ez ziren kopuruak dagozkien berandutze korrituak barne, zerga-oinarria gutxitzen zuten diru-ekarpen edo kontribuzioen ondorioz, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

2.a. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan egiten diren ekarpenak eta kontribuzioak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Baldintza subjektiboak:

a') Gizarte Segurantzako araubideren batean integraturik ez dauden profesionalek, haien ezkontideek eta lehen graduko odolkidetasunezko ahaideek, hala nola mutualitate horietako langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratuak ordaindutako kopuruak badira, betiere Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko izan diren heinean, eta, foru lege honen 35. artikuluko 1. arauan jasotzen den eran, lanbide edo enpresa jardueren etekin garbia zehazteko gastu kengarri gisa erabili ez badira.

b') Gizarte Segurantzako edozein araubidetan integraturik dauden profesionalek edo enpresaburu indibidualek, haien ezkontideek eta lehen graduko odolkidetasunezko ahaideek, hala nola mutualitate horietako langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratuak ordaindutako kopuruak badira, betiere azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko diren heinean."

c') Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratuak ordaindutako kopuruak, sustatzaileek haien alde laneko etekin kontzeptupean ordaindu eta egotzitakoak barne, betiere maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan xedaturikoaren arabera egin badira,

aipatu bazkide langileentzako langabezia-prestazioa sartuz.

b) Mutualisten eskubide kontsolidatuak, pentsio planei dagokienean Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Testu Bategineko 8.8 artikuluan ezarritako kasuetan baino ezin izanen dira bihurtu.

Aipatu eskubide kontsolidatuak, bere osotasunean edo hein batean, bestelakoetan erabiliz gero, subjektu pasiboak bere aitorpenean sartu beharko ditu lan-etekin gisa jasotako kopuruak, eta halaber, zerga-oinarria murriztapena jaso zuten ekarpenen ondorioz, zerga zela-eta sartu ez ziren zenbatakoei zegozkien berandutza-interesak ere erregelamenduaren arabera ezarri moduan.

Subjektu pasiboak 1. idatz-zati honetako 3., 4. eta 5. puntuetan aurreikusitako gizarte aurreikuspeneko sistematik heldu diren eskubide kontsolidatuak edo eskubide ekonomikoak osorik edo hein batean baldin baditu, aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatuko da, pentsio plan eta funtsen araudiari aurreikusitakoak ez bezalako kasuetan.

3.a. Aseguratutako aurreikuspen planei ordaindutako primak.

4.a. Menpekotasun larria edo menpekotasun handia baizik estaltzen ez duten aseguru pribatuei ordaindutako primak, Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen kasu egiteko Legean xedatzen denaren arabera.

Subjektu pasibo beraren alde primak ordaindu dituzten pertsona guztiek egindako murriztapenak guztira, subjektu pasiboak berak egindakoak barne, gehienez ere 10.000 eurokoak izanen dira urtean.

5.a. Enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuak langileek egindako ekarpenak eta hartzailearen kontribuzioak, maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan xedaturikoaren arabera, enpresetako gizarte aurreikuspeneko planak barne.

6.a. Lehenengo idatz-zati honetan jasotako gizarte aurreikuspeneko sistematan urtean egindako gehieneko ekarpenen multzoak _kasua bada, sustatzaileek egotzitakoak barne_ hurrengo 7. eta 8. puntuetan ezarritakoaren arabera zerga-oinarria murrizteko eskubidea emanen badu, ezin izanen ditu gainditu azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 5.3 artikuluan aurreikusitako zenbatekoak.

Aurreko lerrokan ezarritako mugaren gainetik egindako ekarpen edo kontribuzioen soberakinek ez dute eskubiderik emanen zerga-oianarria murrizteko, ez eta jasotako prestazioak gutxiagotzeko ere, bere osotasunean tributatu baitute.

7.a. Aurreko puntuetan jasotzen diren murrizketen kopuru gehieneko bateratua eta muga, ondoren finkatzen diren kopuruetatik txikiena izanen da.

a) Norberak ekitaldian zehar jasotako laneko etekin garbien, eta lanbide edo enpresa jardueretako batuketaren 100eko 30.

Nolanahi ere, berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko ehuneko 100eko 50 izanen da.

b) 8.000 euro urtean.

Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, zenbatekoa 12.500 eurokoa izanen da.

c) Aurreko a) eta b) letretan ezarritako mugak banan banan eta bereizita aplikatuko zaizkio familia unitateko subjektu pasibo bakoitzari.

8.a. Zerga-oianarria murrizteko eskubidea ematen ahal duten ekarpenak aurreko puntuan ezarritako mugatik goitikoak badira, lehenengo idatz-zati honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemetan ekarpenak egin dituzten partaideek, mutualistek edo aseguratuek, hurrengo bost zergaldietan aukera izanen dute soberakin horri dagozkion kopuruak murrizteko.

9.a. Aurreko mugen arabera egindako murriztapenak alde batera utzita, subjektu pasiboek, beren ezkontideak lan etekin garbirik edo lanbide edo enpresa jardueren ondoriozko etekinik jasotzen ez badu, edo urtean 8.500 euro baino gutxiago irabazten badu, zerga-oianarri orokorretik murrizten ahalko dituzte artikulua honetan aurreikusitako gizarte aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpenak, betiere ezkontidea partaide, mutualista edo titularra izanik eta urteko 2.000 euroko gehieneko mugarekin. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga ez zaie ekarpen horiei aplikatuko.”

Berrogei. 55.6 artikulua.

“6. Artikulu honetan aipatutako murrizketak ondoko arau hauei jarraikiz egingen dira:

1. Aurrena, 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak aplikatuko dira.

2. Eraitza positiboa bada, 3., 4. eta 5. zenbaki-etaoak aplikatuko dira, haren mugaraino. Aplikatu gabe gelditzen den zenbatekoak, baldin badago, zerga-oianarriaren aurrezkiaren zati berezia gutxi-

tuko du eta oinarri hori ezin izanen da negatiboa izan.

Eraitza negatiboa bada, 3., 4. eta 5. zenbaki-etaoak zerga-oianarriaren aurrezkiaren zati berezia gutxitzeko aplikatuko dira, eta kasu honetan ere ezin izanen da negatiboa izan.”

Berrogeita bat. 57 artikulua.

“57. artikulua. Aurrezkiaren oinarri likidagarri berezia.

Aurrezkiaren oinarri likidagarri berezia kalkulatzeko, zerga-oianarriaren aurrezkiaren zati bereziari 55. artikulua 6. idatz-zatiko 2. arauan aipatutako murriztapena aplikatuko zaio, baldin badago.”

Berrogeita bi. 60 artikulua.

“60. artikulua. Aurrezkiaren oinarri likidagarri bereziaren karga-tasa.

Oinarri likidagarri bereziaren karga-tasa 100eko 15 izanen da.”

Berrogeita hiru. 62.1f) artikulua.

“f) Ohiko etxebizitza egokitzeko lan eta instalazioak egiten dituzten subjektu pasiboek ere zilegi izanen dute ohiko etxebizitzarengatik aurreikusitako kenkaria aplikatzea, baita lan horiek eraikinaren elementu komunak eta finkatik bide publikora pasatzeko beharrezkoak direnak badira ere, ondoko zehaztapen hauekin:

a) Egokitze lan edo instalazioek Administrazio eskudunaren ziurtagiria izanen dute, haien erabilgarritasuna eta zentzumen-komunikazioa bermatzeko beharrezkoak direla frogatzeko, bide emanen baitute horrela minusbalioetasuna duten pertsonak haietan duintasunez moldatzeko, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

b) Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan egokitze lan edo instalazioak egin behar baldin badira subjektu pasiboa bera, haren ezkontidea edo bikote iraunkorra, edo harekin bizi den ahaideren bat, zuzenekoa nahiz albokoa, odolkidetasunezkoa nahiz ezkontza bidezkoa, hirugarren gradura bitartekoa, hori barne, minusbaliatua delako, zilegi izanen da horiengatik kenkaria egitea.

c) Etxebizitzan b) letran aipaturiko pertsona-etik edozeinek bizi beharko du, jabe, errentari, azpi-errentari nahiz usufruktudun izan.

Ulertuko da etxebizitza aldatzeak eskatzen duen egoera dela aurreko etxebizitza minusbalioetasuna dela-eta egokia ez izatea.

d) Egin beharreko obrak hiri-finkatik bide publikora pasatzeko beharrezkoak diren elementu komunak aldatzeko nahiz zentzumenezko komuni-

kaziorako oztopoak gainditzeko edo haien segurtasuna bultzatzeko balio duten dispositibo elektronikoa aplikatzeko behar direnak baldin badira, aurreko b') letran aipatutako subjektu pasiboaz gain, etxebizitza dagoen ondasun higiezinaren jabeak diren subjektu pasiboek ere aplikatzen ahalko dute kenkari hori."

Berrogeita lau. 67.2 artikulua.

"2. Ondorio horietarako, batez besteko kargatasa efektiboa kalkulatzeko honako eragiketa hau egin beharko da: kuota likidua likidazio-oinarriekin zatitu eta zatidura 100ekin biderkatu. Helburu hori dela-eta, zergaldiko likidazio oinarriaren zati orokorrean edo aurrezkiaren zati berezian sartzeko errentei dagokien kasuan kasuko karga-tasa bereizi beharko da. Karga-tasa bi hamarrenekin emanen da."

Berrogeita bost. 77.3 artikulua.

"3. Hildako subjektu pasiboaren egotzi gabeko errenta guztiak bere azken zergaldiko zerga-oinarriari sartuko dira.

Kausatzailearen ondorengoek aurreko lerrokan aipatutako errentei dagokien tributu zorraren parte zatitzeko eskatzen ahalko dute, berandutzagatik korriturik ordaindu behar izan gabe. Zorra kalkulatzeko 59.2 artikuluan aurreikusitako tasa aplikatuko zaio zerga-oinarri orokorrean sartutako errentari eta 60. artikuluan aurreikusitako tasa aurrezkiaren oinarri berezian sartutakoari. Eskabidea heriotzaren zergaldiari dagozkion aitopanak egiteko erregelamenduzko epearen barruan eginen da, eta errenta horiek egotzi beharko litzaizkiekeen zergaldien arabera emanen da, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzei jarraituz."

Berrogeita sei. 78.9 artikulua.

"9. Zergaldi bakoitzeko higigarrien kapitaleko etekin gisa egotziko da (foru lege honen 30.1 artikuluan aipatutakoa), ondoko hau: zergaldiaren bukaeran eta hasieran polizari atxikitako aktiboen likidazio-balioen arteko aldea, hartzaileak inbertsioaren arriskua hartzen duen bizi aseguruaren kontratuetan.

Egotzitako errenten zenbatekoak kontratuen zenbatekoak jasotzetik heldu diren etekina gutxituko du.

Ondoren azaltzen diren ezaugarrietakoren bat duten kontratuetan ez da aldi bateko egozpenaren arau berezi hori aplikatuko:

A) Hartzaileari polizari atxikitako inbertsioak aldatzeko ahalmena ez ematea.

B) Hornidura matematikoa ondoko hauetan inbertiturik egotea:

a) Inbertsio kolektiboko erakundearen akzioak edo partaidetzak, kontratuetan aurrez ezarriak, baldin eta:

a') Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea egokitutako inbertsio kolektiboko erakundeak badira.

b') Kontseiluaren 1985eko abenduaren 20ko 85/611/E.E.E. Zuzentarauaren babespeko inbertsio kolektiboko erakundeak badira.

b) Entitate aseguratzailearen balantzean banandurik jasotako aktiboen multzoak, ondoko baldintza hauek betetzen badira:

a') Banandutako aktibo multzo bakoitza osatzen duten aktiboak entitate aseguratzaileak zehaztuko ditu denbora guztian, eta horretarako, aktiboak aukeratzeko askatasun osoa izanen du entitateak, baina aurrez ezarritako irizpide orokor batzuk bete beharko ditu, aktiboen multzoaren arrisku profilari edo bestelako gorabehera objektiboari buruzkoak.

b') Horniduren inbertsioa hornidura teknikoaren inbertsiorako gai diren aktiboetan egin beharko da, ondasun higiezinak eta higiezinaren gaineko eskubide errealak izan ezik. Aktibo horiek azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Aseguru Pribatuaren Antolamenduaren eta Ikuskapenaren Erregelamenduaren 50. artikuluan aipatzen dira.

c') Aktiboen multzo bakoitzaren inbertsioek aseguru kontratuetarako ezarritako dibertsifikazio eta dispersio mugak bete beharko dituzte. Muga horiek martxoaren 5eko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Aseguru pribatuaren antolamenduari eta ikuskapenari buruzko Legearen Testu Bateginean, haren Erregelamenduan (azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuaren bitartez onetsia) eta lege hori garatzeko ematen diren gainerako arauetan ezarritako daude.

Nolanahi ere, aktiboen multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertuko da, baldin eta Europar Batasuneko baloreen bigarren mailako merkatu ofizial batzuen adierazgarria den burtsa edo errentako indize jakin bat errepikatzen duen inbertsio politika bat garatzen saiatzen badira.

d') Hartzaileak zilegi izanen du soilik banandutako aktibo multzoen artean hautatzea zeinetan inbertitu behar duen erakunde aseguratzaileak aseguruaren hornidura matematikoa, baina inoiz ez du zilegi izanen esku hartzea hornidura horiek

zein aktibo zehaztuz inbertitzen diren erabakitzeko, multzo banandu bakoitzaren barrenean.

Kontratu mota horietan, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak, polizaren zehaztapenei jarraikiz, kontratuetan berariaz izendaturiko inbertsio kolektiboko erakundeetatik edo banandutako aktibo multzoetatik bat aukeratzen ahalko dute, aseguru-hartzaile edo aseguratu bakoitzerako banakako zehaztapenik egin gabe.

Idatz-zati honek aipatzen dituen baldintzak kontratuak indarrean iraun arteko guztian bete beharko dira.”

Berrogeita zazpi. Bigarren xedapen gehigarria.

“Bigarrena. Konpentsatu zain dauden kontusailak.

1. 2007ko urtarrilaren 1ean konpentsatu zain dauden eta 2003., 2004., 2005. eta 2006. urteei dagozkien ondare murriztapenak, foru lege honen 53.b) eta 54. artikuluetan aipatzen direnak (2006ko abenduaren 31n indarra duen idazketaren arabera), foru lege honen 54.1.b) artikuluan aipatutako ondare gehikuntzen eta murriztapenen saldo positiboarekin konpentsatuko dira soilik.

2. 2003., 2004., 2005. eta 2006. urteetako zergaldiei dagozkien likidazio oinarri orokor negatibok, 2007ko urtarrilaren 1ean konpentsatu zain badaude, foru lege honen 55. artikuluan aurreikusitako likidazio oinarri orokorraren saldo positiboarekin konpentsatuko dira bakarrik.

3. Dibidenduen zergapetze bikoitzagatikoki enkariari dagozkion zenbatekoak, 2003., 2004., 2005. eta 2006. urteetako zergaldiei dagozkienak eta 2007ko urtarrilaren 1ean konpentsatu zain daudenak, foru lege honen 61. artikuluan aipatutako kuota likidotik kenduko dira, 2006ko abenduaren 31n gelditzen zaion epean, foru lege honen 62.6 artikuluan azken lerrokadan ezarritakoarekin bat, egun horretan idarra duen idazketaren arabera.”

Berrogeita zortzi. Bosgarren xedapen gehigarria, 1., 2. eta 3. idatz-zatiak.

“1. “Erregelamendu bidez, zilegi izanen da beren akzio edo partaidetzekin eginiko eragiketei buruzko informazioa, baita akzio edo partaidetza horiek erosi zein saltzeko eragiketen emaitzei buruzkoa ere, emateko betebeharra ezartzea ondoko hauei: inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietatei, inbertsiorako sozietatei, helbidea atzerrian daukaten inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak Espainiako lurraldean merkaturatzen dituzten entitatei eta foru lege honen hemeretzigarren xedapen gehigarriari jarraikiz izendatu eta zerbitzuak aske emateko araubideari loturik diharduen ordezkariari.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak behartuta egonen dira zerga-paradisua gisa sailkatutako herrialdeei edo lurraldeei zuzenean nahiz zeharka lotutako baloreak edo ondasunak edukizetik heldu diren eragiketei, egoerei, kobraketei eta ordainketei buruzko informazioa ematera, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

3. Horretaz gain, erregelamenduaren bidez ezartzen ahalko da informazioa eman beharra ondoko enkarguak:

a) Entitate aseguratuak, merkaturatzen dituzten eta foru lege honen 55.1 artikuluan aipatzen diren aseguratuak aurreikuspen planei, enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planei eta menpekotasun aseguruei dagokienez.

b) Finantza-entitateak, merkaturatzen dituzten eta hogeita bigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren aurrezki sistematikoaren banakako planei dagokienez.

c) Gizarte Segurantzako erakundeak eta mutualitateak beren kide eta mutualistek sortutako kotizazio eta kuotei dagokienez.

d) Erregistro Zibilak, jaiotzei, adopzioei eta heriotzei buruzko datuei dagokienez.”

Berrogeita bederatzia. Seigarren xedapen gehigarria.

“Seigarren xedapen gehigarria. Besteren konturako langileen mutualitateak.

Foru lege honen 55. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lanbide elkargoa eraturik duten gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru kontratuengatik emandako zenbatekoak zerga-oinarriaren zati orokorretik kentzen ahalko dituzte besteren kontura lan egiten duten mutualistak kolegiatuek, haien ezkontideek eta lehen graduako odolkidetasunezko ahaideek eta mutualitate horietako langileek, betiere, Pentsio plan eta funtsak arautzeari buruzko Legearen Testu Bategineko 8.6 artikuluan aurreikusitako kontingentzia berberak gertatzen direnean soilik kobratzen uzteko erabakia hartu baldin badute mutualitateko kasuan kasuko organoek.”

Berrogeita hamar. Hamargarren xedapen gehigarria.

“Hamargarren xedapen gehigarria. Zerga-paradisua gisa sailkatutako herrialdeak edo lurraldeak.

Zerga honen ondorioetarako, zerga-paradisu-tzat hartzen dira estatuko araudian erregelamendu bidez horrelakotzat hartzen direnak. Tributazio deusezeko eta zerga arloko informazio-trukaketa-kasuetan ere araudi horren arabera jokatu da.”

Berrogeita hamaika. Hamabosgarren xedapen gehigarria.

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Minusbaliotasuna duten pertsonen alde egindako gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen eta prestazioen zerga-araubidea.

1. Minusbaliotasuna duten pertsonen alde egindako pensio planetarako ekarpenei, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko estatuko araudian ezarritako betebeharrak, ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte, eta haietatik heldu diren prestazioei ondoko zerga-araubidea aplikatuko zaie:

a) Zilegi izanen da pensio plan horietara sartzen diren dirutzei murrizketa egitea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren parte orokorrean, gehieneko muga hauek kontuan hartuta:

a') Partaide bakoitzak bere ahaide minusbaliatu baten alde urtean egindako ekarpenen kasuan: 10.000 euro urteko.

Horrek ez die galarazten beren pensio planetan ere dirua sartzea, foru lege honen 55. artikuluko ezartzen dituen mugen barranean.

b') Partaide minusbaliatuek berek urtean egindako ekarpenak: 24.250 euro urteko.

Minusbaliatu beraren alde ekarpenak egin dituzten pertsona guztien murrizketak, minusbaliatuarenak barne, guztira, ez dira inoiz 24.250 euro baino gehiagokoak izanen urtean. Hartarako, minusbaliatu baten alde ekarpen bat baino gehiago egiten badira, aurrena minusbaliatuak berak egindako ekarpenei egin beharko zaie murrizketa, eta horiek 24.250 euroko muga horretara iristen ez direnean soilik egin ahal izanen zaie murrizketa haren alde beste pertsona batzuek eginiko ekarpenei, euren zerga-oinarrian eta proportzionalki. Edozein kasutan ere, minusbaliatu beraren alde ekarpenak egin dituzten pertsona guztien murrizketak ez dira inoiz izanen guztira 24.250 euro baino gehiagokoak.

b) Minusbaliatuek errenta gisa jasotako prestazioetatik heldu diren lan-etekinek, xedapen honek aipatzen dituen ekarpenei dagozkienek, murrizketa izanen dute zerga honetan, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako hiruraino.

Minusbaliatuek kapital gisa jasotako prestazioen kasuan, xedapen honek aipatzen dituen ekarpenei buruzkoak badira, foru lege honetako 17.2 artikuluko b) eta c) letretan jasotako murrizketa 100eko 60koa izanen da.

2. Xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara, aseguratutako aurreikuspen planetara, enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planetara eta menpekotasun larria edo menpekotasun handia baizik estaltzen ez duten asegurueta (Autonomia sustatzeko eta Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko Legean xedatzen denaren arabera), Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko estatuko araudian ezarritako baldintzak eta erregelamendu bidez finkatzen direnak betetzen dituzten minusbaliatuen alde egindako ekarpenei eta prestazioei, baita haietatik guztietatik jasotakoei ere.

Pensio plan eta funtsen araudian aurreikusita-koak ez bezalako kasuetan, gizarte aurreikuspeneko mutualitate horien eskubide kontsolidatuak erabiltzearen ondorioak foru lege honetako 55. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. puntuko b) letraren bigarren lerrokan ezarritakoak izanen dira.

3. Minusbaliotasuna duten pertsonen alde gizarte aurreikuspeneko sistemetan egiten diren ekarpenei, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Estatuko araudian ageri diren pertsonen eginei, ez zaie Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga aplikatuko.”

Berrogeita hamabi. Hamaseigarren xedapen gehigarria.

“Hamaseigarren xedapen gehigarria. Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitatearen ekarpen eta prestazioen zerga-araubidea.

Kirolari profesionalen mutualitateari egiten zaizkion ekarpenei (prima finkoaren bidezko gizarte aurreikuspeneko mutualitatea), baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Estatuko araudian ezarritako betebeharrak, ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte, bai eta haietatik heldu diren prestazioei ere, ondoko zerga-araubidea aplikatuko zaie:

a) Egindako ekarpenengatik, hala zuzenekoengatik nola egotzitakoengatik, murrizketa egiten ahalko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zati orokorrean; horretarako muga izanen da lanarengatik eta lanbide edo enpresa jarduerengatik ekitaldian banaka jasotako etekin garbien batura, eta betiere urtean 15.025,30 euroko zenbatekoa gainditu gabe.

b) Zerga-oinarrrian murrizketa egiteko aukera ematen ez duten ekarpenen kasuan, dela zerga-oinarrria behar adinakoa ez izateagatik edo dela aurreko a) letrako muga aplikatzeagatik, aukera izanen da hurrengo bost ekitaldietan murrizketa egiteko. Arau hau ez zaie aplikatuko foru lege honen hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiaren a) letrako b') azpiletran aurreikusitako muga gainditzen duten ekarpenei.

c) Pentsio plan eta funtsen araudian aurreikusitakoak ez bezalako kasuetan, gizarte aurreikuspeneko mutualitate horien eskubide kontsolidatuak erabiltzearen ondorioak foru lege honetako 55. artikuluko 1. idatz-zatiko 2. puntuko b) letraren bigarren lerrokadan ezarritakoak izanen dira.

d) Jasotako prestazioek, bai eta kontsolidatutako eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Estatuko araudian aurreikusitako kasuetan jasotzeak, lan- etekin gisara tributatuak dute oso-osorik.

e) Aurreko letretan aurreikusitako araubide berezia alde batera utzita, kirolari profesionalak eta goi mailakoek zilegi izanen dute kirolari profesionalentzako gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egitea, kirolari profesional gisa lan-bizitza bukatu badute edo goi mailako kirolarien izaera galdu.

Ekarpen horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriko zati orokorrean murrizketa egiteko aukera ematen ahal dute, Pentsio Plan eta Funtsak arautzeari buruzko Legearen Testu Bategineko 8.6 artikuluan aurreikusitako inguruabarrak estaltzeko xedea duten neurrian.

Mutualisten eskubide kontsolidatuak Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bategineko 8.8 artikuluan pentsio planetarako ezarritako kasuetan baino ezin izanen dira gauzatu.

Ekarpen horien murrizketaren gehieneko muga, osotara, foru lege honen 55.1.7 artikuluan ezarritakoa izanen da.”

Berrogeita hamahiru. Hogeigarren xedapen gehigarria. 1.a).

“a) Ekarleak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak direnean, urtean ekarle bakoitzeko 10.000 euro bitarteko kopurua eta, osotara, 24.250 bitarteko kopurua hartuko da lan etekintzat.

Horrez gainera, aurreko lerrokadan ezarritako mugak gorabehera, ekarleak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak direnean, urtean 10.000 euro arteko kopurua lan- etekintzat hartuko

da, betiere Sozietateen gaineko Zergan gastu hori kenkari gisa agertu bada.

Etekin horiek ezgaitasuna duen subjektu pasiboaren zerga-oinarrrian sartuko dira, ondare babestuaren titularrarenean, hain zuzen. Etekinetako zenbatekoa eta, honelakorik badago, foru lege honen hamabosgarren xedapen gehigarriaren 1.b) idatz-zatian aipatzen diren errenta gisako prestazioak batu ondoren, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako hiru gainditzen duen zenbatekoa hartuko da aintzat.

Ekarpenak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek egiten dituztenean, eta beren menpe dauden langileen ahaide edo ezkontideen edo langileek tutoretza, harrera edo umeordetza araubidean dituzten pertsonen ondare babestua- ren alde badira, ondare babestuaren titularraren- tzat soilik hartuko dira lan etekintzat.

Letra honetan azaldu diren etekinetan ez da konturako dirusarrerarik edo atxikipenik egin beharko.”

Berrogeita hamalau. Hogeigarren xedapen gehigarria. 2.a), lehen lerrokada.

“Gradu guztietako zuzeneko ahaideek edo hirugarren gradura bitarteko alboko ahaideek fami- liako subjektu pasibo ezgaitu baten ondare babes- tuari egindako ekarpenek eskubidea emanen dute ekarleak zerga-oinarrrian kenkaria egiteko, urtean 10.000 euro gehienez. Berdin jokatu da ekarpe- na ezgaitasuna duen subjektu pasiboaren ezkonti- deak egiten badu edo haren kargura dauden beste pertsona batzuek, tutoretza araubidean eduki, harrera araubidean (Kode Zibilaren 172. artikuluan eta hurrengoetan arautua) edo umeordetza arabi- dean (Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildu- maren 73. eta 74. Legeek edo beste autonomia erkidego bateko ordenamendu juridiko zibilean izaera bera duten beste erakunde batzuek arau- tua).”

Berrogeita hamabost. Hogeigarren xedapen gehigarria. 2.c).

“c) Diru bidezkoak ez diren ekarpenen kasuan, fundazioen eta babes-jardueren tributu araubideari buruzko uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen 34. eta 38. artikuluetan ezarritakoaren ondoriozko emaitza hartuko da ekarpenaren zenbatekotzat.”

Berrogeita hamasei. Hogeita bigarren xedapen gehigarria eranstea.

“Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Aurrezki sistematikoaren banakako planak.

Aurrezki sistematikoaren banakako planen betebeharrak, baldintza eta ezaugarriak dagokienez, Estatuko araudia beteko da.

Subjektu pasiboak, biziarteko errenta eratu baino lehen, eskubide ekonomiko metatuak osorik edo hein batean bere eskura badauzka, horren arabera ordainduko ditu zergak, foru lege honetan ezarritakoarekin bat. Horretarako, berreskuratutako kopurua lehenbizi ordaindutako primei dagokiena izanen da, kasu bakoitzeko errentagarritasuna barne.

Biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak osorik edo hein batean aurreratuz gero, foru lege honen 7. artikuluko u) letran xedatutakoa

aplikatzearen ondorioz salbuetsita egon zen errenta aipatutako aurreratzea gertatzen den zergaldian sartu beharko du subjektu pasiboak.

Jasotzen den biziarteko errenta dela-eta, baldin eta jarri diren baliabideekin eratuta badago eta Estatuko araudiko baldintzak betetzen baditu, foru lege honen 30. artikuluko 1. idatz-zatikiko b) letran ezarritakoaren arabera ordainduko dira zergak.”

Berrogeita hamazazpi. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria eranstea.

“Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Lan etekinen gaineko atxikipen portzentajeak.

1. Atxikipen portzentajeen taula orokorra

URTEKO ETEKINA	SEME-ALABEN ETA BESTE ONDORENGO BATZUEN KOPURUA										
	Seme-alabarik gabe	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo gehiago
10.000 baino gehiago	2,00	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
11.250 baino gehiago	4,00	2,00	-	-	-	-	-	-	-	-	-
12.750 baino gehiago	6,00	4,00	2,00	-	-	-	-	-	-	-	-
14.250 baino gehiago	8,00	6,00	4,00	2,00	-	-	-	-	-	-	-
16.750 baino gehiago	10,00	8,00	6,00	4,00	1,00	-	-	-	-	-	-
19.750 baino gehiago	12,00	11,00	9,50	8,00	6,00	4,00	-	-	-	-	-
23.250 baino gehiago	13,50	12,00	11,50	9,00	8,00	6,00	4,00	-	-	-	-
25.750 baino gehiago	14,50	13,00	12,50	10,00	9,50	8,00	6,00	4,00	1,00	-	-
28.250 baino gehiago	15,50	14,00	13,50	12,00	10,50	9,00	8,00	6,00	4,00	1,00	-
32.250 baino gehiago	16,50	15,00	14,50	13,00	12,50	11,00	10,00	8,00	7,00	5,00	2,00
35.750 baino gehiago	17,50	16,50	16,50	14,00	13,50	13,00	12,00	10,00	9,00	7,00	6,00
41.250 baino gehiago	18,50	17,50	17,50	16,00	15,50	15,00	13,00	12,00	11,00	10,00	9,00
48.000 baino gehiago	20,50	20,50	20,00	18,00	17,50	17,00	16,00	15,00	14,00	13,00	12,00
55.000 baino gehiago	23,00	22,50	22,00	20,50	20,50	20,00	19,00	18,00	17,00	16,00	14,50
62.000 baino gehiago	25,00	24,50	23,50	23,50	22,50	22,00	21,00	20,50	19,00	18,00	16,50
69.250 baino gehiago	27,00	26,50	26,00	25,50	24,00	24,00	23,50	22,00	21,00	19,50	18,50
75.250 baino gehiago	28,00	28,00	27,00	26,00	26,00	25,00	25,00	23,50	22,50	21,50	20,50
82.250 baino gehiago	29,00	29,00	29,00	28,00	28,00	27,00	26,50	25,50	24,50	23,50	23,00
94.750 baino gehiago	30,00	30,00	30,00	29,00	29,00	29,00	28,00	27,50	26,50	25,50	24,50
107.250 baino gehiago	32,00	32,00	32,00	31,00	30,50	30,00	29,50	28,50	28,00	27,00	26,00
120.000 baino gehiago	33,00	33,00	32,50	32,00	31,50	31,00	30,50	29,50	29,00	28,00	27,50
132.750 baino gehiago	33,50	33,50	33,00	32,50	32,00	31,50	31,00	30,50	30,00	29,00	28,50
146.000 baino gehiago	34,00	34,00	34,00	33,50	33,00	32,50	32,00	31,50	31,00	30,50	30,00

2. Atxikipen portzentajeak, jardunean dauden langile ezgaituen kasuan.

Jardunean dauden langile ezgaituei aurreko 1. idatz-zatian ezarritako taulan dagokien atxikipena eginen zaie, baina ondoko eskalan ageri diren puntuak murriztuta:

URTEKO ETEKINAK (EUROTAN)		MINUSBALIASUN MAILA	
ZENBATEKO HONETATIK	ZENBATEKO HONETARA	%33KOA EDO HANDIAGOA	%65EKOA EDO HANDIAGOA
10.000,01	23.250,00	5	15
23.250,01	41.250,00	3	15
41.250,01	94.750,00	2	8
94.750,01	Edo gehiago	2	5

Eskala horretan agertzen diren murrizketak aplikatzearen ondorioz, ezin izanen da zerotik beherako portzentajerik atera.

3. Atxikipen portzentajea, langabeziako prestazioen kasuan.

Langabeziako prestazioen kasuan, entitate kudeatzaile batek onetsiak betiere, atxikipenetan honako portzentaje hauek aplikatuko dira:

URTEKO ETEKINAK (EUROTAN)	PORTZENTAJEA
10.000,00 baino gehiago	2
11.250,00 baino gehiago	4
12.750,00 baino gehiago	6
14.250,00 baino gehiago	8

4. Portzentaje horiek erregelamendu bidez aldatzen ahalko dira.”

Berrogeita hemezortzi. Hogeita laugarren xedapen gehigarria eranstea.

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Konturako dirusarrerak eta atxikipenak.

1. Foru lege honen 28. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren etekinen kasuan, kontraprestazio osoak eratuko du atxikipenaren oinarria, eta ondorio horietarako ez da kontuan hartuko foru lege honen 7. artikuluko v) letran ezarritako salbuespena.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio eta partaidetzen eskualdaketatik eta errenboltoetatik ez da atxikipena aplikatuko, foru lege honen 52.1.a) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ondare gehikuntza konputatzea bidezkoa ez denean.

3. Zenbatespen objektiboaren araubideak zehazten dituen enpresa jardueretako etekinei 100eko 1eko konturako dirusarrera edo atxikipena aplikatuko zaie.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio gai hau erregelamendu mailako arauen bidez erregulatzeke.”

Berrogeita hemeretzi. Laugarren xedapen iragankorra.

“Laugarren xedapen iragankorra. Foru lege hau indarrean jarri aurretik ondare gehikuntzak edo murrizketak eragin dituzten bizi aseguruaren kontratuen araubide iragankorra.

Kapital geroratu bat jasotzen denean, foru lege honen 30.1.a) artikuluari jarraikiz kalkulaturako etekin garbi osoaren zatia, 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primei badagokie eta 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortu bada, 100eko 14,28 murriztuko da urte bakoitzeko, gora biribilduta, prima ordaintzen denetik 1994ko abenduaren 31ra bitarte.”

Hirurogei. Seigarren xedapen iragankorra.

“Seigarren xedapen iragankorra. Zor publikoko balore batzuen tributazioa.

Zor publikoko baloreen eskualdaketa, amortizazio edo errenboltoaren ondoriozko etekinak (1999ko urtarrilaren 1etik aurrera eginak, 1997ko abenduaren 31 baino lehen eskuratuak, eta lehenago ondare gehikuntzak sortu zituztenak) zerga-oinarriko aurrezkiaren zati berezian sartuko dira, eta ezin izanen dira foru lege honen 32. artikuluan aurreikusitako murrizketak aplikatu.”

Hirurogeita bat. Zazpigarren xedapen iragankorra.

“Zazpigarren xedapen iragankorra. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako elementuen ondoriozko ondare gehikuntzak.

1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuak eskualdatzearen ondorioz izan diren ondare gehikuntzak, lanbide edo enpresa jarduereri lotuta egon ala ez, eta eskubide eta ondasun ez-materialen ondoriozkoak salbu, honela kalkulaturako dira:

1. Elementu bakoitzarentzat zehaztuko dira, eta foru lege honen III. tituluko II. kapituluaren 4. atalean ezarritakoari jarraikiz. Hala kalkulaturako gehikuntzan 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortutako zatia bereiziko da, eta halakotzat joko da eskuratze egunetik 2006ko abenduaren 31ra bitarte (biak barne) igarotako egunen kopuruari proportzioz dagokion ondare gehikuntzako zatia, betiere elementua subjektu pasiboaren ondarean egon den egun guztien kopuruarekin alderatuta.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren arabera 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortutako ondare gehikuntzako zatia honela murriztuko da:

a) Elementua eskuratzen den egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitarteko urteen kopurua (gora biribilduta) hartuko da subjektu pasiboaren ondarean izan duen iraupen alditzat.

Harpidetza eskubideen kasuan, eskubide horiek zein baloretatik heldu diren, balore horiei dagokiena hartuko da iraupen alditzat.

Eskualdatutako ondare elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin badira, egin diren egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitarteko urteen kopurua (gora biribilduta) hartuko da horiek subjektu pasiboaren ondarean izandako iraupen alditzat.

b) Sozietate nahiz erakundeen funts berekieta-ko partaidetzaren erakusgarri diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza baliabideen merkatuari buruzkoan, definitu diren bigarren mailako balore-merkatu ofizialekoren batean negoziatorako onarturiko akzioei dagokienez, ondasun higigarri eta higiezinaren inbertsiorako sozietateen kapital soziala ordezkatzeko akzioak izan ezik, ondare gehikuntza 100eko 25 murriztuko da iraupen urte bakoitzeko, lehen bi iraupen urteak kenduta.

c) Aurreko b) letran xedatutakoa galarazi gabe, eta ondasun higiezinak, horien gaineko eskubideak edo Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren

28ko 24/1988 Legearen 108. artikuluan ageri diren entitateen baloreak direnean, ondasun higiezin inbertsiorako sozietateen edo funtsen kapital soziala edo ondarea ordezkatzan duten akzioak edo partaidetzak izan ezik, ondare gehikuntza 100eko 11,11 murriztuko da iraupen urte bakoitzeko, lehen bi iraupen urteak kenduta.

d) Gainerako ondare gehikuntzak, 2006ko abenduaren 31 baino lehen sortuak, 100eko 14,28 murriztuko dira iraupen urte bakoitzeko, lehen bi iraupen urteak kenduta.

e) Ez dira zergari lotuta egonen 2006ko abenduaren 31 baino lehen izaten diren ondare gehikuntzak, baldin eta 1996ko abenduaren 31n, aurreko b), c) eta d) letretan adierazitakoaren arabera, hurrenez hurren bost, hamar edo zortzi urteko iraupen aldia duten ondare elementuen ondoriozkoak badira.

3. Araututako merkatuetakoren batean negoziatziorako onartutako baloreen eta inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen kasuetan, foru lege honen 43. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta c) letretako araubidea aplikagarri badute, foru lege honen III. tituluko II. kapituluaren 4. atalean ezarritakoari jarraikiz kalkulatu dira, balore, akzio edo partaidetza bakoitzerako, ondare gehikuntza eta murrizketak.

Baldin eta, aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioz, ondare gehikuntza bat izaten bada, honako murrizketa hauen artean bidezkoa dena aplikatuko da:

a) Eskualdaketa balorea 2006ko Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako baloreei, akzioei edo partaidetzei dagokien balore bera edo handiago izanez gero, 2006ko abenduaren 31 baino lehen izandako ondare gehikuntzaren zatia aurreko 1. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera murriztuko da. Ondorio horietarako, 2006ko abenduaren 31 baino lehenagoko ondare gehikuntza honako hau izanen da: eskualdaketa balore gisa 2006ko Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako baloreei, akzioei edo partaidetzei dagokiena hartzearen ondoriozko gehikuntza zatia.

b) Eskualdaketa balorea 2006ko Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako baloreei, akzioei edo partaidetzei dagokien balorea baino txikiagoa izanez gero, ondare gehikuntza guztia 2006ko abenduaren 31 baino lehen izan dela ulertuko da,

eta aurreko 1. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera murriztuko.

4. Eskualdatutako ondare elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin badira, osagai bakoitzari dagokion besterentze balorearen zatia bereziko da, aurreko 2. idatz-zatian xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako.

5. 1994ko abenduaren 31 baino lehenago eskuratutako eta lanbide edo enpresa jardueri atxikitako eskubide eta ondasun ez-materialen eskualdatzearen ondoriozko ondare gehikuntzak kalkulatzeko, aurreko idatz-zatietan ezarritakoari jarraikiko zaio, baldin eta eskualdaketa ezintasun iraunkorraren edo erretiroaren ondorioz gertatu bada.”

Hirurogeita bi. Zortzigarren xedapen iragankorri 3. idatz-zatia gehitzea.

“3. Higarrien kapitalaren etekintzat jo behar den biziarteko eta aldi baterako errenten -berהלakoen edo geroratuen- zatia zehazteko, zilegi izanen da foru lege honen 30.1 artikuluko b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak aplikatzea 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotzen diren errenta gisako prestazioei, errenta horiek 1999ko urtarrilaren 1aren eta 2006ko abenduaren 31aren artean eratu badira.

Portzentaje horiek aplikatzen ahalko dira errentadunak (biziarteko errenten kasuan) urteko kopuru bakoitza jasotzen duenean daukan adinarean arabera, edo, aldi baterako errenten kasuan, errentaren iraupen osoaren arabera.

Bidezkoa denean, foru lege honen 30.1.d) artikulua aipatutako errenta eratzen den egunera arte lortutako errentagarritasuna gehituko da.”

Hirurogeita hiru. Hamalagarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hamalagarren xedapen iragankorra. Sozietate gardenak eta ondare sozietateak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako subjektu pasiboiei dagokienez, ondoko hauek aplikatuko dira: zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehenbiziko eta bigarren xedapen iragankorretan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.”

2. artikulua. Ondarearen gaineko zergari buruzko Foru Legea.

2007ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko artikulua hauek honako testua izanen dute:

Bat. 31.1 artikulua.

“1. Zerga honen kuota osoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoarekin batera, ez da azken horren zerga-oinarriko baturaren 100eko 60tik goitiko izaten ahal, eta, ondorio hauetarako, ez da kontuan hartuko izaeragatik edo xedeagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapean dauden etekinak sortzeko ahalmenik ez duten ondare-elementuei dagokien kuotaren zatia.

Aurrezkiari dagokion zerga-oinarriko zati berezia, ondare gehikuntza eta murrizketen ondoriozkoa, eskualdatze egunaren aurretik gutxienez ere urtebete lehenago eskuratutako ondare elementuen eskualdaketa edo horietan egindako hobekuntzen saldo positiboari dagokiona ere ez da kontuan hartuko, ez eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoan aurrezkiaren zerga-oinarriko zati bereziari dagokion zatia ere.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarriari aurrezkiari dagokion zati bereziari gehituko zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen iragankorreko 6. artikuluko a) letrak aipatzen duen mozkinetako partaidetzen eta dibidenduen zenbatekoa.”

Bi. 33.1.b) artikulua.

“b) Entitateen partaidetzen jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufruktu eskubidea, merkatu antolatuetan kotizatu ala ez, baldintza hauek gertatzen badira:

1.a. Entitateak, sozietatea izan ala ez izan, lanbide edo enpresa jarduera bat benetan egitea eta haren jarduera nagusia ez izatea ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzea. Entitate batek ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen duela ulertuko da, eta horrenbestez, lanbide edo enpresa jarduera bat egiten ez duela, ekitaldi sozialeko 90 egun baino gehiagotan ondoko baldintzetako bat gertatzen denean:

a) Bere aktiboaren erdia baino gehiago baloreak osatua izatea, edo bestela

b) Bere aktiboaren erdia baino gehiago ez egotea lanbide edo enpresa jardueri lotua.

b) letran adierazitako ondorioetarako, lanbide edo enpresa jarduerarik ba ote den edo ondare-elementu bat halako jarduera bati lotuta ote dagoen finkatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xedatutakoari segituko zaio.

Bai aktiboaren balioa, bai lanbide edo enpresa jardueri loturik ez dauden ondare-elementuena, kontabilitatearen ondoriozkoak izanen dira, baldin eta horrek entitatearen ondare egoera zintzoki jasotzen badu.

Aurreko jardueri loturik ez dauden balore- edo ondare-elementuek osatutako aktiboaren partea zehazteko:

1. Honako balore hauek ez dira kontatuko:

– Legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.

– Lanbide edo enpresa jarduerak garatzean ezarritako kontratu harremanen ondorioz sortutako kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

– Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

– Gutxienez ere bozkatzeko eskubideen 100eko 5 ematen dituztenak, partaidetza zuzendu eta kudeatzeko asmoz edukitzen badira, betiere, horretarako, baliabide material eta langile aski badaude eta parte harturiko entitatea letra honean agertzen ez bada.

2. Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta lanbide edo enpresa jardueri loturik ez dauden ondare-elementu gisa ere, haien erosketa-prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino handiagoa ez bada, baldin eta mozkin horiek lanbide edo enpresa jardueren ondoriozkoak badira. Urte horretan berean eta azken hamar urteetan lorturiko mozkinen batura muga gisa hartuko da.

Ondorio horietarako, aurreko lerrokadako azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak lanbide edo enpresa jardueretatik etorritako mozkinen parekoak izanen dira, baldin eta partaidetzako entitateak lortutako dirusarreraren 100eko 90, gutxienez, lanbide edo enpresa jardueretatik heldu badira.

2.a. Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza 100eko 5ekoa izatea gutxienez, banaka zenbatua, edo 100eko 20koa, ezkontideak edo bigarren graduako aurrekoek, ondorengoek edo albo-ahaideek dutenarekin batera zenbatuz gero, ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontzatik edo adopzioetik datorrela.

3.a. Subjektu pasiboak entitatean zuzendari-tza-eginkizunak betetzea egiazki, eta horretatik

jasotzen duen ordainsaria lanbide edo enpresa jardueretatik eta lan pertsonaletik guztira bereganatzen duenaren 100eko 50 baino gehiagokoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko, 1. zenbaki honetako a) letrak aipatzen duen enpresa jardueraren etekinak ez dira lanbide edo enpresa jardueretatik eta lan pertsonaletik bereganatutako etekin gisa zenbatuko.

Entitatean duen partaidetza aurreko baldintzan aipatutako pertsona batekin edo batzuekin baterakoa bada, zuzendaritza-eginkizunak eta haien ondoriozko ordainsariak ahaideen taldeko pertso-

na batek bederen izan beharko ditu, deusetan galarazi gabe kenkarirako eskubidea denek izatea.

Kenkariak partaidetzen balioa baizik ez du hartuko balio hori foru lege honen 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da?, hain zuzen, lanbide edo enpresa jarduera burutzeko behar diren aktiboei jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen denaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiek aplikatuko dira entitate partaidetuaren partaidetzen balorazioan, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko.”

3. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2007ko urtarrilaren 1etik aurreragoko zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikulua hauek honako testua izanen dute:

Bat. 11.1.b).b') artikulua.

“b') Arrisku-kapitalekoak, hain zuzen, arrisku-kapitaleko entitateak eta haien sozietate kudeatzaileak arautzen dituen azaroaren 24ko 25/2005 Legean adierazitakoak.”

Bi. 20. artikuluari 4. zenbakia gehitzea.

“4. Egoitza Espainian ez duten entitateetako funts berekietan parte hartzeko baloreak erosten direnean, eta horien errentak foru lege honen 62. artikuluan ezarritako salbuespenaz baliatzeko modukoak badira, partaidetzaren erosketa-prezioaren eta partaidetzak erosketa-egunean zuen kontabilitate-balio teorikoaren arteko diferentzia egoitza Espainian ez duen entitatearen ondasun eta eskubideei egotziko zaie, urteko kontu bateratuak egiteko neurriak onetsi zituen abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuan ezarritako irizpideei jarraikiz. Egotzi ezin den zatia zerga-oinarritik kentzen ahalko da, urtero zenbateko horren ehuneko hamar gehienez, salbu eta foru lege honen 67. artikuluan adierazitako kenkariaren oinarrian sartu bada, deusetan galarazi gabe aplikagarri diren kontabilitate-arauetan ezarritakoa.

Egotzi ezin den zenbateko horri dagokion kenkaria, bidezkoa bada, aurreko 1. zenbakian aipatutako zuzkidurekin bateragarria izanen da.”

Hiru. 28. artikulua.

“28. artikulua. Loturiko eragiketak baloratzeko arauak.

1. 1.a. Loturiko pertsona edo entitateen artean egindako eragiketak merkatuko balio normala aplikatuz baloratuko dira. Foru lege honen ondorioetarako, merkatuko balio normala izanen da lehia askeko baldintzetan pertsona edo entitate burujabeek adostuko luketen prezioa.

2.a. Zerga Administrazioak ahalmena izanen du loturiko pertsona edo entitateen artean egindako eragiketak merkatuko balio normalen arabera egin ote diren aztertzeko. Zerga honi, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratu ez badira, Administrazioak bidezko diren zuzenketak eginen ditu, subjektu pasiboak ekartzen duen dokumentazioa eta administrazioak eskura dituen datu eta informazioak aintzat harturik. Zerga Admi-

nistrazioak balio horri eutsiko dio gainerako pertsona edo entitate lotuei dagokienez. Administrazioaren balorazioak ez du ezarriko eragiketa bati benetan dagokion errentatik gora ordaintzea zerga honetan, ez eta, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan ere, eragiketaren parte hartu duten pertsona edo entitate guztientzat. Konparazioa egiteko, zenbatespen objektiboko metodoen bat aplikatu ahal izateagatik, zerga-oinarrian sartzen ez den errentaren zatia hartuko da.

2. Loturiko pertsona edo entitateek Administrazioaren eskura utzi beharko dute erregelamenduz ezartzen den dokumentazioa.

3. Foru lege honen ondorioetarako, hauek dira elkarriz loturiko pertsona edo entitateak:

a) Entitate bat eta bere bazkideak edo partaideak.

a) Entitate bat eta bere kontseilari edo administrazioaileak.

c) Entitate bat eta bazkide, partaide, kontseilari edo administrazioaileen ezkontideak edo, bestela, hirugarren gradura arteko ahaide zuzen edo albo-koak, odolbidezkoak izan ala ezkontza bidezkoak izan.

d) Talde bereko partaide diren bi entitate.

e) Entitate bat eta beste entitate bateko bazkide edo partaideak, bi entitateak talde bereko partaide badira.

f) Entitate bat eta beste entitate bateko kontseilari edo administrazioaileak, bi entitateak talde bereko partaide badira.

g) Entitate bat eta beste entitate bateko bazkide edo partaideen ezkontideak edo, bestela, haien hirugarren gradura arteko ahaide zuzen edo albo-koak, odolbidezkoak izan ala ezkontza bidezkoak izan, bi sozietateak talde bereko partaide baldin badira.

h) Bi entitateen artekoa, baldin eta batak bestearen kapital sozialaren edo funts berekien 100eko 25eko edo gehiagoko partaidetza baldin badu zeharka.

i) Bi entitateen artekoa, baldin eta bazkide edo partaide berberak edo horien ezkontideak edo, bestela, hirugarren gradura arteko odolbidezko edo ezkontza bidezko ahaide zuzen edo albokoek kapital sozialaren edo funts berekien 100eko 25eko edo gehiagoko partaidetza baldin badute, dela zuzenean, dela zeharka.

j) Egoitza Espainian duen entitate bat eta atzerrian dituen finkagune iraunkorrak.

k) Egoitza Espainian ez duen entitate bat eta Espainian dituen finkagune iraunkorrak.

l) Zergak sozietate kooperatiboen taldeen araubidean ordaintzen dituen talde bateko partaide diren bi entitate.

Lotura bazkideen edo partaideen eta entitatearen arteko harremanetan oinarritzen bada, partaidetza 100eko 5ekoa edo goragokoa izan beharko da edo, merkatu arautu batean negoziatzen diren baloreak bada, 100eko 1ekoa edo handiagokoa. Administratzaileei dagokienez, izatezkoak eta eskubidedunak sartuko dira.

Talde bat dagoela ulertuko da zenbait sozietatek erabakitze unitate bakarra osatzen dutenean, Merkataritzaren Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, egoitza non duten eta urteko kontu bateratuak aurkeztu behar duten alde batera utzita.”

Lau. 29. artikulua.

“29. artikulua. Loturiko pertsona edo entitateetako zenbait gasturen kenkariak.

1. Loturiko entitateen arteko zerbitzu gastuak foru lege honen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuko dira eta kenkari gisa hartuko dira baldin eta ematen diren zerbitzuek abantaila edo erabilera bat ekartzen badiote erabiltzaileari. Loturiko pertsona edo entitate batzuen alde egindako baterako zerbitzua denean, eta ezinezkoa bada jasotako zerbitzua banakatzea edo ordainsaria finkatzeko erabilitako elementuak kuantifikatzea, zilegi izanen da guztirako kontraprestazioa pertsona edo entitate onuradun guztien artean banatzea, arrazionaltasun irizpide batzuen arabera. Horrelako irizpideak erabili direla ulertuko da aukeratzeko metodoak, zerbitzuaz eta inguruabarrez gainera, helburuko pertsona edo entitateek lortzen dituzten edo lor ditzaketen onurak ere kontuan hartzen baditu.

2. Loturiko pertsona edo entitate batzuek ondasun edo zerbitzuen kostuak, foru lege honen 32. artikuluan finkatutakoaren arabera baloratuak, banatzeko akordio bat sinatzen dutenean, akordioaren ondoriozko gastuen kenkaria egiteko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Akordioa sinatzen duten pertsona edo entitate parte-hartzaileek akordioaren bidez erosi, ekoizti edo garatu nahi diren aktibo edo eskubideen jabetza edo antzeko ondorio ekonomikoak dituen beste eskubide bat eskuratu beharko dute.

b) Pertsona edo entitate parte-hartzaile bakoitzaren ekarpenak kontuan hartu beharko du bakoitzak, arrazionaltasun irizpideen arabera, akordiotik

lortu nahi dituen erabilera edo abantailen aurreikuspena.

c) Akordioan inguruabarren edo parte hartzen duten pertsonen edo entitateen aldaketak aurreikusi beharko dira eta beharrezko diren konpentsazio-ordainketak eta egokitzapenak ezarri.

Loturiko pertsona edo entitateen artean sinatzen diren akordioek, gainera, erregelamenduz ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.”

Bost. 30. artikulua.

“30. artikulua. Balorazio akordioak.

Loturiko pertsonen edo entitateen arteko eragiketarik egin aurretik, subjektu pasiboek Zerga Administrazioari eskatzen ahalko diote eragiketaren balorazioa egin dezala. Eskaerarekin batera, proposamen bat bidali beharko dute, merkatuko balio normalean oinarrituta.

Zerga Administrazioak akordioak sinatzen ahalko ditu beste administrazio batzuekin, eragiketen merkatuko balio normala batera finkatzeko.

Balorazio akordioaren ondorioak akordioaren datatik aurrera egiten diren eragiketei aplikatuko zaizkie. Akordioaren indarraldia akordioan bertan ezarriko da, baina ez du akordioaren datatik hasita ondoko lau zergaldi baino gehiago iraungo. Akordioan finkatzen ahalko da, orobat, zergaldi horretan eta are aurrekoan ere egindako eragiketetan izanen dituela ondorioak, kasuan kasuko zergaren aitorpena aurkezteko epea bukatu ez bada behinik behin.

Zerga Administrazioak akordioa hartu zuenean aintzat hartutako inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatuz gero, akordioa inguruabar ekonomiko berriei egokitzeko aldatzen ahalko da.

Ebazteko aldia bukatutakoan, idatz-zati honetan aipatutako proposamenak ezetsitzat joko dira.

Erregelamendu bidez, loturiko eragiketen balorazio akordioak eta horien luzapenak ebazteko prozedura finkatuko da.”

Sei. 31. artikulua.

“31. artikulua. Egoitza paradisu fiskaletan duten pertsonen edo entitateek egindako eragiketetan eta egoitza Espainiatik kanpora eramaten den kasuetan aplikatu beharreko balorazio arauak.

1. Egoitza paradisu fiskaletan duten pertsonen edo entitateek egindako eragiketak merkatuko balio normalarekin baloratuko dira, betiere horren ondorioz Nafarroako Ogasun Publikoari ordaindu beharreko zerga ez bada adosturiko balioa aplikatu

tuz gero egokituko litzaiekeena baino baxuagoa, edo zergaren ordainketa atzeratzen ez bada.

Aurreko lerrokadan adierazitako eragiketak egiten dituztenek foru lege honetako 28.2 artikuluan aipatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte, erregelamenduz ezarriko diren berezitasunekin.

2. Egoitza Espainian izanik, atzerrira eramaten duen entitate baten jabetzapekoak diren ondare-elementuen merkatuko balio normalaren eta kontabilitate-balioaren arteko diferentzia zerga-oinarrian sartuko da, salbu eta ondare-elementu horiek entitateak Espainian duen finkagune iraunkor bati atxikita gelditzen badira, izan ere, horrelakoetan, ondare-elementu horiei foru lege honen 135. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa Espainian dauden finkagune iraunkorrei atxikitako ondare-elementuei ere aplikatuko zaie, baldin eta jarduera uzten badute edo atzerrira transferitzen badituzte.”

Zazpi. 32. artikulua.

“32. artikulua. Merkatuko balioa finkatzeko metodoak. Jakinarazten diren errenten izaera. Prozedura.

1. Merkatuko balio normala finkatzeko, ondoko metodo hauetako bat aplikatuko da:

a) Prezio libre konparagarriaren metodoa. Loturiko pertsonen edo entitateen arteko eragiketa bateko ondasun edo zerbitzuaren prezioa pertsona edo entitate independenteen arteko eragiketa batean ondasun edo zerbitzu berdinetan edo antzekoak egoera parekagarrietan izanzen zuen prezioarekin konparatzen da, behar izanez gero, parekotasuna lortzeko behar diren zuzenketa eginda eta eragiketaren berezitasunak kontuan hartuta.

b) Kostu igoeraren metodoa. Ondasun edo zerbitzuaren erosketa-balioari edo ekoizpenaren kostuari pertsona edo entitate independenteen arteko eragiketa berdinetan edo antzekoetan ohikoa den marjina eransten zaio, edo, bestela, pertsona edo entitate independenteek eragiketa parekagarrietan aplikatzen duten marjina, behar izanez gero, parekotasuna lortzeko behar diren eragiketak eginda eta eragiketaren berezitasunak kontuan hartuta.

c) Birsalmentaren prezioaren metodoa. Ondasun edo zerbitzu baten salmentako prezioari birsaltzaileak pertsona edo entitate independenteekin egiten dituen eragiketa berdinetan edo antzekoetan aplikatzen duen marjina kentzen zaio, edo, bestela, pertsona edo entitate independenteek eragiketa parekagarrietan aplikatzen duten

marjina, behar izanez gero, parekotasuna lortzeko behar diren eragiketak eginda eta eragiketaren berezitasunak kontuan hartuta.

2. Eragiketa edo horien gaineko informazioa hain konplexua baldin bada non horrelako metodoarik aplikatzea ezinezkoa den, ondoko metodoak aplikatzen ahalko dira eragiketaren merkatuko balioa finkatzeko:

a) Emaizta banatzeko metodoa: eragiketa bat edo gehiago egiten dituen pertsona edo entitate lotu bakoitzari eragiketa horretan edo horietan lortutako emaitza komunaren zatia esleitzen zaio, pertsona edo entitate independenteek antzeko egoeretan adostuko lituzketen baldintzak egoki bilzen dituzten irizpideak erabiliz.

b) Eragiketa guztien marjina garbiaren metodoa: pertsona edo entitate lotu batekin egindako eragiketei subjektu pasiboek edo hirugarrenek alderdi independenteekin egindako eragiketa berdinetan edo antzekoetan lortuko zuten emaitza garbia esleitzen zaie, kostuen gainean, salmenten gainean edo eragiketen ezaugarrien arabera egokien den beste magnitude baten gainean kalkulatu, eta, behar izanez gero, parekotasuna lortzeko behar diren eragiketak eginda eta eragiketaren berezitasunak kontuan hartuta.

3. Adosten den balioa merkatuko balio normala bezalakoa ez bada, bi balioen arteko diferentziak pertsona edo entitate lotuentzat izanzen duen tratamendu fiskala diferentzia horren ondorioz jakinarazten diren errenten izaerari dagokiona izanzen da.

Zehazki, lotura bazkide edo partaideen eta entitatearen arteko harremanetan oinarritzen den kasuetan, balioen arteko diferentzia bazkidearen edo partaidearen aldekoa baldin bada, entitatearen duten partaidetzaren ehuneko zenbatekoa den, diferentziaren ehuneko hori bera entitateetako mozkinen partaidetza gisa hartuko da, eta bestela, diferentzia entitatearen aldekoa bada, bazkideak edo partaideak entitatearen funts berekietara egiten duen ekarpen gisa hartuko da.

4. Lorturiko eragiketen merkatuko balio normala egiaztatzeke, arau hauei jarraikiz arautuko da erregelamendu bidez:

1.a. Balioa egiaztatzea, egiaztatu beharreko tributu egoeran tributuduna nor den, horrexen gainean irekitako prozeduraren barrenean eginen da. Hurrengo lerrokadan xedatzen dena deusetan galarazi gabe, jarduketak tributudun horrengan eta ez beste inorengan izanzen ditu ondorioak.

2.a. Balioa zuzendu ondoren egindako behin-behineko likidazioaren kontra, tributudunak erre-

kurtso edo erreklamazioa aurkezten badu edo alde biko perituen tasazioa eskatzen badu, horren berri emanen zaie loturik dauden gainerako pertsona edo entitateei, prozeduran agertu eta egoki iruditzen zaizkien alegazioak aurkezteko.

Ezarrita dauden epeak tributudunak errekurtsio edo erreklamaziorik aurkeztu gabe edo perituen tasazioa eskatu gabe bukatu, balorazioa loturik dauden gainerako pertsona edo entitate ukituei jakinaraziko zaie, nahi dutenek perituen tasazioa eskatu edo bidezko errekurtsio edo erreklamazioa aurkezteko, bateraturik betiere. Errekurtsioa edo erreklamazioa jarritz gero edo perituen aldeko tasazioa eskatuz gero, Zerga Administrazioak tributudunari dagozkion likidazioak egiteko eskubidea preskribituko da eta epea berriz hasiko da Administrazioak egindako balorazioa irmo bilakatzeko denean.

3.a. Likidazioan agertzen den balorazioa irmo bilakatzeak merkatuko balioaren eraginkortasuna eta indarra ekarriko du loturik dauden gainerako pertsona eta entitateentzat. Zerga Administrazioak behar diren zuzenketak eginen ditu, erregelamen-
duz ezarriko den bezala.

4.a. Idatz-zati honetan ezarritakoa balorazioa zuzentzearen ondorioz ukitzen diren pertsona eta entitate lotu guztiei aplikatuko zaie, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo badira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen finkagune iraunkor.

5.a. Idatz-zati honetan xedatutakoak ez du galaraziko barne-legedian txertatu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan ezarrita dagoena aplikatzea.”

Zortzi. 38.3. artikulua.

“3. Subjektu pasiboek 1. zenbakian ezarritako koefizientearen orde besterik bat aplikatzeko proposamena egiten ahalko diote Aerga Administrazioari, foru lege honen 30. artikuluan finkatutako moduan.

Proposamenaren oinarria subjektu pasiboak berarekin loturik ez dauden pertsona edo entitateekin merkatuko baldintza normaletan izan zezakeen zorpetzea izanen da.

Zenbaki honetan ezarritakoa ez da aplikatuko egoitza paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo eskualdeetan duten pertsona edo entitateekin egindako eragiketetan.”

Bederatzi. 50.1. artikulua.

“1. Hauek dira karga-tasa orokorrak:

a) 100eko 32,5.

b) 100eko 28, enpresa txikientzat.

Honako baldintza hauek betetzen dituztenak hartuko dira enpresa txikitat:

a') Aurre-aurreko zergaldian izandako negozio-zifren zenbateko garbia 9 milioi eurotik beherakoa izatea.

Enpresa sortu berria bada, aintzat hartuko den negozio-zifren zenbatekoa jarduera benetan egiten den lehenbiziko zergaldikoa izanen da. Aurre-aurreko zergaldia urtebetetik beherakoa izan bada edo jarduera urtebetetik beherakoa izan bada, negozio-zifren zenbateko garbia urte osora proiektatuko da.

Enpresa sozietate multzo bateko partaide bada, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, negozio-zifren zenbateko garbia multzo horretako entitate guztiena izanen da. Irizpide hori erabiliko da, orobat, pertsona fisiko bat, bere kabuz edo bere odol edo ezkontza bidezko bigarren maila arteko ahaide zuzen edo alboko diren beste subjektu pasiboekin batera, bazkide diren beste entitate batzuekin harremanei dagokienez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatzen diren kasuetako batean baldin badago.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioetarako, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritzen diren kasuak urteko kontu bateratuak egiteko neurriak onetsi zituen abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuaren I. kapituluko I. atalean biltzen direnak izanen dira.

Enpresak enpresa-ondare osoa edo jarduera atal bat erosi badu, entitate eroslearen negozio-zifren zenbatekoa kalkulatzeko, zenbateko horri entitate saltzailearen zifren zenbatekoa erantsiko zaio edo zergaldi berean jarduera atal horri dago-kiona.

b') Aurreko a') letran adierazitako baldintza betetzen ez duten entitateek ez izatea enpresaren 100eko 25etik gorako partaidetza, ez zuzenean, ez zeharka, salbu eta kapital-arriskuko Funtsak edo Sozietateak badira edo enpresak sustatzeko sozietateak, eta partaidetza entitate horien xede soziala betetzearen ondorioa bada.

Ez dira inolaz ere enpresa txikitat joko Espainia eta Europako interes ekonomikoko elkarleen eta aldi baterako enpresa batasunen araubide berezipeko entitateak.

b) letran xedatutakoa gorabehera, aurre-aurreko zergaldiko negozio-zifren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo gutxiagokoa izan denean karga-tasa 100eko 30ekoa izanen da.”

Hamar. 50.3. artikulua.

“3. Ondoko hauek 100eko 18ko zerga ordainduko dute:

a) Zerga arloan babestuak dauden sozietate kooperatiboak, kooperatibatik kanpoko emaitzei dagokienean izan ezik, emaitza horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutukoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

b) Martxoaren 24ko 4/1997 Legeak araututako Lan Sozietateak, baldin eta lortzen dituzten mozkinen 100eko 25 bederen Erreserbako Funts Bereziara sartzen badute, salbu sozietatearen jarduera berariazkoei atxikirik ez dauden ondare-elementuetatik ateratzen diren errentei dagokienean, horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutukoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Hala behar izanez gero, kontabilitatearen emaitza negatiboa denean eta oinarri likidagarria positiboa, 100eko 18ko zerga tasa aplikatuko da.”

Hamaika. 59.4.c).a`) artikulua, bigarren lerroka-da.

“Zerbaki honetako a`) letran aurreikusitako kasuan, partaidetzaren jabe ziren aurreko entitateek eskualdaketaren ondorioz lorturiko errentei balioen eskualdaketetan berriro inbertitzeko kenkaria aplikatu baldin bazaie, kenkaria dibidenduaren edo irabazietako partaidetzaren 100eko 9koa izanen da, 1. zerbakian xedatutakoa aplikatzekoa bada, eta 100eko 18koa, 2. zerbakian xedatutakoa aplikatu behar bada.”

Hamabi. 59.4.c).b`) artikulua, bigarren lerroka-da.

“Zerbaki honetako b`) letran aurreikusitako kasuan, kenkaria hauxe izanen da: dibidenduari edo irabazietako partaidetzari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan erabili zen karga-tasa bera aplikatzearen ondorioz ateratzen dena. Karga-tasa hori ezin izanen da zerga hartako zerga-oinarriaren zati berezian sartutako ondaregehikuntzei dagokiena baino handiagoa izan, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eskualdaketetan.”

Hamahiru. 61.2. artikulua.

“2. Egiaz ordaindutako zergatzat hartuko dira, orobat, dibidendua banatzen duen sozietateak zuzenean ordezkatzan dituen entitateek ordainduak eta, orobat, haiek zuzenean ordezkatzan dituztenek ordainduak, eta horrela hurrenez hurren, dibidenduak ordaintzeko bide eman zuten etekinei egozten ahal zaien zatian, betiere partaidetza 100eko 5etik beherakoa ez bada eta 1. zerbakian

partaidetzaren iraunaldiari dagokionez ezarritako baldintza betetzen badute.”

Hamalau. 68. bis 1 artikulua.

“1. Subjektu pasiboak langileentzat emandako enpresa-kontribuzioen 100eko 10 kentzen ahalko du kuota likidotik, langile horiei urteko 27.000 euro baino gutxiagoko lansari gordinak ematen badizkie eta kontribuzio horiek egiten badira enplegu pentsio planetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan araututako planetarako, edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitatearako, hauek enpresaren gizarte-aurreikuspeneko tresnak izanik eta subjektu pasiboa haien sustatzailea delarik. Kenkaria izateko eskubidea emanen dute, halaber, Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginean (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan) jasotzen diren pentsio planen estalduren baliokideak diren horietarako enpresek egiten dituzten kontribuzioek, bai eta pentsio sortuek ere, baldin eta aipatu testu bateginean xedatutako moduan gauzatu badira.”

Hamabost. 70. bis artikulua.

“70. bis artikulua. Balioen eskualdaketetan berrinbertitzeagatiko kenkaria.

1. Baloreen kostubidezko eskualdaketan lortutako errenta positiboen zenbatekoaren 100eko 15 kenduko da kuota osotik, errenta horiek karga tasa orokorraren mendeko zerga-oinarrian sartuta badaude, eta betiere eskualdaketa horien dirua artikulua honetan xedatu bezala berrinbertitzen bada, hemen ezarritako baldintzak beterik. Artikulu honetan aurreikusten ez den orotarako, 36. artikuluan xedatua aplikatuko da, 4 zerbakia izan ezik.

Kenkari hori 100eko 13koa, 100eko 10ekoa eta 100eko 3koa izanen da, zerga-oinarrian sartutako errentak 100eko 28ko, 100eko 25eko eta 100eko 18ko tributu-tasak dituenean, hurrenez hurren.

2. Kenkaria izateko eskubidea dakarren errenta sortzen ahal duten balore eskualdatuak dira edonolako entitateen kapitalean eta fondoetan partaidetza izatearen erakusgarri direnak, entitate horiek bere kapital sozialaren 100eko 15 baino txikiagoa ez den partaidetza ematen dutelarik, eta eskualdatu baino gutxienez urtebete lehenago izan direla eskuan.

Eskuan noiztik izan diren kalkulatzan, balore eskualdatuak eroslearen eskuan denbora gehien egin dutenak direla ulertuko da.

Partaidetza eskualdatuaren kalkulua zergaldiari dagokio.

3. Kenkaria dakarren errenta sortu duen eskualdaketan lortutako zenbatekoa ondareko elementu hauetan berrinbertitu behar da:

a) Ibilgetu materialekoak edo ez materialekoak, entitatearen ustiapen ekonomikoaren garapenari lotuak.

b) Edonolako entitateen kapitalean eta fondoe-tan partaidetza izatearen erakusgarri diren balioak, entitate horiek euren kapital sozialaren 100eko 15 baino txikiagoa ez den partaidetza ematen badute.

Zenbaki honetan eta aurreko 2 zenbakian ez dira ondorengo balore hauek sartzen:

a`) Kapital sozialean edo funts berekietan partaidetza ematen ez dutenak.

b`) Espainian egoitzarik ez duten entitateen kapital sozialean edo funts berekietan partaidetza izatearen erakusgarri direnak, horien errentek ezin badezakete foru lege honen 62. artikuluan ezarritako salbuespenik jaso.

c`) Finantza-izaerako inbertsio kolektiboko erakundearen erakusgarri direnak.

d`) Jarduera nagusitzat ondare higigarri edo higiezinaren baten kudeaketa duten entitateen erakusgarri direnak, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan aurreikusi bezala.

e`) Entitate zenbaiten erakusgarri direnak, zeinen aktiboaren erdia baino gehiago ibilgetu material edo ez-materialtzat jotzen ez diren edo b) letran eta aurreko 2. zenbakian bildu gabeko baloretzat jotzen ez diren ondare-elementuez osatua baitago. Magnitude horiek partaidetza eskualdatzen edo eskuratzen den ekitaldiko eta aurreko bi ekitaldietako balantze onetsien arabera zehaztuko dira.

Berrinbertsioa egingabekotzat hartuko da erosketa talde bereko entitateen arteko eragiketen bidez egin baldin bada, foru lege honen 28. artikuluari jarraikiz, foru lege honen X. tituluko IX. kapituluaren ezarritako araubide bereziari lotuak direnean. Halaber, berrinbertsioa egingabekotzat hartuko erosketa talde bereko entitate bati egin bazaio, foru lege honen 28. artikuluari jarraikiz, ibilgetu material berriko elementuak direnean izan ezik.

4. Edonolako entitateen kapitalean edo funts berekietan partaidetza izatearen erakusgarri diren baloreen bi eskualdaketa edo gehiago egin direne-

an zergaldian, zergaldia bukatzen denean hasiko da kontatzen berrinbertitzeko epea.

5. Kenkariaren oinarria da artikuluko honetako 2. idatz-zatian aipatu baloreen eskualdaketan lortu eta zerga-oinarrian sartu den errentaren zenbatekoa. Kenkari horren oinarria kalkulatzeko ez besterako, eskualdaketaren balioak ezin izanen du merkatuko balioa gainditu.

Eskualdaketan lortutako errenta horretan ez da sartzen baloreen probisioen zenbatekoa, probisio-etarako dotazioek kenketa fiskala zekarten neurrian.

Kenkariaren oinarrian ez da sartuko eskualdaketan lortutako errentaren zati hau: ezarpen bikoi-tzagatik kenkaria egiteko eskubidea sortu duena.

Baloreen eskualdaketan lortutako errentaren zati bat -etorkizunean erosi edo erabiliz gero gastu kengarriak sortzen dituena hain zuzen ere- kenkariaren oinarrian sartzen baldin bada, ez da gastu horien gaineko kenkaririk aplikatu ahal izanen, gastu horiek sortzen diren ekitaldia zein ere den. Subjektu pasiboak aukeran izanen du berrinbertsioagatik kenkarira edo gastu horiengatik kenkarira atxiki. Orduan, kenkari hori egiteko eskubidearen galera foru lege honetako 81.3 artikuluan ezarritako moduan arautuko da.

Eskualdaketan lortutako zenbatekoa baino kopuru txikiagoa berrinbertitzen bada, artikuluko honetan ezarritako kenkaria egiteko eskubidea izanen da, eta kenkariaren oinarria izanen da berrinbertitu kopuruari proportzioz dagokion errentaren zatia.

6. Berrinbertitzen deneko zergaldiko kuota osoan aplikatuko da kenkaria. Eskualdaketa egin baino lehenago berrinbertitu bada, eskualdaketa egiten deneko zergaldiko kuota osoan aplikatuko da kenkaria.

7. Aurreko 1 zenbakian ezarritako 100eko 15eko kenkari portzentajea 100eko 17,5ekoa izanen da, kenkaria egiten den zergaldia edozein dela ere, 2007. urtean barrena hasitako zergaldien zerga-oinarrian sartzen diren errententzat.

8. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldien zerga-oinarrian sartutako errenten kasuan, berrinbertsioarengatik kenkaria artikuluko honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, 2006ko abenduaren 31n indarra izanen duen idazkerari jarraikiz, kenkaria egiten den zergaldia edozein dela ere.”

Hamasei. 104 artikulua, bigarren lerrokada.

“Jarduera nagusitzat ondare higigarri edo higiezinaren baten kudeaketa duten sozietateen kasuan,

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1 artikuluan aurreikusitako moduan, zenbatu beharreko eskualdaketa balioa zergaren sorrarazpen egunaren aurretik itxitako azken balantzearen ondoriozko teorikoa izanen da gutxienez, behin aktiboen kontabilitate balioa Ondarearen gaineko zergaren eraginetarako izanen luketen balioaz edo merkatuan izanen luketen balioaz, hori txikiagoa izanez gero, ordeztu ondoren.”

Hamazazpi. 109. artikulua quater.

“109. artikulua quater. Aplikazio eremua

1. Kapitulu honetan jasotzen den araubidera bil-tzea zilegi dute jarduera ekonomiko nagusitzat Espainiako lurraldean dauden etxebizitzak erren-tan ematea duten sozietateek. Jarduera bakartzat hori izateak ez du galarazten errentamendurako negozio-lokaletan eta garaje-plazatan, etxebizitza-ren eranskin gisa lagatutakoak ez direnetan, inber-tzioak egitea, baldin eta haien kontabilitate balioak gainditzen ez badu entitatearen etxebizitza-inber-tzioen balio osoaren 100eko 100. Era berean, ez du galarazten salmentarako lokal komertzialetan eta haiei eratzikitakoetan inbertzioak egitea, betie-re higiezin horien azalera erabilgarrien batura ez bada proportzioko azalera osoaren, zeinen parte bat baitira, 100eko 20 baino gehiago. Higiezin hori-en azalera erabilgarria azaltzen ez bada, azalera erabilgarria eraikitako azaleraren 100eko 85 dela ulertuko da.

Araubide berezi honen aplikaziorako, etxebizi-tza-errentamendutzat ulertuko da soil-soilik Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2.1. artikuluan definitzen dena, betiere lege hartan etxebizitza-errentamenduetako kontratueta-rako ezarritako beharkizun eta baldintzak betetzen badira.

Etxebizitzekin parekatuko dira besteak beste altzariak, trastegelak, garajeko plazak, bi gehienez ere, eta edozein motatako dependentsiak, erren-tan emandako eremuak edo finkaren eranskin gisa lagatutako zerbitzuak, salbu eta negozioko lokalak, betiere batzuek eta besteak etxebizitzarekin batera jartzen badira errentan.

2. Kapitulu honetan araututako araubide fiskal berezia aplikatuko bada, honako beharkizunak bete behar dira:

a) Errentan emandako edo eskainitako etxebi-zitzen kopurua hamar edo hortik gora izatea beti.

b) Etxebizitza bakoitzeko azalera erabilgarria 120 metro koadro baino gehiagokoa ez izatea.

c) Etxebizitzak errentan emanak edo eskainiak zazpi urtez bederen irautea. Epe hori honela kon-tatuko da:

a) Araubideari lotu aurretik entitatearen onda-rean ageri diren etxebizitzen kasuan, araubideari lotzeko aukera jakinarazten deneko zergaldiaren hasierako egunetik beretik, betiere egun horretara-ko etxebizitza errentan emana baldin badago. Bes-tela, ondorengo b) azpiletran xedatutakoari jarrai-tuko zaio.

b) Entitateak geroago erosi edo sustatutako etxebizitzen kasuan, entitateak lehenbiziko aldiz errentan emandako egunetik beretik.

Etxebizitza bakoitzerako baldintza hori ez bete-tzeak egokitzen ahal zen hobariaren galera ekarri-ko du. Ez betetze hori gertatu zen zergaldiko kuotarekin batera araubide berezi hau aplikagarri gertatu izandako zergaldi guztietan aplikatutako hobarien zenbatekoa ere ingresatu beharko da, kasu bakoitzean bidezko diren zehapenak, erre-karguak eta berandutza korrituak galarazi gabe.

d) Ondasun higiezinak sustatu eta errentan jar-tzeko jarduera erosi edo sustaturiko ondasun higi-ezin bakoitzerako kontabilitate bereziaren xede izatea, eta hura banaturik dagoeneko etxebizitza, lokal edo erregistroko finka bakoitzari dagokion errenta ezagutzeko behar den xehekapena egitea.

3. Araubide horren aldeko aukera egin dela Zerga Administrazioari jakinaraziko zaio. Araubide fiskal berezia jakinarazpen horren ondoren buka-tzen den zergaldian aplikatuko da eta, orobat, araubideari uko egin zaiola Zerga Administrazioari jakinarazi aurretik bukatzen diren zergaldietan.

4. Entitateari aplikagarri bazaio X. titulu hone-tan jasotako araubide berezietako edozein, kon-tsolidazio fiskalekoa, nazioarteko gardentasun fis-kalekoa eta bat-egiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen eta baloreen trukearenak izan ezik, ezin izanen du hautatu V. kapitulu honetan arau-tzen den araubidea.

5. Araubide honen aplikazioak ez du galarazten berrinbertzioagatik salbuespena, betiere foru lege honetako 36. Artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan, nahiz eta berrinbertzioaren xede diren ondare osagaiek bost urteko epean halaxe iraun beharko duten.

Salbuespen honetaz baliatu ahal izateko, beha-rrezkoa da etxebizitzak gutxienez bost urterako errentan emanak izatea babes ofizialeko edo babestutzat kalifikatuak ez diren etxebizitzen kasu-an eta gutxienez gero etxebizitzak errentariei sal-mentan eskaini ahal izateko arau aplikagarrietan

ezarritako eperako, babes ofizialeko edo babestutzat kalifikaturiko etxebizitzak kasuan.”

Hemezortzi. 109. artikulua quinquies.

“109. artikulua quinquies. Hobariak

1. Aurreko artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen dituzten entitateek honako hobariak balia ditzakete kuota osoan:

a) Etxebizitzen errentamendutik sortutako etekinei dagokien kuota osoaren 100eko 85, aurreko artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira betiere.

Aipatu hobaria 100eko 90 izanen da ezgaitasunak dituztenek etxebizitzak errentan hartzearen ondorioz sortutako errentak direnean eta etxebizitza horietan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 62.1.f) artikulua aipatzen dituen egokitzapen obrak eta instalazioak egin badira. Obra eta instalazio horiek Administrazio eskudunaren ziurtagiria beharko dute, arestian aipatu den 62.1.f) artikuluko a) azpiletran ezarritakoaren arabera.

Ondorio horietarako, errentariak bere ezgaitasuna frogatu beharko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian aurreikusitako moduan.

b) Errentamendutik sortutako etekinei dagokien kuota osoaren 100eko 97, baldin eta aurreko artikuluan ezarritako beharkizunaz gain honako hauek ere betetzen badira.

1.a. Entitateak errentan eman edo eskainitako etxebizitzak babes ofizialekotzat kalifikatuak edo babestutzat deklaratuak ez badira:

– Errentariak hasierako urtean ordaindu beharreko errentak ez dezala gainditu errentatzeko etxebizitza babestuen legezko gehieneko salmenta-prezioari 100eko 6 aplikatuz sortzen den emaitza.

– Errentan eman edo eskainitako etxebizitzak errentamendu kontratuan sartua izatea errentariaren erosketa-aukera. Aukera-eskubide hori errentamenduaren hasieratik bost urte iragandakoan balia daiteke, gehienez ere bi urteko epean, errentamendu kontratuak indarrean badirau betiere. Horretarako, errentariak bi urte gehigarri horietara bitarte luza dezake kontratua.

2.a. Entitateak errentan eman edo eskainitako etxebizitzak babes ofizialekotzat kalifikatuak edo babestutzat deklaratuak badira, etxebizitzak errentamendu kontratuan sartua izatea errentariaren erosketa-aukera.

Aukera-eskubide hori baliatzeko, gehienez ere sei hilabete daude, errentariei etxebizitzak salmentan eskaini ahal izateko arau aplikagarrietan ezarritako epea bete ondoren, errentamendu kontratuak indarrean badirau betiere. Horretarako, errentariak sei hilabete gehigarri horietara bitarte luza dezake kontratua.

2. Errentamenduak emandako etekina, hobaria izan dezakeenetakoa bada, honela osatuko da etxebizitza bakoitzaren kasuan: eskuratutako dirusarrera, ken dirusarrera hori lortzeko zuzeneko gastuak eta gastu orokorretatik dirusarrera horri proportzioan dagokion zatia.

Foru Lege honen 17. artikuluan aipatzen den errentamendu finantzarioko kontratuen bidez erositako etxebizitzak kasuan, hobaria hartzen duen errenta kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko artikuluko horretan xedatutakoa aplikatuz ondorioztatzen diren zuzenketak.

3. Artikulu honetako 1 zenbakian jasotako hobariak bateraezinak dira beren artean errenta beretarako, eta, hala bada, zerga honetako arautan jasotako gainerako hobariak aplikatu ondoren baliatuko dira.

4. Aurreko 1 zenbakian ezarritako hobaria aplikatu zaien errenten kargura banatutako dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei kenkaria aplikatuko zaie, foru lege honen 59. artikuluko 1 zenbakian araututako zergapetze bikoitza saihesteko, edozein dela ere entitate banatzailea, banaketa egiten den momentua eta entitateari aplikatzen ahal zaion araubide fiskala. Mozkin horiek ez dira deuseztuko entitateak bere zergak kontsolidazio fiskaleko araubidean ordaintzen baditu. Horretarako, banatzen den lehenengo mozkin hobaririk gabeko errentetatik heldu dela ulertuko da.

Foru lege honen 59.5 artikulua araubide fiskal hau aplikatu duten entitateen kapitalean partaidetzak eskualdatzetik ateratako errentei (banatu ez diren hobaridun mozkinetatik heldu diren erreserbei buruzkoak) aplikatzearen ondoriozko kenkaria 100eko 50 murriztuko da, edozein dela ere partaidetzak eskualdatzen zaizkioneko entitatea, eskualdaketa egiten den momentua eta entitateei une horretan aplikatzen ahal zaien araubide fiskala. Errenta horiek ez dira deuseztuko eskualdaketa talde fiskal bateko barneko eragiketa bat denean.

5. Aurreko zenbakiko b) letrak aipatzen duen erosketa-aukera onartzeak ez du errentaria behartuko inolako kontraprestaziorik ordaintzera eta aukera hori erabiltzeko prezioa zehaztu beharko da, eta aukera horretaz baliatzea beti izanen da borondatezkoa. Inola ere ez daiteke hizbatu errentaria, aukera-eskubideaz baliatzen ez bada,

errentatzaileari inolako kalte-ordainik ordaintzera behartuta dagoenik.”

Hemeretzi. 111.1 artikulua

“1. Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeek ez dute eskubiderik izanen ez kuotan inolako kenkaririk egiteko ez zerga-oinarrian errentagatiko salbuespenik izateko, non eta ez dauden karga-tasa orokorraren menpe, nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditea helburu.”

Hogei. 117.2.e) artikulua.

“e). Interes ekonomikoko elkartean, espainiar zein europarren, nahiz enpresen aldi baterako batasunen araubide bereziaren menpekoa ez izatea.”

Hogeita bat. X. tituluko IX. kapituluaren errubrika aldatu da.

“IX. KAPITULUA

Europar sozietate bateko edo europar sozietate kooperatibo bateko bat-egiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen, baloreen trukearen eta helbide soziala Batasuneko kide den Estatu batetik bestera aldatzeko araubide berezia”

Hogeita bi. 133.2 artikulua.

“2. 1.a. Ondorengo letretan aipatzen direnak banaketak izango dira:

a) Entitate batek, likidaziorik gabeko desegitearen ondorioz, bere ondare sozial guztia bi edo zati gehiagotan zatitu, eta zati hauek aurretik badiren edo eta berriak diren beste sozietate bat edo batzuei eskualdatzen dizkienean, eskualdatze hori sozietateen bazkideei, proportzionaltasunaren irizpidearen arabera, ekarpena hartzen duten beste entitate horien kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak ematearen bidez egiten denean, eta, hala balitz, balio nominalaren 100eko 10 baino handiagoa ez den diru-konpentsazioaren bidez. Balio nominalik ez bada, balore horien balio nominala kontabilitatetik ondorioztatzen denaren parekoa izanen da.

b) Erakunde batek jarduera-adarrak osatzen dituen bere ondare sozialaren zati bat edo batzuk zatitzen dituenean, eta blokean eskualdatzen denean aurretik dauden edo berriak diren bi erakunderi edo gehiagori eta horren trukean, azken hauen kapital sozialaren ordezkagarri diren baloreak eta, hala bada, aurreko letran ezarritakoaren arabera diru-konpentsazioa hartzen dituenean, berauen partaidetzaren arabera bazkideei eman beharko dizkielarik, kapital soziala eta erreserbak derrigorrezko zenbatekoan gutxituz.

c) Entitate batek bere ondare sozialaren zati bat zatitzen duenean, zati hori beste entitate batzuen kapital sozialaren gehiengoa egiten duten partizipazioz osatua badago, baldin eta zati hori beste entitate bati -sortu berria edo aurretik baze goena- eskualdatzen dionean, eta horren trukean entitate eskuratzailaren kapitalaren balore adierazgarriak hartzen dituenean; hartutako balore horiek bere bazkideei egotzi beharko dizkio, bakoitzak zer partaidetza duen horren arabera, eta kapital soziala eta erreserbak behar den neurrian murriztuko dira, eta, hala badagokio, diru-konpentsazio bat eman beharko zaie bazkideei aurreko a) letran azaldu moduan.

2.a Bi entitate erosle edo gehiago daudenean, desegiten den entitateko bazkideei entitate eroslearen kapitaleko balore adierazgarriak desegiten den sozietatean zuten proportzio ezberdinean emateko, beharrezkoa izanen da haiek eskuratutako ondareak jarduera-adarrak izatea.”

Hogeita hiru. 133.5 artikulua.

“5. Kapital sozialaren balore adierazgarrien truketat joko da hurrengo eragiketeta, hots: entitate batek boto-eskubideen gehiengoa lortzeko bidea emanen dion beste baten kapital sozialaren partaidetza eskuratzen du euren baloreen trukean lehengo entitatearen kapital sozialaren beste balore adierazgarri batzuk bere bazkideei emanez, eta, hala bada, balio nominalaren 100eko 10etik gorakoa ez den diru-konpentsazio bat. Balio nominalik ez bada, balore horien balio nominala kontabilitatetik ondorioztatzen denaren parekoa izanen da.”

Hogeita lau. 6 eta 7 zenbaki berriak eranstea 133. artikuluari.

“6. Kapitulu honetan aurreikusitako zerga-arau bidea berdin aplikatuko da europar sozietate edo europar sozietate kooperatibo baten helbidea Europar Batasuneko kide den Estatu batetik beste batera aldatzeko eragiketetan, Espainiako lurraldean dauden ondasunei eta eskubideei dagokienez, baldin eta aipatu lurraldean finkagune iraunkorra izan ondoren ukituak gertatzen badira. Ondorio horietarako, araubide berezi honetan ondasunen eta eskubideen eskualdatze kasuetarako aurreikusitako arauak helbide soziala aldatzeko eragiketetan ere aplikatuko dira, eskualdaketa horietarako bide ematen ez badute ere.

7. Kapitulu honetan ezarritako araubidea aplikagarria izanen da, baita ere, merkataritza-sozietateen izaera juridikoa ez duten eta zerga hauen menpe dauden subjektu pasiboek esku hartzen duten eragiketetan, baldin eta aurreko zenbakietan aipatzen diren eragiketen ondorioz ateratzen diren bezalako emaitzak sorrarazten badituzte.”

Hogeita bost. 134.1.d) artikulua.

“d) Egoitza Espainiako lurraldean duten entitateek Europako Komunitateko kideak diren estatuen lurraldeetan kokatutako finkagune iraunkorrak bertan egoitza duten entitateei eskualdatzeagatik agerian geratzen direnak, Europar Batasuneko kide diren Estatuetako sozietateen arteko bat egiteei, zatiketei, zatiketa partzialei, aktiboen ekarpenei eta akzioen trukeei eta, orobat, europar sozietate edo europar sozietate kooperatibo baten helbidea Europar Batasuneko kide den Estatu batetik beste batera aldatzeari buruzko eragiketetan ezarri beharreko araubide fiskal komunari buruzko 1990eko uztailaren 2ko 90/434/EE Zuzentarauaren Eranskinean zehaztutako formaren bat dutenak eta berorren 3. artikuluan aipatutako zergaren bati loturik eta salbuespenik gabe daudenak.

Zerga-oinarrian ez dira sartuko aurreko a), b) eta c) letretan aipatutako eragiketen ondoriozko errentak, baldin eta entitate eroslea zerga honetatik salbuetsirik edo errenta-egozpenaren araubidearen menpe badago.

Zerga-oinarritik salbuetsiko dira zenbaki honetan aipatutako eragiketetatik eratorritako errentak, nahiz eta entitate eskuratzaila karga tasa edo zerga-araubide bereziaren onuraduna izan. Entitate eskuratzailaren onura den karga tasa edo zerga-araubide berezia eta eskualdatzailaren diferentiek direnean, forma juridiko diferentiek dituztelako, eragiketa egin denean dauden ondare elementuak eskualdatzeagatik, eragiketa izan eta gero, eratorritako errenta era linealean sortu dela ulertuko da, kontrako frogarik ez badago, eskualdatutako elementua edukitzen den denboran. Errenta horretatik eragiketa egin arte sortutako zatiari ezarriko zaizkio entitate eskualdatzailari legezkiokkeen karga tasa eta zerga-araubidea.”

Hogeita sei. 137.1 artikulua.

“1. Balore-trukea dela eta, agirian geratzen diren errentak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo zerga honen zerga-oinarrian sartuko, betiere ondorengo baldintza hauek betetzen baldin badira:

a) Balore-trukea burutzen duten bazkideek egoitza Espainiako lurraldean, Europar Batasuneko kide den estatuen batean, edota beste edozein estatutan izatea, betiere, azken kasu honetan, jasotako baloreek egoitza Espainian duen entitate baten kapital sozialaren ordezkagarriak direnean.

Bazkidea errenta-egozpeneko araubideko entitatetzat hartzen bada, baloreen esleipen horrek sortutako errenta ez da bazkide horren bazkide,

oinorde, komunero edo partaide diren pertsonen edo entitateen zerga-oinarrian sartuko, baldin eta eragiketari kapitulu honetan ezarritako zerga-araubidea aplikatzen ahal bazaio edo 90/434/EEE Zuzentarauaren babesean egiten bada, eta bazkideak jasotako baloreek aldatutakoek zuten zerga-balorazioari eusten badiote.

b) Baloreak eskuratzen dituen entitateak egoitza Espainiako lurraldean izatea edo, bestela, 434/90/EE Zuzentarauaren ezarpen eremuan egoitea.”

Hogeita zazpi. 138.1 artikulua.

“1. Entitate erosleak entitate eskualdatzailaiko bazkideei baloreak egoztearen ondorioz ageri diren errentak ez dira zerga-oinarrian sartuko baldin eta bazkide horiek Espainiako lurraldeko edo Europar Batasuneko kide den beste Estatu bateko egoiliar badira eta azken kasu horretan, baloreak egoitza Espainian duen entitate baten kapital sozialaren adierazgarriak badira.

Bazkidea errenta-egozpeneko araubideko entitatetzat hartzen bada, baloreen esleipen horrek sortutako errenta ez da bazkide, oinorde, komunero edo partaide diren pertsonen edo entitateen zerga-oinarrian sartuko, baldin eta eragiketari kapitulu honetan ezarritako zerga-araubidea aplikatzen ahal bazaio edo 90/434/EEE Zuzentarauaren babesean egiten bada, eta bazkideak jasotako baloreek aldatutakoek zuten zerga-balorazioari eusten badiote.”

Hogeita zortzi. 142. artikulua.

“142. artikulua. Finkagune iraunkorren galerak.

Finkagune iraunkor bat eskualdatzen denean, eta foru lege honetako 134. artikuluko 1. zenbakiko c) letretan ezarritako araubidea aplikatzen denean, Espainiako lurraldean egoitza duten entitate eskualdatzailaren zerga-oinarria gehitu egingen da, finkagune iraunkorrak egotzitako errenta positiboaren gaineko errenta negatiboaren soberakina adina.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaz gain, errenta positibo horrek foru lege honen 60. bis artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, aipatutako soberakina gainditzen duen errentaren zenbatekoa entitate eskualdatzailaren zerga-oinarrian sartuko da, deusetan galarazi gabe, 90/434/EEE Zuzentarauko xedapenengatik ez balitz, finkagune iraunkorra dagoen estatu kidean zerga-oinarrian sartutako errenta hori zergapetuko zukeen zerga kuota osotik kentzeko aukera.”

Hogeita bederatz. 144.1.c) a) artikulua.

“a) Ordezkatzen duen kapital soziala izan dadila egoitza Espainiako lurraldean duen entita-

tea, aplikagarri ez zaiona foru lege honetan aurreikusitako interes ekonomikoko elkartean, espainiar zein europarren, enpresen aldi baterako batasunen eta ondare sozietateen araubide berezia. Halaber, haren jarduera nagusia ez dadila izan ondare higigarri edo higiezinaren baten kudeaketa, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1 artikuluan aurreikusitako moduan, eta ez ditzala bete foru lege honetako 147.1 artikuluan laugarren lerroka-dan ezarritako gainerako baldintzak.”

Hogeita hamar. 146.1 artikuluko c) letraren azken lerrokada kendu eta d) letra gehitzea artikuluan horretako 1. zenbakiari.

“d) Europar Sozietate edo Europar Sozietate Kooperatibo baten helbidea Europar Batasuneko kide den estatu batetik beste batera aldatzeko eragiketetan, aukera sozietate-helbidea Espainiatik beste estatu kide batera aldatzen duen sozietatearen lekualdaketarako proiektuan eta sozietate-erabakian sartuko da, edo helbidea Espainiara aldatzen duen sozietatearenean, edo Espainian helbiderik ez baina Espainiako lurraldean finkagune iraunkorra izanik, helbidea beste estatu kide batera aldatzen duen sozietatearenean.

Aukera eskritura publikoan nahiz balio bereko agiri publiko batean jasoaraziko da. Agiri horiek destinoko estatu kideko erregistro publikoan inskribatzen ahalko dira. 1968ko martxoaren 9ko 68/151/EEE Zuzentarauan aurreikusi zen erregistro hori, eta bertan eragiketa dokumentatuko da.

Nolanahi ere, hartutako aukera Ekonomia eta Ogasun Departamentuari jakinaraziko zaio, erregelamendu bidez ezartzen diren moduan eta epean.”

Hogeita hamaika. 147.1 artikulua.

“1. Egoitza Espainiako lurraldean ez duten erakundearen funts berekien adierazgarri diren baloreen kudeaketa lehendabiziko helburu sozializat duten entitateek, beharrezko giza eta gauza baliabideen antolaketaren bidez, kapitulu honetan ezarritako araubideari heldu ahal izanen diote.

Balore atzeritarren edukitzako entitateen kapitaleko balore edo partaidetza adierazgarriak izendunak izanen dira.

Interes ekonomikoko elkartean, espainiar zein europarren, enpresen aldi baterako batasunen araubide bereziaren pean dauden entitateak ezin izanen dira kapitulu honetan ezarritako araubideaz baliatu.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz jarduera nagusizat ondare higigarri edo higiezinaren baten kudeaketa duten entitateak ere ezin izanen dira araubide honetaz baliatu, baldin eta sozietatearen ekitaldiko gutxienez 90 egunetan kapital sozialaren ehuneko 50 baino gehiago, zuzenean edo zeharka, hamar bazkide edo gutxiagorena edo familiar-talde batena baldin bada. Familia-taldea da ezkontidea eta zuzeneko edo zeharkako lerroko, odolezko edo ezkontza bidezko ahaidetasun loturen bidez, laugarren gradura arte, hori barne, baturiko pertsonen osatzen dutena, salbu eta bazkide guztiak aurreko baldintzak betetzen ez dituzten pertsona juridikoak badira edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko bat kapitalaren 100eko 50 baino gehiagoren titularra bada, hala nola entitatearen funts berekietako partaidetza-aren adierazgarri diren baloreak Baloreen Merkaturari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean aurreikusitako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartu diren-an.”

Hogeita hamabi. 149.1.b) artikulua.

“b) Mozkinen hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko subjektu pasiboa denean, banatzen den mozkin zerga-oinarriaren zati orokorrean sartuko da eta zilegi izanen da nazioarteko zergapetze bikoitzagatik kenkaria aplikatzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. artikuluan ezarri bezala, hartutako mozkinak eratzeko balio izan duten errenta salbuetsien gainean baloreak dituen entitateak atzerrian ordaindutako zergei buruz.”

Hogeita hamahiru. 159.1.c) artikulua.

“c) Finkagune iraunkorrari atxikitako ondare-elementuetatik heldu diren ondare-gehikuntza eta murrizketak.

Finkagune iraunkorrari atxikitako ondare-elementutzat jotzen dira haren xede den jarduera burutzeari funtzionalki lotzen zaizkionak. Erakunde baten funts berekietako parte-hartzea ordezkatzan duten aktiboak finkagune iraunkorrari lotutako ondare elementutzat joko dira soilik finkagune hori Merkataritzako Erregistroan inskribatutako sukurtsala bada eta erregelamenduak ezarritako baldintzak betetzen badira. Horretarako, lotutako ondare elementutzat hartuko dira desfektazioaren ondoko hiru zergaldietan eskualdatutakoak.”

Hogeita hamalau. 161. artikulua. 2. zenbakia kentzea. Lehengo 3., 4. eta 5. zenbakiak 2., 3. eta 4. zenbakiak izanen dira hemendik aurrera. 4. zenbakiaren idazketa berria.

“4. Sei hilabetetik goiti dirauten eraikitze, instalatze edo muntatze lanetan, edo denboraldiko zein sasoiari sasoiko jarduera nahiz ustiategi ekonomikoetan, edo baliabide naturalak aztertze lanetan aritzen diren finkagune iraunkorrak badira, zerga ondoko arau hauei jarraikiz eskatuko da:

a) Araubide arruntak finkagune iraunkorrik gabe Espainiako lurraldean jarduera edo ustiategi ekonomikoetatik lortutako errentendako ezarri dituen moduan. Horretarako, ondoko arau hauek aplikatuko dira:

a) Finkagune iraunkorrik gabe lortutako erren-tei dagozkien aitorpenak sorrarazi eta aurkezteko araubide arruntak ezarritako arauak.

b) Subjektu pasiboek ez dituzte kontabilitateko eta erregistroko betebeharrak orokorrak bete beharko.

Nolanahi ere, zergen arloko administrazioaren eskura gordeko dituzte zerga honengatik jasotako dirusarreraren eta egindako ordainketen ziurtagiriak, baita egindako konturako dirusarrerarenak eta atxikipenenak eta haiei dagozkien aitorpenenak ere, horrelakorik izanez gero.

Halaber, beharturik egonen dira entitateen aurkibidean inskribatu eta Espainiako lurraldean duten helbide fiskala aitortzera, hala nola gerta litezkeen aldaketen berri ematera.

b) Dena den, entitate ez-egoiliarren zilegi izanen du kapitulu honetan finkagune iraunkorren ezarritako araubide orokorra aukeratzea. Finkagune iraunkorrak Espainiako lurraldean lortutako errenten kontabilitate bereizirik ez badu, aurreko a) letran aipatutako sistema aplikatu beharko da nahitaez. Aukera hori entitateen aurkibidean inskribatzeko eskabidea aurkeztean denean adieraziko da.

c) Finkagune iraunkorrik gabe lortutako errenten kasuetan zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenetan ezarritako arauak ez zaizkie inola ere aplikatuko aurreko a) letran aurreikusitako sistemari jarraitzen dioten entitate ez-egoiliarrei.”

Hogeita hamabost. 162.1 artikulua.

“1. Aurreko artikuluari jarraikiz zehaztutako zerga-oinarriari dagokion arautegian ezarritako karga-tasak aplikatuko zaizkio.”

Hogeita hamasei. 162.2 artikulua.

“2. Horretaz gain, erakunde ez-egoiliarren finkagune iraunkorrek eskuratutako errentak atzerrira

eramaten direnean, zergapetze osagarria ezartzen ahalko zaie, 100eko 18ko karga-tasarekin, finkagune iraunkorren errenten kargura transferitutako kopuruei, foru lege honen 161.1.a) artikulua aipatzen dituen ordainketak barne, betiere, finkagune iraunkorren zerga-oinarria ezartzeko gastu ken-garriak izan ez badira.

Araubide arruntak finkagune iraunkorrik gabe lortutako errentendako ezarri dituen modu eta epeetan burutuko da zergapetze osagarri hori aitortu eta sartzea.”

Hogeita hamazazpi. 162.3.a) artikulua.

“a) Egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batean duten emtitateek Espainiako lurraldean finkagune iraunkorren bidez lortzen dituzten erren-tei, zerga-paradisutzat hartutako herrialdea edo lurraldea denean izan ezik”

Hogeita hemezortzi. 167.1.B).a) artikulua.

“a) Foru lege honetako 3. artikuluan aipatzen diren sozietateen akzio edo partaidetzak hartzea, enpresen jardueretan erabiltzen badira eta haien tituluek Burtsan kotizatzen ez badute. Inoiz ere ezin izanen dute parte hartu ez inbertsio kolektiboko erakundeetan, ez foru lege honetako X. tituluko V. kapituluaren arautzen diren araubide bereziari atxikitako sozietateetan, ez eta jarduera nagusitzat ondare higigarri edo higiezinaren baten kudeaketa duten sozietateetan ere.”

Hogeita hemeretzi. Bosgarren xedapen gehigarria.

“Bosgarren xedapen gehigarria. Zerga-paradisutza gisa sailkatutako herrialdeak edo lurraldeak.

Zerga honen ondorioetarako, zerga-paradisutza hartzen dira estatuko arautegian erregelamendu bidez horrelakotzat hartzen direnak. Tributazio deusezeko eta zerga arloko informazio-trukaketa-kasuetan ere arautegi horren arabera joko da.”

Berrogei. Hamabigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Esportazio jardueren ondoriozko kenkariaren kuota likidoaren murriztapena.

Foru lege honen 67. artikuluan ezarritako murriztapena zehazteko ondoko kenkariaren portzentajea aplikatuko da:

– 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan, 100eko 12.

– 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan, 100eko 9.

– 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan, 100eko 6.

– 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan, 100eko 3.”

Berrogeita bat. Hamahirugarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Karga-tasa.

Foru lege honen 50.1.a) artikuluan ezarritako 100eko 32,5eko karga-tasa 100eko 30ekoa izanen da 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan.”

Berrogeita bi. Hogeita laugarren xedapen iragankorra.

“Hogeita laugarren xedapen iragankorra. Merkataritza zikloa ixten ez duten finkagune iraunkorrak.

161. artikuluko 3. zenbakiaren b) letran aipatutako ehunekoa finkatu arte, 100eko 15 aplikatuko da.”

Berrogeita hiru. Hogeita seigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita seigarren xedapen iragankorra. Ondare sozietateen araubide iragankorra. Araubide orokorraren bidezko tributazioa.

1. Zergaldia 2006an hasi eta 2007an bukatu duten ondare sozietateen zerga-oinarria, behar izanez gero, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeari jarraikiz zehaztuko da.

2. Sorrarazi bai baina sozietateak ondare sozietateen araubidean tributatu zueneko zergaldietako zerga-oinarrian sartu ez diren errenten integrazioa 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten deneko lehen zergaldiko Sozietateen gaineko Zergako zerga-oinarrian eginen da. Ondare sozietateen araubidea aplikatzean subjektu pasiboaren zerga-oinarrian sartu diren errentan ez dira berriro integratuko haien sorrazpena egitean.

3. Ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa zeneko zergaldietan sorturiko oinarri likidagarri negatiboak, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hastean konpentsatzeke badaude, foru agindu honetako 40. artikuluan ezarritako baldintza eta betebeharrekin konpentsatzen ahalko dira.

4. Dibidenduen zergapetze bikoitzaren ondoriozko kenkariak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 62. artikuluko 6. idatz-zatian aipatzen direnak, ondare sozietateen araubidea aplikatze-

koa izan deneko zergaldiei dagozkienak eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldia hastean aplikatzeke daudenak, ehuneko 50ean edo 100ean egiten ahalko dira, foru lege honetako 59. artikuluan ezarritako baldintza eta betebeharrekin.

5. Kuota osoko kenkariak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 62. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen direnak, ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan deneko zergaldiei dagozkienak eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldia hastean aplikatzeke daudenak, foru lege honetako VI. tituluko IV. kapituluan ezarritako baldintza eta betebeharrekin egiten ahalko dira.

6. Ondare sozietateen araubide berezia aplikatzekoa izan duten ekitaldietan lorturiko etekin banaketak honako tratamendu hau izanen du, edozein delarik ere ondare sozietateek lorturiko etekinak banatzen dituen entitatea, banaketa egiten den unea eta entitateei une horretan aplikatzekoa den araubide fiskal berezia:

a) Hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako subjektu pasiboa denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 28. artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan aipatzen diren dibidendu eta etekinen partaidetzak ez dira zerga horri dagokion zergaldiko errentan sartuko. Dibidenduaren banaketa ez da atxikipenen edo konturako dirusarreraren menpe egon.

b) Hartzailea Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboa edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ordaintzaile eta finkagune iraunkorrekoa bada, eskuratzen dituen etekinak betiere sartuko dira zerga-oinarrian, eta dibidenduen zergapetze bikoitzaren ondoriozko kenkarirako esku-bidea emanen dute, foru lege honen 59. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatietan ezarritako moduan.

c) Hartzailea finkagune iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaduna denean, harturiko etekinak behar den moduan tratatuko dira, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Testu Bateginean zergadun horiendako xedaturikoarekin bat.

7. Ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan deneko ekitaldietan lorturiko etekinetatik datozen erreserbak dituzten sozietateetan izandako partaidetzaren eskualdaketa onoriozko errentekin honela jokatuko da, partaidetza horiek edozein entitatetakoak izanik ere, eta eskualdaketa egiten den unea eta entitateei une horretan aplika-

tzekoa den araubide fiskal berezia edozein izanik ere:

a) Eskualdatzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboa bada, ondarearen gehikuntza edo murriztapena kalkulatzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 43.1.c) artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, 2006ko abenduaren 31n indarra duen idazketaren arabera.

b) Eskualdatzailea Sozietateen gaineko Zergari loturiko entitatea edo finkagune iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapekoa bada, ez da inola ere kenkaririk aplikatuko, barne gainbalioaren zergapetze bikoitza saihestearren, foru lege honen 59. artikuluan ezarri bezala.

Errenta horiek zehazteko, zenbatu beharreko eskualdaketa balioa zergaren sorrarazpen egunaren aurretik itxitako azken balantzearen ondoriozko teorikoa izanen da gutxienez, behin aktibo ez-ukituen kontabilitate balio garbia ondarearen gaineko zergaren eraginetarako izanen lukeen balioaz edo merkatuan izanen lukeen balioaz, hori txikiagoa izanez gero, ordeztu ondoren. Letra honetako lehen lerrokadan xedatutakoa aplikatuko da foru lege honen 59. artikuluko 3. zenbakiko kasuetan ere.

c) Eskualdatzailea finkagune iraunkorrik ez duten errentaren gaineko zergapekoa bada, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Testu Bateginean zergadun horiendako xedaturikoarekin bat tratatuko da.

8. Araubide berezi honetan tributatu zuten sozietateek informatu beharra betetzen segitu beharko dute, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 32 bis artikuluan ezarriko baldintzetan.

Berrogeita lau. Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra. Ondare sozietateen desagitea eta likidazioa.

1. Erabakia hartzen ahalko dute haien desagitea eta likidaziorako, xedapen honetan aurreikusitako zerga-araubidearen bidez, honako beharkizun hauek betetzen dituzten sozietateek:

a) 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldi guztietan, desagin arte, ondare sozietateztat joak izatea, foru lege honetako X. tituluko II. kapituluan xedaturikoarekin bat.

b) 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera lehen zergaldia hasten denetik lehen sei hilabeteetan likidazioaren bidez desagiteko erabakia balio duen

moduan hartzea eta erabakiaren ondoren, hartzen denetik sei hilabete epean, behar diren egintza edo negozio juridikoak egitea, merkataritzari buruzko arautegiarekin bat, likidatzen ari den sozietateari buruzko erregistroko idatz-oharrak ezabatu arte.

2. Sozietate horien likidazio bidezko desagitea ondoko zerga-araubidepekoa izanen da:

a) Salbuetsita egonen dira Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik. Apirilaren 26ko Legegintzako 129/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zergaren testu bategineko 12. artikuluko 1.1 idatz-zatiko “Sozietateen desagitea” zergapeko egintza da “sozietate eragiketak” kontzeptuari dagokiona.

b) Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga ez da aplikatuko izaera horretako higiezinak kideei esleitzen zaizkienean. Ondasun higiezinaren geroko eskualdaketa ulertuko da iraungitzen den sozietateak noiz erosi zituen egun berean eskuratu zirela ondasun horiek.

c) Sozietateen gaineko Zerga desagiten den sozietateari aplikatzeari dagokionez, ez da sorraziko Espainian egoitza duten bazkideei, pertsona fisikoak zein juridikoak izan, egotzitako ondasun edo eskubideetatik heltzen den errentarik.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari, Sozietateen gainekoari edo Ez-Egoiliarren Errentaren gainekoari dagokionez, desagiten den sozietateko kideen kasuan:

1.a. Desagiten den sozietatea erosteko balioa eta, bidezko bada, haren kapitaleko akzio edo partaidetzen titulartasunarena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 43. artikuluko 1.c) idatz-zatian xedaturikoarekin bat zehaztuko da eta zor esleituen zenbatekoa gehitu edo kreditu eta diru edo hori ordezkatzeko duen ikur esleituen zenbatekoa gutxituko zaio.

2.a. Aurreko lerrokadan aipatzen diren eragiketen emaitza negatiboa bada, emaitza hori ondare errenta edo irabazitzat joko da, bazkidea pertsona juridikoa edo fisikoa izan eta horrela, hurrenez hurren, eta ezin izanen da aplikatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko zazpigarren xedapen iragankorrean xedaturikoa.

Kasu horretan, aktiboko gainerako elementu esleituak, kredituak, dirua edo hori ordezkatzeko duen ikurra ez direnek, haien erosketa-balioa 0 izanen dela ulertuko da.

3.a. 1. lerrokadan aipatzen diren eragiketen emaitza 0 edo positiboa bada, ulertuko da ez dagoela errentarik eta ondarea ez dela gutxitu edo handitu.

Emitza hori 0 denean aktiboko gainerako elementu esleituak, kredituak, dirua edo azken hori ordezkatzan duen ikurra ez direnek, haien erosketabalia 0 izanen da.

Emitza positiboa izanez gero, aktiboko gainerako elementu esleituak, kredituak, dirua edo hori ordezkatzan duen ikurra ez direnek, izanen duten erosketabalia emaitza positibo hori haien artean zatitzearen emaitza izanen da, betiere, sozietatea desegiteko likidazioaren azken balantzetik heldu den merkatuko balioaren arabera.

4.a. Bazkideari esleituriko elementuak, kreditu, diru edo hori ordezkatzan duen ikurra ez direnak, joko da bazkideak eskuratu zituela sozietateak haien eskuratu zituen egunean, eta ondare-irabazien zenbatekoa kalkulatzan ezin izanen da aplikatu pertsona fisikoen errentaren gainerako zergari buruzko Foru Legeko zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa. Likidazioaren bidez desegiteko prozesua bukatu arteko denborarekin batera bukatzen diren zergaldietan, erregistroko idatz-oharrak xedapen iragankor honetako 1. idatz-zatiko b) letran aipatzen den epean ezabatzen badira, ondare sozietateek eta haien bazkideek segituko dute aplikatzen 2006ko abenduaren 31n indarra duen arautegia. Zergaldi horietan ez da aplikatzekoa izanen, sozietate horietako akzio edo partaidetzen kasuan, Pertsona Fisikoen Pertsonen Errentaren gainerako Zergari buruzko Foru Legeko zazpigarren xedapen iragankorrean xedaturikoa.

Erregistroko idatz-oharrak epe hori bukatu ondoren ezabatzen badira, araubide orokorra aplikatuko da.”

Berrogeita bost. Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra. Araubide iragankorra Sozietateen gainerako Zergan, zergapetze bikotza saihesteko.

1. Foru lege honetako 59. artikuluan ezarritako kenkariak eta legezko testu bereko 60.1.b) eta 61.3 artikuluetan xedaturikoaren ondoriozkoak, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiaren hasieran aplikatzeko badaude, artikulua horietan ezarritako gainerako epearen barruan bukatzen diren zergaldietan egiten ahalko dira. Kenkariaren zenbatekoa aplikatzen deneko zergaldian indarra duen karga tasa kontuan hartuz kalkulatu da.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa foru lege honetako 59, 60.1.b) eta 61.3 artikuluetan aipatzen diren kenkariak ere aplikatuko zaie, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sortu direnei, kenkari horiek ondorengo zergaldietan egiten badira, sortu zireneko denboran indarra zuena ez beste karga tasa dutenean:”

Berrogeita sei. Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. Esportazio jardueren ondoriozko kenkariaren araubide iragankorra.

Foru lege honetako 67. artikuluan ezarritako kenkaria, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiaren hasieran aplikatzeko badago, foru lege honetako VI. tituluko IV. kapituluaren aipatzen den epean eta bertan ezartzen diren betebeharrekin aplikatzen ahalko da, 2010eko abenduaren 31n indarra duen idazketaren arabera.”

4. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatzen diren zergapeko egintzetan ondorioa izanen dutelarik, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Testu Bategineko manuek honako testua izanen dute:

Bat. 3.1.B) artikuluari lerrokada bat gehitzea.

“Errentamendu kontratuen nahitaezko luzapenak ez daude zergapean, berariazko legeriak agintzen duenez.”

Bi. 3.3 artikulua.

“3. Hipotekei buruzko Legearen 11. artikulua aipatzen dituen salerosketak ebazteko baldintza esplizituak berdindu eginen dira prezio gerokotua- ren pagamendua saldutako finkarekin berarekin bermatzen duten hipotekekin. Prezio gerokotua- ren pagamendua bermatzen duten salerosketak ebazteko baldintza esplizituek, enpresek Balio Erantsi- aren gaineko Zergaren peko ondasun higiezinak eskualdatzen dituzten kasuetan, ez dute tributurik emanen ez zerga honetan eta ez “kostu bidezko ondare eskualdaketak” kontzeptuan. Erregimen bera aplikatuko zaie prezio gerokotua bermatzen duten hipotekei, enpresek ondasun higiezinak eskualdatu eta eskualdaketa hori eskualdatzen diren ondasunen beren gainean eratzten dutenean.”

Hiru. 4.2 artikuluari lerrokada bat gehitzea.

“Balio Erantsiaren gaineko Zergako salbuespe- naren aplikazioari uko egiten zaionean soilik apli- katzen ahalko da arestian xedatutakoa, Zerga honetan aurreikusitakoarekin bat.”

Lau. 5.h) artikulua.

“h) Administrazio kontzesioetan, kontzesiodu- na; kontzesioaren eite berekotzat jotako adminis- trazio egintza eta kontratuetan, onuraduna.”

Bost. 7. artikulua.

“7. artikulua.

1. Zerga-oinarria finkatzeko, oro har, eskualdatu den ondasunaren edo eratzten edo lagatzen den eskubidearen benetako balioa hartuko da aintzat. Benetako balio hori Administrazioaren egiaztape- nak finkatuko du, interesatuek deklaratu dutena baino handiagoa bada.

Ondasunen benetako balioa urritzen duten kar- gak soilik izaten ahalko dira kengarriak, ez, ordea,

zorrak, nahiz eta bahiaz edo hipotekaz bermatuta egon.

Aurkeztu diren dokumentuetan ez bada espre- suki jasotzen kengarriak diren pentsio edo kargen iraupena, mugagabea dela juzgatuko da.

Zentsuaren balioa, eskualdatu diren ondasu- nen baliotik kentzerakoan, berrerostetarako eman beharreko kapitalarenean zenbatetsiko da, Kode Zibileko edo foru legeetako arauen arabera.

Zentsua berrerostean, ondasunak erosten ditu- enak erosketa egitean indarra zuen karga-tasak emandako kapitalari dagokion zerga ordaindu beharko du.

Suposatutzat emanen da interesatuek karga guztiak, izenez kengarriak izan ala ez, beheratu egin dituztela prezioa finkatzeko gehitu eginen zaiz- kio prezio horri artikulua honen arabera kengarri ez diren kargak, non eta kontratatzaileek ez duten espresuki erabakitzen karga horiek finkatutako preziotik kentzea, edo erostunak prezioaren parte bat beretzat gordetzen ez duen karga haiek paga- tzeko.

2. Zehazki, ondoko letretan ageri diren arauak aplikatuko dira:

a) Aldi bateko usufuktuaren balioa ondasunen balio osoaren proportziokoa dela juzgatuko da, urtebete bakoitzeko 100eko 2a kalkulatu, 100eko 70etik gora joan gabe. Aldi bateko usufuktuaren balioa kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko urte- bete baino gutxiagoko urte zatiak, baina urtebete baino gutxiagoko usufuktua ondasunen balioaren 100eko 2an kalkulatu da.

Biziarteko usufuktuetan juzgatuko da balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70ekoa dela usufuktuaren hogen urte baino gutxiago dituenen; adinean goiti joan ahala urteko 100eko 1 murriztuko da, eta gutxieneko muga balio osoaren 100eko 10 izanen da.

Lehenengo lerrokadan ezarritakoa galarazi gabe, pertsona juridiko baten alde eratzten den usufuktua, hogeita hamar urte baino gehiagorako edo denbora mugagabez ezartzen bada, zergen ikuspuntutik suntsiarazte baldintzaren menpeko jabetza osoko eskualdaketat hartuko da.

Jabetza soilaren eskubidearen balioa kalkula- tzeko, aintzat hartuko da usufuktuaren balioak eta ondasunen balio osoak duten diferentzia. Aldi berean biziartekoak eta aldi baterakoak diren usu- fruktuetan, jabetza soila baloratzeko, aurreko erre- geletatik hari baliorik txikiena ematen dion errege- la aplikatuko da.

Ondorengo usufruktuetan jabetza soilaren balioa kalkulatzeko, portzentaje handieneko usufruktua hartuko da aintzat; usufruktu hori amaitzean jabe soilak pagatu egingen du jabetza soilak izandako balio gorakadagatik dagokiona, eta horrela gainerako usufruktuak amaitzean ere. Arau bera aplikatuko zaio aldi berean bi pertsonaren edo gehiagoren alde eraturako usufruktuari, baina jabaria finkatzeagatik likidazioa azkena hiltzen denean baizik ez da egingen.

Usufruktua pertsona juridiko baten alde eraturak bada, letra honetako lehen eta laugarren lerrokatetan ezarritako erregelak aplikatuko dira pertsona fisiko bati egotzitako jabetza soilaren balioa zehazteko. Usufruktuaren iraupena zehaztugabea denean, ondasunei egotzitako balio osoaren 100eko 60ko balioa emanen zaio usufruktuari.

b) Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealeen balioa kalkulatzeko, eskubide horiek kargatzen zituzten ondasunen 100eko 75ari aldi baterako edo biziarteko usufruktuen balorazioari dagozkion arauak aplikatuko zaizkio, kasuan kasuan.

c) Hipotekak, bahiak eta antikresiak obligazioaren edo kapital bermatuaren zenbatekoan baloratu dira, interesengatik, kalte-ordainengatik ez betetzeagatik zigorrerengatik edo antzeko kontzeptuengatik aseguratzen diren zenbatekoak ere barne direla. Bermatutako zenbatekoa espresuki agertzen ez bada, kapitala eta hiru urteko interesa hartuko da oinarritzat.

d) Aurreko letretan sartzen ez diren eskubide errealak, parteek eratu zituztenean itundutako kapital, prezio edo balioaren aldera egotziko dira, urteko errenta edo pentsioko dirua legezko interesean kapitalizatetik heldu dena bera edo handiago izaten bada; bestela azken hori hartuko da.

e) Errentamenduetan kontratuak irauten duen guztian pagatu beharreko zenbateko osoa hartuko da oinarri; espresuki agertzen ez bada, sei urte kontatuta egingen da likidazioa, denbora horretatik aurrera segitzen baldin badu emendiozko likidazioak egitea ezertan galarazi gabe; hiri finkak errentatzeko nahitaez luzatu beharreko kontratuak, gutxienez hiru urteko iraupena kontatuko da.

f) Biziarteko edo aldi baterako pentsioen zerga-oinarria unean uneko finantza balio aktuarialaren arabera izanen da. Pentsioaren zenbatekoa diru-unitatetan zenbatzen ez bada, balio hori ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren urteko zenbatekoaren arabera kalkulatu da (IPREM).

g) Obra, zerbitzu edo hornidura kontratu batetik kontratuaren adjudikaziodunari sortzen zaizkion eskubideak kostu bidez eskualdatzean, prezio itundua hartuko da oinarri, eta prezio hori espresuki finkatu ez bada edo txikiagoa bada, kontratuaren gai den eta eginkizun dagoen prestazioaren prezioaren 100eko 6.

h) Landa finken erdirako kontratuak, lurralde kontribuzioan kontratu-gai den finkari egozten zaion katastroko balioaren 100eko 2a hartuko da oinarri, eta fabrika edo industrietarako kontratuak, berriz, aurreko biurtekoan izandako batez besteko onuraren herena bider, kasu bietan, kontratuak irauten duen urte kopurua.

i) Mailegu-hartzailearen berme pertsonala beste bermerik ez duten maileguetan, fidantza bidez aseguratuetan eta zorra aitortzeko kontratuak, obligazioaren kapitala eta gordailu ordainduko kontratuak, gordailatu den zer horren balioa.

Kreditu kontuetan, mailegu-hartzaileak benetan erabili duena.

Bahi, hipoteka edo antikresi bidez bermatutako maileguetan, idatz-zati honetako c) letran adierazten dena begiratuko da.

j) Fiantzetan, bermatutako kapitala hartuko da oinarri.”

Sei. 10. bis artikulua gehitzea.

“10. bis artikulua.

Epaitegi-enkantearen bidez egiten diren eskualdaketatik, eta errematea adjudikatu zaion posturagileak enkantean ari zela lagatzeko eskubidea erabili badu, enkantea gobernatzeko araudiak agintzen duen moduan, eskualdaketa bakarra izan dela juzgatu eta likidatuko da lagatzailearen alde. Enkantea izan eta gero deklaratu bada postura hori lagatzeko egin dela, bi eskualdaketa izan direla juzgatuko da: bata errematearen adjudikaziodunaren alde eta, beste bat, errematearen lagatzailearen alde, eta biak bereizita likidatuko dira.”

Zazpi. Artikulu berri bat, 10. ter. gehitzea.

“10. ter artikulua.

Eraikinen bat ganean duten orubeak salerosi edo beste edonola kostu bidez eskualdatzen direnean, zerga-oinarritzat bai lurzorua bera eta bai zoru gainekoa hartuko da, non eta eskualdatzaileak ez duen gaineko hori erreserbatu edo erostunak frogatzen ez duen obretarako lizentzia berak eskatu zuela eta bere izenean eman ziotela.”

Zortzi. 11. artikulua.

"11. artikulua.

1. Kostu bidez zatikatutako jabaria finkatzean, zatikatze hori aurreikusitako epea bete delako edo usufruktuduna hil delako gertatzen bada, jabe soilak kasuko zerga pagatu gabe duen jabetza osoaren balioaren portzentajea pagatu beharko du, jabetza soila eskuratu zuen kontzeptu eta titulu berberengatik, eta indarra duten zerga-tasen arabera eta ondasunak finkatzea gertatzen denean duten balioaren arabera.

Finkatze hori beste negozio juridiko batengatik gertatzen bada, jabe soilari eskatuko zaio aurreko lerrokadan aurreikusten diren likidazioetan handiena eta usufruktua amaitzea ekarri duen negozio juridikoari dagokiona.

Usufruktuari uko egiten bazaio, ukoa hutsa eta soila bada ere, zergari dagokionez usufruktudunak jabe soilari egiten dion dohaintza dela juzgatuko da.

Finkatzea usufruktudunarengan gertatzen bada, harexek pagatuko du jabetza soila eskuratzeko bide izan den negozio juridikoari dagokion likidazioa, finkatze unean jabetza horrek zuen balioa oinarri hartuta.

Finkatzea usufruktuaren eta jabetza soilaren eskubideak batera eskuratu dituen hirugarren batengan gertatzen bada, eskuratzeko horiei dagozkien likidazioak besterik ez dira eginen.

Kostu gabe zatikatutako jabaria finkatzeko, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren arauak hartuko dira aintzat.

2. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubideak eskuratzeko dituenak, eskuratzeko pagatuko du zerga, bere tituluaren izaera juridikoa zein den, eskubide horien balioaren aldera, eta kontzeptu horretan egiten den likidazioaren oinarria kendu eginen da usufruktudunari edo, usufruktudunik ez badago, jabe soilari egiten zaionetik.

Erabiltzeko edo bizitzeko eskubideak amaitzean usufruktudunari eskatuko zaio zerga (halakorik badago), usufruktuaren balioan izandako gehikuntzagatik, eta halako usufrukturik ez badago, jabe soilari egiten zaio eskubide horiek berak amaitzeari dagokion likidazioa. Usufruktua erabiltzeko eta bizitzeko eskubideak baino lehen amaitzen bada, jabe soilak pagatuko du usufruktu eskubide hori amaitzeagatik gertatu den partezko finkatzeari dagokion likidazioa, bere jabetza soilaren balioan izandako gehikuntzagatik.

3. Zergapeko promesa eta kontratu aukerak horien balio berekotzat joko dira, eta itundutako

prezioa hartuko da oinarri. Halakorik ez badago, edo prezio hori txikiagoa izaten bada, kontratu horiei aplikatzekoa den oinarriaren 100eko 5a.

4. Ondasun eta eskubideak atzera eskuratzeko itunaren pean eskualdatzen direnean, prezio deklaratu hartuko da oinarri, prezio hori ondasun eta eskubide horien balio egiaztatuaren bi heren edo gehiago baldin bada. Atzera eskuratzeko eskubidea eskualdatzen denean, balio horren herena hartuko da aintzat, non eta prezio deklaratu handiagoa ez den.

Atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen bada, atzera eskuratzeko ondasun eta eskubideen balio egiaztatuaren bi herenak hartuko dira oinarri, betiere ostera lagatzearen prezioaren parekoa edo handiagoa baldin bada.

Atzera eskuratzeko eskubidea amaitzen denean, estipulatutako edo legeak agindutako epea iragiteagatik, ondasun eta eskubideen eskuratzailari edo haren kausadunei egiten zaie kasuko likidazio osagarria, eta hartarako oinarri hartuko da lehendik egindako likidazioaren oinarriaren eta ondasunen balio egiaztatu osoaren arteko aldea, alderik badago.

Atzera eskuratzeko eskubidea estipulatutako epea iragan ondoren erabiltzen bada, eta betiere kontratuaren datatik hogeitun urte iragan badira, eskualdaketa berriaren kontzeptuan likidatuko da zerga.

Atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzea zilegi den epea luzatzea ez da zergapean egonen "kostu bidezko ondare eskualdaketa" kontzeptuan, Testu Bategin honetako 22.2. artikulua agintzen duena ezertan galarazi gabe.

Atzera eskuratzeko eskubidea baloratu behar den beste kasuetan, eskubideak eragiten dien ondasun eta eskubideen balio osoaren herena dela juzgatuko da, non eta prezio deklaratu handiagoa ez den.

5. Zentsu enfiteutikoak eta erreserbazkoak eratzekoan, kontzeptu horrengatik likidazioa ezertan galarazi gabe, ondasunak beren balioaren aldera lagatzeari dagokion likidazioa egiten da, kapitala haien arabera kalkulatu.

6. Transakzioetan, auzigai diren ondasunak edo eskubideak adjudikatu, deklaratu edo aitortzen diren tituluaren arabera egiten da zergaren likidazioa, eta halako titulurik ageri ez bada, kostu bidezko eskualdaketa kontzeptuan.

Transakzio batean tarte dabiltzalarik auzigaiaz kanpoko prestazioak, hala nola pentsio eraketak, eskubide errealean aitormena, eskudiruzko entre-

gak, ondasun truke edo permutak edo bestelakoak, eta horiek partez nahiz osorik aldatzen badiutuzte transakziopeko ondasunak edo eskubide errealak, demanda hastean bazen tituluaren edo egintzaren izaera, egintza edo titulu hori alde batera utzi eta oinarria finkatzeko aurreko kontzeptuari dagokiona hartuko da, aldaketa osorikakoa bada eta, parte batekoa bada, berriz, aldatutako parteari dagokiona, aldatu gabeko parteari dagokiona bere hartan utzita.

Transakzioaren ondorioz auzigai diren ondasun eta eskubideak lehengo jabearen esku gelditzen badira, auzian aurkeztutako tituluaren arabera, ez da zerga eskatuko frogatzen bada titulu hargatik pagatu zela edo zergak indarriz ez zuen garaian egin zela eskuraketa.

Zergari dagokionez, transakzio bat transakzioztat hartzeko, nahitaez behar du kasuko demanda ohikoa hasi ondoren egina. Hortaz, kontua ez bada oraindik erabat auzigai bihurtu eta eskubide aitormena edo lagapena parteen arteko hitzarmen publikoz edo pribatuz egiten bada, (aurreko prozedura judizialak hastearen ondorio ez diren hitzarmenak, alegia) egintza horiek kontratuaren arabera egin diren kontzeptu juridikoagatik eginen da likidazioa, zein ere izan parteen transakzioaren oinarritzat alegatu zuten titulua.

7. Ondasunak biziarteko edo aldi baterako pentsioen truke lagatzen direnean, lagatzaile eta pentsiodunaren kontu eginen dira kasuko likidazioak likidazio oinarri osoaren gainean, lagapenean pentsio-oinarri izan zen kapitala kendu gabe.

Lagapenerako hartzen den zerga-oinarria pentsioarena baino 100eko 20 eta 12.000 euro handiagoa denean, ondasunen lagapen-hartzailearen konturako likidazioa bi oinarriok bat egiten duten balioaren aldera eginen da eta bien arteko aldearen arabera beste bat eginen zaio dohaintza kontzeptuan.

8. Fidantza, bahi, antikresi edo bestelako berme erreal batez bermatutako maileguak eraten direnean, mailegu kontzeptuan baizik ez da zergarik ordaindu behar izanen, betiere bermearen eratzea mailegua ematearekin batera egiten bada edo maileguaren ematean ondoren bermea eratzea aurreikusita badago.

Mailegu pertsonal gisa likidatuko dira kreditu kontuak, zor aitormena eta gordailu ordaindua.

9. Azalera-eskubidearen eta antzeko eskubideen zerga-oinarria zehazteko, Testu Bategin honen 19. artikuluko a) letran aldi baterako usu-

fruktuari buruz ezartzen diren arauak aplikatuko dira.

10. Bahi, hipoteka edo antikresi bidezko hartze-kodunaren eskubideetan subrogatzea eskubide eskualdaketatzat hartuko da, eta Testu Bategin honen 8. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letran ezarri den tasan ordainduko da zerga.

11. Kredituak, eskubideak edo akzioak eskualdatzen direnean ondasun jakinak eta estimatzeko modukoak bereganatzeko, ondasun eta eskubide horien beren kontzeptu eta tasa berberetan eskatuko da zerga.”

Bederatzi. 20. artikulua.

“20. artikulua.

1. Kopuru edo gauza baloragarria zuzeneko helburu duten eskitura publikoen lehenbiziko kopi-etan balio deklaratu hartuko da oinarri, Adminis-trazioaren egiaztapena ezertan galarazi gabe.

2. Egintza gai baloragarri gabekoa dela juzgatuko da baldin eta indarraldi guztian, bai eta iraungitzean ere, ezin bada oinarriaren zenbatekoa finkatu. Oinarri hori ezin bada egintza egiten denean finkatu, gai ez baloragarrien kasuan bezala eskatuko da zerga, zenbatekoa finkatzen denean likidazioa osatzea ezertan galarazi gabe.”

Hamar. 20. bis artikulua gehitzea.

“20. bis artikulua.

1. Bermearen eskubide errealean eta mailegu bermedunak jasotzen dituzten eskrituretan, bermatutako obligazio edo kapitalaren zenbatekoak osatuko du zerga-oinarria. Haren barnean egonen dira interesengatik, kalte-ordainengatik, ez bete-tzearen ondoriozko zigorrangatik edo antzeko kontzeptuengatik aseguratzen diren zenbatekoak ere. Bermatutako zenbatekoa espresuki agertzen ez bada, kapitala eta hiru urteko interesa hartuko da oinarritzat.

Hipoteken edo beste edozein berme-eskubide-ren geroratze eta maila hobetzean, maila okertzen duen eskubideari atxikitako erantzukizun osoak eratuko du zerga-oinarria. Maila berdintzerakoan, lehenbizi ezarritako berme-eskubideari dagokion erantzukizunaren zenbateko osoaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria.

2. Akta notarialetan 20. artikuluan eta aurreko idatz-zatian agindu dena begiratuko da, protestokoetan izan ezik, horietan zerga-oinarria protesta-tutako efektuaren edo protesta sortu duen zenbatekoaren balio nominalaren herena izanen baita.

3. Obra berria deklaratzeko eskrituren zerga-oinarria deklaratzeko den obra berriaren balio erreala osatuko du.

4. Jabetza horizontaleko erregimenaren peko eraikinen eratzeko eskrituren zerga-oinarria obra berriaren balio erreala eta lurraren balio erreala sartuko dira.

5. Finkak batu, erantsi eta bereizteko eskriturretan, kasuan-kasuan batutako finken balioak, handiagoko bati erantsitako finken balioak eta beste batetik berezi den finken balioak osatzen dute zerga-oinarria.”

Hamaika. 21. artikuluarri lerrokada bat gehitzea.

“Bermedun mailegua eratzeko eskriturak direlarik, mailegu-hartzailea hartuko da erostuntzat.”

Hamabi. 23. bis artikulua gehitzea III. tituluko II. kapituluaren 4. sekzioari.

“23. bis artikulua.

1. Akzioak jaulkitzeagatiko sariez soilik osatutako erreserben kontura egindako kapital gehikuntza dokumentatzen duen eskritura notarialaren lehenbiziko kopiak, “sozietate eragiketa” kontzeptutik libreak, Testu Bategin honetako 22.2. artikuluan aipatzen duen “egintza juridiko dokumentatuen” karga gradualean izanen du zerga.

2. Sozietatearen helburua partez nahiz osorik aldatzeagatik egindako sozietate aldaketa bat dokumentatzen duen eskrituraren lehenbiziko kopiak, sozietateak lehenago izaten zituen jarduerekin lotura izan ala ez izan, aldaketa “sozietate eragiketa” kontzeptutik libre delarik, ez du zergarik izanen aipatu “egintza juridiko dokumentatuen” karga gradualean.

3. Sozietatea luzatzeko “sozietate eragiketa” kontzeptutik libre diren eragiketak jasotzen dituzten eskrituren lehenbiziko kopiak, “egintza juridiko dokumentatuen” karga gradualean izanen dute zerga eta oinarritzat sozietateak erabakia hartu zuen anean zeuzkan ondasun likidoak hartuko dira.

4. Kapital gutxitzearen eskrituraren lehenbiziko kopiak ere, gutxitze horrek ez badu ondasun eta eskubideak bazkideei itzuli beharra ekartzen eta ez likidaziorik sortzen “sozietate eragiketa” kontzeptuan, ez du zergarik izanen “egintza juridiko dokumentatuen” karga gradualean.

5. Akzioen ordezkariak modua dokumentatzen duten eskrituren lehenbiziko kopiak, tituluetatik kontuko idatzoharretara pasatuz edo alderantziz, ez dira “egintza juridiko dokumentatuen” karga gradualean azpiko izanen.”

Hamahiru. 33. artikuluarri lerrokada bat gehitzea.

“Enbargoaren idatzoharretako zerga-oinarria ez da inoiz izanen enbargatu diren ondasunen balio errealetik gorakoa, eta ez enbargoaren idatzoharra sortu duen zenbatekoaren zenbateko osotik gorakoa ere.”

Hamalau. 35. artikulua. I. B).10.

“10. Bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatorako onartu diren edo onartu ez diren baloreen eskualdaketa, Baloreen Merkatuari buruzko 24/1988 Legearen 108. artikuluan ezarritako salbuespenekin, horiek kostu bidezko ondare eskualdaketen modalitatean izanen baitute zerga, aipatu artikuluan zehaztutako baldintzetan.”

Hamabost. 37.2 artikulua.

“2. Ondasunen eskuraketaren eraginkortasuna baldintza, termino, fideikomiso edo beste zeinahi mugaketaren bat dela bide etenda dagoenean, mugaketa horiek desagertzen diren egunean egintzat joko da eskuraketa, eta data hori hartuko da aintzat bai ondasunen balioa finkatzeko bai zergatasak aplikatzeko.”

Hamasei. 39.2 artikulua.

“2. Subjektu pasiboek, zerga aitortpena aurkezten dutenean, dagokien zerga-zorra zehaztu beharko dute autolikidazioa eginez eta araudiak ezarritako toki, modu eta epeetan horren dirusarrera eginez.”

Hamazazpi. 40. bis artikuluarri 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Auzitegi organoek, bankuek, aurrezki kutxek, elkarteek, sozietateek, funtzionarioek, partikularrek eta beste entitate publiko nahiz pribatu guztiek, ez dute erabakiko ondasunak titularrak ez beste norbaiti entregatzea aurrez frogatu ez bada zerga pagatu dela, salbuesita zegoela edo libre zegoela, non eta Administrazioak hartarako baimena eman ez duen.”

Hemezortzi. 41.1 artikulua, hirugarren lerrokada.

“Egintza edo kontratuak irabaziak sortu baditu, egindako likidazioa zuzendu eginen da, hartarako oinarri hartuz aldi bateko usufuktuaren balioa, Testu Bategin honetako 7. artikuluan agindu bezala kalkulatu, egintza edo kontratuak iraun duen denboraren arabera, edo jaso den prezio zatiaren zenbatekoaren arabera baldin eta, kontratuaren izaeragatik, ezinezkoa bada usufuktua izan dela juzgatzea, eta zergadunari likidazio horren eta lehengoaren artean haren alde ateratzen den diferentzia itzuliko zaio.”

Hemeretzi. Laugarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Sociedad de Promoción de inversiones e infraestructuras de Navarra S.A. sozietateak zerga onura hauek izanen ditu:

a) Kapitala eratu eta gehitzeko sozietatearen eragiketarako salbuespena.

b) Xedeak betetzeko egiten dituen jesapenen jaulkipeneko eragiketarako salbuespena.

c) Xedeak betetzeko egiten dituen lur eta ondasun eskuraketen eragiketarako salbuespena.

d) Maileguak, kredituak edo abalak bermatzeko sozietatearen alde ematen diren berme mota guztien gaineko zergarako salbuespena.”

5. artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

1. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, jarraian ematen diren Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko arauak honako testua izanen dute:

Bat. 27.2 artikuluari bigarren lerrokada bat gehitzea.

“Erregelamendu bidez zehaztuko da erregistro liburuak aldizka eta baliabide telematikoak erabiliz zein kasutan aurkeztu behar diren.”

Bi. 29.3 artikulua.

“3. Foru lege honen 30. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa izan ezik, zordunak borondatezko ordainketa egiteko aldian daukan zerga-zor osoraino iritsiko da erantzukizuna. Borondatezko ordainketa egiteko epea iragan eta erantzuleak dirusarrerarik egin ez badu, ordainarazpen aldia hasiko da eta zorra, bidezkoak diren errekaru eta interesekin batera, premiamendu bidez eskatuko da.

Erantzukizuna ez da zehapenetara iritsiko, foru lege honetan edo beste batean ezartzen diren salbuespenekin.”

Hiru. 29.4 artikulua.

“4. Betiere, zerga-zorra ordaintzera behartzeko administrazio-ekintza erantzuleei iragateko, beharrezkoa da administrazio-egintza bat, zeinean, interesatuari entzunaldia eman ondoren, erantzukizuna deklaratu eta haren zenbaterainokoa zein den zehaztuko baita.

Egintza hori jakinarazi eginen zaie, likidazioaren elementu funtsezkoak adieraziz, erregelamendu bidez finkatzen den moduan, eta ordutik aurrera zordun nagusiaren eskubide guztiak izanen dituzte.

Erantzukizuna adierazteko akordioaren kontrako erreklamazio edo errekursoaren bidez, gaitzen duen egintzaren aurrekontuaz gainera, aurrekontu horretako likidazioak ere aurkatzen ahalko dira. Errekurtso edo erreklamazio horien ondorioz, ezin izanen dira berrikusi beste zergadunentzat irmo bilakatu diren likidazioak, ezpada errekurtsua edo erreklamazioa aurkeztu duen erantzulearen beharrezkizunaren zenbatekoa.

Dena dela, foru lege honen 30. artikuluan 4. idatz-zatian ezarritako kasuetan, aurrekontu horrek hartzen dituen likidazioak ezin izanen dira aurkatu, erantzukizunaren zenbateko osoa baidzik.”

Lau. 30. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzea.

“4. Ondoren aipatzen diren pertsona edo entitate hauek tributuz zorraren eta, bidezkoa bada, tributuz arloko zehapenen erantzule subsidiarioak izanen dira, eta ordainarazpen aldiko errekarua eta berandutza-interesak ere ordaindu beharko dituzte, Zerga Administrazioak bahitu edo beste-erentzen dituen ondasunen edo eskubideen balioa berdindu arte:

a) Zerga Administrazioaren lana galarazteko asmoz, pagatzera behartutakoaren ondasunak edo eskubideak eskualdatzen edo ezkututzen dituztenak edo horretan laguntzen dutenak.

b) Beren erruz edo zabarkeriaz bahitzeko aginduak betetzen ez dituztenak.

c) Bahituraren edo beste aurreneurri edo berme baten jakitun izanda, bahitutako ondasun edo eskubideen altxaketa edo kautelazko neurri baten edo berme baten xede diren ondasun eta eskubideen altxaketa onartzen dutenak edo egin-kizun horretan laguntzen dutenak.

d) Zordunaren ondasunak gordetzen dituzten pertsona edo entitateak, bahituraren jakinarazpen jaso ondoren, ondasunen ostentzea onartzen edo egin-kizun horretan laguntzen dutenak.”

Bost. 31. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak.

“1. Zilegi izanen da pertsona fisiko nahiz juridikoak eta foru lege honetako 25. artikulua aipatzen dituen erakundeak ustiategi eta jarduera ekonomikoetan aritzearen ondorioz sortzen diren tributuzko zor eta erantzukizunak, edozein arrazoi dela kausa, hurrengo titular edo erabiltzaile bihurtzen direnei eskatzea, legedi zibilak herentzia eskuratzeko xedatzen duena ezertan galarazi gabe.

Erantzukizun mota hau ez zaie aplikatuko zordun konkurtsatu batenak ziren ustiapen edo jarduera ekonomikoen titulartasunaren erosleei, erosketan konkurtso prozedura baten bidez egin baldin bada.

2. Erantzukizuna ustiapen eta jardueretan ari-tzeagatik sortzen diren zorretara hedatuko da, likidatu-eta zein likidatu gabeko-eta, are horietatik ateratako errentetara ere. Zor diren konturako dirusarrerak eta egindako edo egin beharreko atxiki-penak ez ordaintzetik datozen obligazio guztietara ere hedatuko da, hala nola ezarritako edo ezar-tzen diren zehapenetara.”

Sei. 32. artikulua.

“1. Tributuz arloko arau-hauste bakunen eta -per-sona juridikoek egindako arau-hauste larrien

kasuan- tributu zor osoaren erantzule subsidiario izanen dira horien izatezko edo eskubidezko administratzaileak, hautsitako tributu obligazioak betetzeko haien dagozkien ekintza beharrezkoak egin ez badituzte, haien menpekoek obligazioak ez betetzea onartu badute edo arau-hauste horiek ahalbidetu dituzten erabakiak hartu badituzte.

Halaber, eta edozein kasutan, beren jarduerari utzi dioten pertsona juridikoek betetzeko dituzten tributu obligazioen erantzule subsidiarioak haien izatezko edo eskubidezko administratzaileak izanen dira.

Agindu honetan aurreikusten denak ez die ezertan eragiten tributuei buruzko legedia indardunak aurreikusten dituen beste erantzukizun kasuei.

2. Kasuan kasuko konkurtso-administrazioaren partaideak erantzule subsidiario izanen dira, baita sozietate eta entitateen likidatzaileak oro har, egoera horien aurretik sortutako tributu beharkizunak oso-osorik betetzeko behar ziren kudeaketak zabarkeriagatik edo asmo txarrez egin ez bazituzten. Egoera horien ondotik eskatzen diren tributu beharkizunei eta ezartzen diren zehapenei dagokienez, administratzaile gisa erantzunen dute, administrazio eginkizunak esleitua dituztenean.

3. Ondoko hauek ere erantzule subsidiarioak izanen dira:

a) Pertsona juridikoen benetako kontrola, erabatekoa edo partziala, zuzenean edo zeharka duten pertsona edo entitateak, edo haiekin batera aritzeko asmoa dutenak, betiere frogatzen baldin bada pertsona juridikoak gehiegikeriaz edo iruzurrez sortu edo erabili direla Ogasun publikoaren aurrean dagoen ondare-erantzukizun unibertsala saihesteko, eta pertsonen edo esfera ekonomikoen bakartasuna badago edo ondare-nahasketa edo desbideraketa. Erantzukizuna eskatzen ahal diren tributu zorretara eta pertsona juridiko horiei ezartzen ahal zaizkien zehapenetara hedatuko da.

b) Tributudunek osorik edo parte batean kontrolatzen dituzten pertsona edo entitateak edo tributudun horiekin batera aritzeko asmoa erakutsi dutenak, tributudun horien tributu beharkizunengatik, frogatzen baldin bada pertsona edo entitate horiek gehiegikeriaz edo iruzurrez sortu edo erabili direla Ogasun publikoaren aurrean dagoen ondare-erantzukizun unibertsala saihesteko, eta pertsonen edo esfera ekonomikoen bakartasuna badago edo ondare-nahasketa edo desbideraketa. Horrelako kasuetan, erantzukizuna zehapenetara ere hedatuko da.”

Zazpi. 44.1. artikulua.

“1. Zerga Administrazioak zilegi izanen du errenta, produktu, ondasun eta zergapeko egintza- ren beste elementuen balioa egiaztatzea honako bide hauek erabiliz:

a) Etekinen kapitalizazioa edo egozpena egitea tributu bakoitzaren foru legeak ezartzen duen ehu-nekoari.

b) Estimazioa erregistro ofizial fiskaletan agertzen diren balioen arabera.

Ondasun higiezinaren kasuan, ondasun horiek baloratzeko erreferentzia gisa hartuko den erregistro fiskal ofiziala Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroa izanen da.

c) Merkatuko prezio batez bestekoak.

d) Espainiako nahiz atzerriko merkatuetako kotizazioak.

e) Administrazioeko perituen irizpena.

f) Aseguru-kontratuak polizetan ondasunei esleitutako balioa.

g) Hipotekatutako finken tasazioan esleitutako balioa, hipotekei buruzko legedian ezarritakoari jarraikiz.

h) Erregelamenduz ezartzen den epean egindako ondasun horren beste eskualdaketetan deklaraturako prezioa edo balioa, inguruabarrak kontuan harturik.

i) Zerga Administrazioak lehenago egiaztatutako balioekin konparatzearen ondoriozko balioa.

j) Perituen alde biko tasazioa.

k) Tributu bakoitzaren foru legeak zehazten duen beste edozein bide.”

Zortzi. 50.2. artikulua.

“2. Honako hauek ere, zein bere kasuan, tributu zorraren osagai izanen dira:

a) Oinarri edo kuoten gainean legez eska daitezkeen errekarquak, dela Foru Komunitatearen alde edo beste ente publiko baten alde.

b) Foru lege honetako 52. artikuluko 3. idatzatian aurreikusten diren errekarquak.

c) Berandutza-interesa; alegia, interes horren sortzapenaldian diruak duen legezko interes indarduna, 100eko 25ean gehitua, foru legeak beste zerbait agintzen ez badu.

d) Ordainarazpen aldiko errekarquak.”

e) Diruzko zehapenak.”

Bederatzi. 52.3.c) artikulua, bigarren lerrokada.

“Errekargu horiek ordainarazpen aldiko errekar-guekin bateragarriak izanen dira, baldin eta tribu-tua ordaintzera beharturik daudenek ez badute dirua sartzen aitopen-likidazioa edo epetik kanpo-ko autolikidazioa aurkeztearekin batera.”

Hamar. 62. artikulua.

“62. artikulua. Kredituen lehentasuna.

1. Foru Komunitateak lehentasuna izanen du mugaeguna pasa duten eta pagatu ez diren tributu kredituak kobratzeko, betiere baldin beste hartze-kodunak ez badira kredituen gaineko jabari esku-bide, bahi eskubide edo hipoteka eskubide baten jabe edo kasuan kasuko erregistroan inskribatuta-ko beste eskubide erreal baten jabe Foru Komuni-tatearen eskubidea hartan berean jaso baino lehe-nagotik, foru lege honetako 63. eta 64. artikuluetan xedatzen dena ezertan galarazi gabe.

2. Konkurtsorako hitzarmena izanez gero, hitzarmenaren xedeko tributu-kredituak, konturako ordainketak egin beharri dagozkionak barne, Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Lege-an ezarritakoaren menpe izanen dira.”

Hamaika. 70.1.c) artikuluari lerrokada bat gehi-tzea.

“Hidrokarburoei buruzko estatuko araudian adie-razita dagoen tributu arloko arau-hauste larriaren zehapena jartzeko, hots, arautegian dauden debe-ku eta mugak ez errespetatzearen ondoriozkoak jartzeko, Zerga Berezien, Aseguru-sarien gaineko Zergaren eta Tasen Atala izanen da organo esku-duna.”

Hamabi. 116. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzea. Orain arte 4. idatz-zatia dena 5. idatz-zatia izanen da.

“4. Borondatezko epean ordainketa geroratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskaera aurkeztuz gero, espediente horiek tramitatu bitartean ezin izanen da ordainarazpen aldia hasi.

Isun baten kontra errekurso edo erreklamazioa behar den moduan eta epean aurkeztuz gero, ordainarazpen aldia ezin izanen da hasi harik eta zehapena administrazio bidean irmo bilakatu eta borondatez ordaintzeko epea bukatu arte.”

Hamahiru. 117. artikulua.

“117. artikulua. Diru-bilketa ordainarazpen aldi-an.

1. Ordainarazpen aldia hastearekin batera, epe horri dagozkion berandutza-interesak eta epe horretako errekar-guekin ordaindu beharko dira.

Ordainarazpen aldiko errekar-guekin hiru motako-ak dira: ordainarazpen aldiko errekar-guekin, premia-mendu errekar-guekin murriztua eta premiamendu errekar-guekin arrunta.

Errekargu horiek bateraezinak dira eta borondatezko epean sartu ez den zorretik abiatuta kalkulatzeko dira.

2. Ordainarazpen aldiko errekar-guekin 100eko 5ekoa izanen da eta ordainarazpenaldia hasi ondoren baina premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena jaso baino lehen ordaintzen den zorrari aplikatuko zaio.

3. Premiamendu errekar-guekin murriztua 100eko 10ekoa izanen da eta premiamenduzko prozedura hasteko oinarri izan diren zorrak ordaintzeko erregelamenduz ezarritako epea bukatu baino lehen ordaindutako zorraren gainean aplikatuko da.

4. Premiamendu errekar-guekin arrunta 100eko 20koa izanen da eta artikulua honetako 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako inguruabarrak gertatzen ez direnean aplikatuko da.

5. Premiamendu errekar-guekin arrunta berandutza-interesekin bateragarria da. Ordainarazpen aldiko errekar-guekin edo premiamendu errekar-guekin murriztua aplikagarri direnean, ez dira ordainarazpen aldia hasi zenetik sortutako berandutza-interesak eskatuko, baldin eta premiamenduzko prozedura hasteko oinarri izan diren zorrak ordaintzeko ezarritako erregelamenduzko epea bukatu baino lehen ordaintzen badira.

6. Ordainarazpen aldia behin hasita, Zerga Administrazioak likidatutako edo autolikidatutako zorren diru-bilketa, foru lege honen 116.3 artikuluan aipatzen dena, egiten du, pagatzera behartuta dagoenaren ondarearen gaineko premiamenduzko prozedura bidez.

7. Premiamenduzko prozedura zordunari jakin-razi beharreko probidentziaren bidez hasiko da, zeinean ordaindu gabe dagoen zorra zenbatekoa den jakinarazi eta ordaintzeko eskatuko baitzaio, ordainarazpen aldiko errekar-guekin eta berandutza-interesekin batera.

Zordunak ez badu erregelamenduz ezarritako epean pagatzen, ondasunak bahituko zaizkio, eta horrela ohartaraziko zaio premiamenduzko probidentzian.

8. Premiamenduzko probidentzia organo esku-dunak egiten du eta premiamenduzko prozedurari hasiera emateko nahikotzat hartuko da. Ordaintzera behartuta dauden ondasunak eta eskubideen kontra jotzeko, epaitegietako epaiek adina indar izanen du.

9. Zordunak ordaindu beharko ditu premiamenduzko prozeduraren kostuak.”

Hamalau. 119. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatiak.

“3. Legeak, prozeduraren izaera kontuan hartuta, kredituak kobratzeko ezarri duen lehentasun hurrenkera errespetatzea galarazi gabe, tributuen bilketarako premiamenduzko prozedurari ordainarazteko beste prozedura batzuk metatzen bazaizkio -singularrak nahiz unibertsalak, judizialak nahiz judizialak ez direnak-, prozedurarekin trabatutako ondasunak ordainarazteko lehentasuna ondoko arauen arabera zehaztuko da:

a) Ordainarazteko beste prozesu edo prozedura bereziekin bat eginez gero, premiamenduzko prozedurak izanen du lehentasuna, horren barnean egiten den bahitura lehenagokoa bada. Horretarako, ondasuna edo eskubidea bahitzeko eginbidetaren datari begiratuko zaio.

b) Premiamenduzko prozedura ordainarazpen prozesu edo prozedura konkurtsalekin edo unibertsalekin batera suertatzen bada, premiamenduzko prozedurak izanen du lehentasuna prozedura horren barrenean bahitu diren ondasunak edo eskubideak ordainarazteko, baldin eta premiamenduzko probidentzia konkurtsaren deklarazioaren eguna baino lehen egin bada.

Zordunen konkurtsoa deklaratu gero, Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legeari eta, bidezkoa bada, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeari segituko zaio, baina horrek ez du galaraziko behar den premiamenduzko probidentzia egitea eta ordainarazpen aldiko errekaruak sortzea, konkurtsoa bukatu baino lehen horretarako baldintzak gertatuz gero.

4. Tributu kredituen lehentasunezko izaerak prozesu konkurtsaletan abstenitzeko eskubidea ematen dio Nafarroako Foru Komunitateari. Hala ere, zilegi izanen du prozesu konkurtsaletan akordioak eta hitzarmenak sinatzea eta zordunarekin zorra ordaintzeko baldintza bereziak adostea, zordunarekin bat etorri eta berme egokiak ezarri. Baldintza horiek ezin dira zordunarentzat hobeak izan prozesu judizialari bukaera ematen dion hitzarmenean edo akordioan zehazten direnak baino. Lehentasun hori konkurtsoei buruzko legedian jasota dagoen bezala erabiltzen ahalko da. Era berean, zilegi izanen da kreditu horiek tributuei buruzko arauetan aurreikusita dagoen bezala konpentsatzea.

Aurreko lerrokadan aipatutako akordio eta hitzarmenak adostu eta sinatzeko, Zerga Administrazioako organo eskudunaren baimena baizik ez da eskatuko.”

6. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeko ondoko artikuluek honako testu hau izanen dute:

Bat. 11 artikulua. Lehenengo lerrokada.

“Tasak ordaintzetik salbuetsirik daude Nafarroako Foru Komunitatea, Nafarroako toki entitateak, Estatua, lurraldeko gainerako ente publikoak eta horien menpeko erakunde autonomoak. Zilegi da salbuespena kasu batzuetan aplikatzeko baldintza jartzea.”

Bi. VI. tituluaren beste kapitulu bat gehitzea, III.a hain zuzen, eta bertan beste artikulua bat, 60 bis artikulua.

“III. KAPITULUA

Aseguruetako bitartekoen eta berraseguruetako artekarien Erregistroan inskribatu eta ziurtagiriak egiteko tasa

60 bis artikulua.

1. Zergapeko egintza.

Zergapeko egintza ondoren aipatzen diren inskripzioak eta ziurtagiriak egitea da:

a) Aseguru agente lanetan edo banka-aseguruen operadore lanetan aritzen direnak, eskusiboak izan ala beste batzuei lotuak, Aseguruen bitartekoen, berraseguruen artekarien eta horien goi-kargudunen administrazio erregistro berezian inskribatzea, dela aseguruaren bitarteko gisa, dela berraseguruen artekari gisa.

b) Aseguruaren bitarteko gisa edo berraseguruen artekari gisa inskribatzen diren pertsona juridikoen aseguru edo berraseguruen bitartekotza lanen gaineko erantzukizuna duten administrazio eta zuzendaritza karguak inskribatzea.

c) Aurrekoekin zerikusia duten egintzak inskribatzea, aseguru eta berraseguru pribatuen gaineko arauen arabera inskribatu beharrekoak badira.

d) Zenbaki honetako a) letran aipatzen den Erregistroan sartuta dagoen informazioari buruzko ziurtagiriak egitea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasa honetako subjektu pasiboak honako hauek dira: aseguruaren bitartekoen, berraseguruen artekarien eta horien goi-kargudunen administra-

zio erregistro berezian inskribatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erregistro horretako ziurtagiri bat eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Sorrarazpena.

Zergapeko egintza den zerbitzuaren eskaera aurkezten den unean berean sortuko da tasa.

4. Tarifa.

Tarifa hauen arabera izanen da tasa:

a) Aseguruetako agente eskusibo baten inskripzioagatik, pertsona fisikoa bada, 10 euroko kuota finkoa.

b) Aseguruetako agente lotu bat edo aseguruaren edo berraseguruen artekari bat inskribatzeagatik, pertsona fisikoa bada, 60 euroko kuota finkoa.

c) Aseguru agentzien sozietate edo banka-aseguruen operadore eskusibo edo lotu bat edo aseguruaren edo berraseguruen artekarien sozietate bat inskribatzeagatik, 140 euroko kuota finko bat.

d) Aseguruetako agentzien edo banka-aseguruen operadore eskusibo edo lotuen sozietateetan edo aseguruaren artekarien edo berraseguruen artekarien sozietateetan aseguru edo berraseguruen artekaritza lanaren erantzukizuna duten administrazio eta zuzendaritza kargudunak inskribatzeagatik, 10 euroko kuota goi-kargudun bakoitzeko.

e) Inskribatzeko modukoa den beste edozein egintzagatik edo datuak aldatzeagatik, 10 euroko kuota finkoa bakoitzagatik.

f) Erregistroan dagoen informazioari buruzko ziurtagiriak egiteagatik, 10 euroko kuota finkoa.

Inskripzioa bertan behera uzteko inskripzioa egiten denean, ez da tasarik eskatuko.”

Hiru. VII. tituluaren beste kapitulu bat gehitzea, IX.a hain zuzen, eta bertan beste artikulua bat, 95 bis artikulua.

“IX. KAPITULUA

Abelbideak aldi baterako okupatzeko tasa

95 bis artikulua.

1. Zergapeko egintza

Tasaren zergapeko egintza hau da: azpiegitura edo instalazio desmontagarriekin abelbideak aldi baterako okupatzea. Horrelako okupazioak onartuko dira baldin eta abereen pasabidea edo langintza horrekin bateragarriak eta osagarriak diren gainerako erabilerak galarazten ez badira.

2. Subjektu pasiboak

Subjektu pasiboak dira Nafarroako Gobernua-
ren jabetzapekoa den edozein abelbide aldi bate-
rako okupatzea eskatzen duten pertsona fisiko
edo juridikoak.

3. Sorrarazpena

Organo kudeatzaileak eskatzen den okupazioa
onartzen duen unean sortuko da tasa. Nolanahi
ere, eskatutako okupazioa baimentzeko ebazpena
eman aurretik ordaindu beharko da.

4. Tarifak

Okupazioaren tasa zoruaren jabari osoaren
balioaren arabera kalkulatu da (hemendik aurre-
ra JOB). Balio hori lortzeko, azken bost urteotan
inguruan egindako lurren salmentak hartuko dira
aintzat. Tasa berrogei urterako kalkulatu da eta
okupazioaren kanona honela kalkulatu da:

A) Lur gaineko ukipenak: lur gaineko pasabide-
ak, zutoinak, kutxetak, erregistroak, etab.

Urteko tasa = (okupatutako eremua x JOB) / 40
urte

B) Lur azpiko ukipenak: saneamendua, horni-
durak, gasa, etab.

Urteko tasa = (luzera x 3 x JOB x %90 + luzera
x 7 x JOB x %25) / 40 urte

C) Aireko ukipenak: Argindarraren lineak, tele-
fonokoak, etab.

Urteko tasa = (luzera x 7 x JOB x %40) / 40
urte"

Lau. VII. tituluaren beste kapitulu bat gehitzea,
X.a hain zuzen, eta bertan beste artikulua bat, 95
ter artikulua.

"X. KAPITULUA

Ingurumen arloko informazio
materiala emateko tasa

95. ter artikulua.

1. Zergapeko egintza.

Tasa honen zergapeko egintza ingurumen arlo-
ko informazioa ematea da, interesatuak eskatuta-
koari egokitua.

2. Subjektu pasiboak.

Tasa honen subjektu pasibo dira zergapeko
egintzaren xede diren jarduketak egitea eskatzen
dutenak.

3. Sorrarazpena.

Tasa ingurumen arloko informazioa eskatzen
denean sortuko da. Tasa ordaintzen ez den bitarte-
an, ez da informazioa tramitatuko.

Eskaera egiten den unean tasa zenbatekoa
den kalkulatu eza ezinezkoa bada, gutxi gorabehe-
rako gordailu bat eskatuko da, geroko likidazioaren
bermea izan dena, deusetan galarazi gabe gor-
dailu hori itzultzea hurrengo idatz-zatian aipatzen
diren kasuetan.

4. Salbuespenak eta hobariak.

A) Ondoko hauek ingurumen arloko informa-
zioa emateko tasaren ordainketaz salbuesita ego-
nen dira, baina informazio eskaera bakoitzeko ale
bakar bat jasotzen ahalko dute ordaindu gabe:

a) Administrazio publikoak, sektore publikoaren
informazioa berriz erabiltzeari buruzko 2003/98/EK
Zuzentarauan xedatutakoari jarraikiz.

b) Informazio hori behar duten ikastetxe eta
unibertsitateak, behar hori justifikatuz gero.

B) Ingurumen arloko informazioa emateko
tasaren 100eko 50eko murrizketa egiten da, infor-
mazioa unibertsitate edo erakunde ofizialek onar-
tutako ikerketa lan edo proiektuak egiteko eska-
tzen denean.

5. Tarifak.

Tasa tarifa honen arabera eskatuko da:

1. TARIFA	Zuri-beltzeko fotokopiak, 10 aletik gorako fotokopia bakoitzeko:	
	1. DIN-A4 neurriko fotokopiak	0,06 euro
	2. DIN-A3 neurriko fotokopiak	0,12 euro
2. TARIFA	Koloretako fotokopiak:	
	1. DIN A-4 neurrikoak	0,75 euro
	2. DIN A-3 neurrikoak	1,50 euro
3. TARIFA	Eskaerarako propio egin beharreko mapak:	
	1. DIN-A4 neurrikoak	3,00 euro
	2. DIN-A3 neurrikoak	6,00 euro
	3. DIN-A2 neurrikoak	12,00 euro
	4. DIN-A1 neurrikoak	24,00 euro
	5. DIN-A2 neurrikoak	48,00 euro
4. TARIFA	CD-ROMetan egindako grabazio berariazkoak:	
	1. CD-ROMa	2,00 euro"

Bost. 99. artikulua.

"99. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

		EUROTAN
1. TARIFA	Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua:	doan
2. TARIFA	Batxilergoko titulua:	
	1. Tarifa arrunta:	44,00
	2. Familia larria, 1. kategoriakoa:	22,00
	3. Familia larria, 2. kategoriakoa:	0
3. TARIFA	Titulu teknikoa:	
	1. Tarifa arrunta:	17,62
	2. Familia larria, 1. kategoriakoa:	8,81
	3. Familia larria, 2. kategoriakoa:	0
4. TARIFA	Goi mailako teknikari titulua:	
	1. Tarifa arrunta:	43,00
	2. Familia larria, 1. kategoriakoa:	21,50
	3. Familia larria, 2. kategoriakoa:	0
5. TARIFA	Lanbide titulua:	
	1. Tarifa arrunta:	81,32
	2. Familia larria, 1. kategoriakoa:	40,66
	3. Familia larria, 2. kategoriakoa:	0
6. TARIFA	Hizkuntza baten gaitasun agiria:	
	1. Tarifa arrunta:	21,76
	2. Familia larria, 1. kategoriakoa:	10,88
	3. Familia larria, 2. kategoriakoa:	0
7. TARIFA	Euskararen Gaitasun Agiria:	
	1. Tarifa arrunta:	19,82
	2. Familia larria, 1. kategoriakoa:	9,91
	3. Familia larria, 2. kategoriakoa:	0
8. TARIFA	Goi mailako Musikako titulua:	
	1. Tarifa arrunta:	93,24
	2. Familia larria, 1. kategoriakoa:	46,62
	3. Familia larria, 2. kategoriakoa:	0
9. TARIFA	Bikoiztuak:	
	1. 2. tarifatik 8.era bitarteko tituluena, bi horiek barne:	3,63
	2. Bigarren Hezkuntzako graduatu tituluarena:	doan"

Sei. 103. artikuluari 6. idatz-zatia gehitzea.

"6. Ingurumen osasunaren arloko zerbitzuak.

		EUROTAN
A)	Hileta zerbitzuetako sistema aurrefabrikatuen homologazioa	30
B)	Igerilekuen Osasun-kontroleko Erregistro-liburua	10
C)	Hozte-dorreak eta lurrun-kondentsadoreak jartzeko baimena tramitatzea	30
D)	Establezimendu eta Zerbitzu Plagiziden Erregistro Ofizialean inskribatzea edo inskripzioa aldatzea	30
E)	Pestizida Arriskutsuen Mugimenduen Liburu Ofiziala saldu eta eginbidetzea	16"

Zazpi. 109. artikulua.

1. 109. artikuluko 1. idatz-zatia honela erredaktatuko da:

“1. Zergadunari tarifa eskatuko zaio animalia bat hiltzen den bakoitzeko, zatikatzeko eragiketa bakoitzeko eta biltegi-tako kontrol bakoitzeko.

Dena dela, hiru lan horiek edo horietako batzuk, hots, hiltzea, zatikatzeko eta biltegi-tako toki berean egiten badira, guztira ordaindu beharreko tasa pilatzen diren faseei dagokien tarifa izanen da, artikuluko honetako 3. idatz-zatian adierazitakoari jarraikiz.

